



HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA

2015



HIZKUNTZ ESUBIDEEN
BEHATOKIA

Izenburua: HIZKUNTZA ESKUBIDEEN EGOERA 2015

Mota: Urteko Txostena

Egilea: HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Argitaratze data: 2016-05-17

Argitalpen digitala www.behatokia.eus atarian eskuragarri

OHARRA: Argitalpen honetan agertzen diren datuak, informazioa eta abar baliatu nahi izanez gero iturria aipatzea eskertuko genuke.

HITZAURREA

HERRITARRAK ERAGILE

Hamabosgarrenez Hizkuntz Eskubideen Behatokiak hizkuntza-eskubideen inguruan urtero egiten duen diagnosis biltzen duen argitalpena jarri du gure eskuetan. Egia esan, urterik urte ondorioak behin eta berriro errepikatzen direla ikusteak erakusten du herritarren oinarritzko eskubide diren hizkuntza-eskubideek ez dutela behar eta merezi duten garrantzia politika publikoetan. Nolabaiteko nekea ere sortzen du urtez urte herritarren eskubideen bermeari begirako neurri eragingarriak abian jartzen ez direla ikusteak. Halere, urtero Behatokiak egiten duen ekarpen honek gero eta garrantzi handiagoa duela iruditzen zait, hain zuzen ere, ikuspegi sinkronikoa ez ezik, diakronikoa ere eskaintzen duelako, hamabost urteko ikuspegia hain zuzen ere.

Halere, oso interesgarria iruditu zait Behatokiak 2015eko urteko txostenean agerian jarri nahi izan duen elementua, hau da, herritarren ahaleginak emaitzak uzten dituela, eta ahalegin horri esker lortu egin direla aldaketak, eta beraz, hizkuntza-eskubideak bermatzea.

Behin eta berriz entzuten ari gara euskahalduntzea dela etorkizunari begirako estrategia. Hau da, euskaldunok gure boterea erabili behar dugula besteetan eragiteko eta, zintzoki, urteko txostenean jasotzen diren adibideak horren isla dira. Horrela, herritarren determinazioari esker lortu da egoitza edo eraikin publikoetan, bezeroei zein langileei zuzendutako oharretan, eta abar luzean ikusitako hutsuneak konpontzea.

Bai, egia da, euskaldunoi badagokigula oraindik kexak egitea eta akuilari lana betetzea, baina zalantzarik gabe, akuilari lanak emaitzak dituela ikusteak intentsitate are handiagoaz jokatzeko ekarri beharko luke. Aurtengo txostenak bidea zein den erakutsi du, eta uste dut jauzia egiteko garaia iritsi dela. Geure eragingarritasuna handia izan daitekeela ohartu behar dugu, eta izan badela ondorioztatu dugu. Bada, ekin diezaiogun indarrez eta determinazioz euskaraz bizitzeko nahiari. Seguruenik, hurrengo urtean Behatokiko txostenak hainbat gabezia utziko ditu beste behin agerian, baina seguru nago hurrengo urtean herritarren eragiteari esker egoera askori konponbidea emango zaiola.

Gainera, hurrengo urtean Europako gizarte eragileon ekarpenekin osatutako tresna berri bat ere izango dugu, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Duela hogeitau urte Bartzelonan onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak jasotako hizkuntza-eskubideak bermatzeari begira zein neurri hartu beharko litzatekeen jasoko dugu Europako txoko guztietatik. Hartara, proiektu horretan ere hizkuntza-eskubideen alde lan egiten duten eragileen ahalduntze-ariketa egiten ari gara.

Finean, hortxe dago gakoa. Norbanakoen ahalduntzeak eta ahalduntze kolektiboak ekarriko dituzte aldaketak, eta, beraz, norabide horretan jarraituko dugu lanean. Eta, noski, bide horretan ere zu behar zaitugu, gero eta akuilari gehiago behar dugu. Ekin diezaiogun.

Paul Bilbao Sarria
Hizkuntz Eskubideen Behatokiaren lehendakaria

AURKIBIDEA

HITZAURREA	3
SARRERA.....	7
EUSKARAZ BIZI NAHAIAREN ERREKA TANTAZ TANTA BETETZEN	11
1. OSASUNGINTZA.....	27
2. HERRIZAINGOA/SEGURTASUNA.....	43
3. JUSTIZIA	53
4. HEZKUNTZA.....	59
5. ADMINISTRAZIO JARDUERA OROKORRAK.....	69
6. KULTURA/AISIALDIA/KIROLA.....	85
7. LAN MUNDUA.....	95
8. KONTSUMO ZERBITZUAK.....	101
DATUAK.....	115

SARRERA

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEKLARAZIO UNIBERTSALA

Euskal hizkuntza-komunitatea estatus juridiko ezberdinen mende dago eta euskaldunari bizi den tokiaren arabera aitortzen zaizkio hizkuntza-eskubideak. Horrela, euskaldunon hizkuntza-eskubideei buruzko diagnosia, egun indarrean dauden ordenamendu juridikoen arabera eginez gero, hainbat kasutan eskubideak ez direla urratzen ondoriozta liteke.

Hizkuntza-eskubideen diagnosi egokia egiteko, beraz, ezinbestekoa da beste erreferentzia bat erabiltzea.

1996an Bartzelonan PEN Club International eta CIEMEN (Centre Internacional Escarré per a les Minories Ètniques i les Nacions) erakundeak sustatu eta UNESCO erakundeak babestutako Hizkuntza Eskubideei buruzko Mundu Mailako Biltzarrean Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zen. Bertan 66 Gobernuz Kanpoko Erakunde, PEN International erakundeko 41 zentro eta hizkuntza-eskubideen inguruko 41 aditu bildu ziren eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuten.

Deklarazio honek abiapuntutzat du *hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Horrela, hizkuntza-eskubideen betetasunaren erreferentetzat hizkuntza-komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan hartzen du, beti ere, eremu hori ulerturik komunitate hori bizi den eremu geografikoa ez ezik, bai eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere.*

Horrela bada, nazioarteko adierazpen garrantzitsu hau abiapuntu eta oinarri hartuta garatzen du Hizkuntz Eskubideen Behatokiak bere jarduna.

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA

Behatokia Euskal Herriko herritarren hizkuntza-eskubideez arduratzen da eta eskubide horiek Euskal Herri osoan, arlo publikoan zein pribatuan, babestera zuzentzen du bere jarduera.

Euskal Herrian euskaraz mintzatzeko, administrazioari zuzendu eta administraziotik zerbitzuak jasotzeko (osasuna, hezkuntza, justizia, informazioa edo beste edozein zerbitzu), bai eta orokorrean, jendarteak eskaintzen dituen aukerak euskaraz baliatzeko euskal hiztunek dituzten eskubideak babestea da Behatokiaren xedea.

ZEIN DIRA BEHATOKIAREN LAN-ILDO NAGUSIAK?

- > Herritarrek nozitzen dituzten hizkuntza-eskubideen urraketei konponbidea emateko lan egiten du erakunde publiko zein pribatuaren aurrean eta, beharrezkoa denean, bide judizialera ere jotzen du.
- > Horretarako *Euskararen Telefonoa* zeneko zerbitzua eskaintzen die herritarrei, gertatu zaizkien eskubide urraketan berri Behatokiari jakinarazteko edo hizkuntza-eskubideak ongi zaintzen dituzten entitateen jokabide eredugarria zoriontzeko.
- > Hizkuntza-eskubideen betetze-egoeraren azterketak eta txostenak egiten ditu eta horiek euskal jendarteari eta Euskal Herriko administrazio-erakundeei aurkezten dizkie.
- > Hizkuntza-eskubideen edukiak zabaltzen ditu eta bertako hizkuntza erabili eta arlo guztietan garatzeko Euskal Herriko jendarteak duen eskubide gisa defendatzen ditu.
- > Hizkuntza-eskubideekiko kontzientziatzea eta sentiberatzea lantzen ditu.
- > Aldez aurreko lana egiten du eragin handiko tokietan euskararen presentzia soziala bermatzeko.

HIZKUNTZ-ESKUBIDEEN EGOERA 2015 URTEAN

Ondorengo lerro hauetan islatuko dugun azterketa 2015an zehar herritarrek Behatokira helarazitako gertaeretan oinarritzen da. *Euskararen Telefonoaren* edo *Akuilari* app-aren bidez, administrazio publikoen eremuan zein sektore sozioekonomikoan, euskaraz jarduteko eskubidea errespetatu ez zaienean, Behatokira jo dute babes bila edota salaketa egitera bizi izan duten hizkuntza-eskubideen urraketaren aurrean eragiteko asmoz. Horrela bada, azterlan honen iturria herritarren beraien bizipenak dira, euskal hiztunek euren egunerokoan euskaraz jarduten saiatu direnean bizi izan dituzten egoerak.

Behatokiak ez du kexa anonimorik onartzen baina konfidentzialtasun osoz jokutzen du; alegia, ez du herritarren daturik zabaltzen, ez eta erakundeak edo administrazioak berariaz eskatuta ere.

Esan behar dugu Behatokian kexa jartzeak beti dituela ondorioak. Kasu batzuetan, urraketa-egoera gainditzeko neurriak hartzea bultzatzen delako; beste batzuetan, egoera hobetzeko indar egiten delako; eta, azkenik, eskubide horien bermean eta euskararen normalizazioaren bidean hutsuneak identifikatzen dituelako.

Hizkuntza-eskubideak urratu zaizkionean herritarrak sentitu duen mina, gutxiespena eta bazterkeria ezin ditugu hemen islatu baina, banaka-banaka, jazotako gertaera guztiek, agerian uzten dituzte gaur egun euskararen lurraldean euskaldunok euskaraz bizitzeko ditugun zailtasunak eta oztopoak, hala nola pairatzen ditugun hizkuntza-eskubideen urraketak.

Euskal Herriko Iparraldean nola Hegoaldean, administrazio maila guztiekin (Estatu administrazioekin, administrazio autonomikoekin, toki administrazioekin) eta sektore sozioekonomikoarekin zerikusia duten gertaerak helarazi dizkigute herritarrek 2015 urtean zehar: mediku kontsultan euskaraz aritzeko eskubidea ez bermatzea, euskaraz ikasteko oztopoak aurkitzea, segurtasun-indar ezberdinekin euskaraz egin ezin izana edota erantzun txar bat jasotzea....

Horrela bada, Behatokian jaso ditugun gertaera horiek guztiak errealitatearen zati bat, lagin bat besterik ez dira, baina euskal hiztunen benetako egoerara eta egunorokoan aurkitzen dituzten zailtasunetara gerturatzen gaituzte.

auskias

bizi

nei det

du



EUSKERAZ

EUSKARAZ

jolastu

nahi dut

eraz
esin
dot



uska
an
nahi dut



an
nahi dut

uska
an
nahi dut

Euskaraz bizi nahiaren erreka tantaz tanta betetzen

“Terapia jaso behar nuen taldera joan nintzen. Iritsi eta, nire harridurarako, gaztelaniaz hasi ziren. Erdaraz? Nola erdaraz? Nire hizkuntza euskara da. Nik euskaraz egin nahi dut. Orduan altxatu eta joan egin nintzen”.

Holaxe kontatzen zigun Maixux Rekalde Donostiako bizilagunak Alzheimer gaixotasunari aurre egiteko eskaini zioten tratamendua euskaraz ez zela jakin zuenean.

Maixuxek ez zion tratamendua euskaraz jasotzeko eskubideari uko egin, erronkari heldu eta martxan jarri zen gaixotasunari aurre egiteko saioak euskaraz jasotzea lortzeko. Garbi zuen bere euskaraz bizitzeko nahiak eta horretarako duen



eskubideak ezin zutela itxaron. Geldirik egonda ez zuela berak nahi zuena lortuko, ez zuela irtenbidea ekarriko.

Jarrera horrek egoera aldatzea ekarriko zuen. Laguntza eskatu, AFAGIn (tratamendua jasotzen zuen zentroan) egoera planteatu... zailtasunen aurka borrokatu eta eritasunari berak nahi bezala aurre egiteko baldintzak sortu zituen, terapia-saioak euskaraz jasotzea lortu zuen. Gainera, etorkizunean egoera berean aurki daitezkeen pertsonentzako bidea ireki zuen eta egoera duin bat aurkituko dute berari esker. Maixuxek zioen bezala *“tapatuta ez dugulako ezer egiten”*. Bere indarrak eta adoneak, guztion aitoren lortu zuen.

Maixuxen antzera, medikuarekin edota osasun etxeko harrerako langilearekin komunikatzeko orduan, segurtasun indarrekin jarduteko unean, erosketa guneetan, lan tokian, aisialdian, kultur eta kirol jardueretan... oro har eguneroko jarduera guztietan, zailtasunak aurkitzen dituzte euskaraz bizi nahi duten pertsonak. Testuinguru honetan baldintzaturik eta urraturik ikusten dute euren egunerokoa euskararen herrian euskal hiztun gisa bizi nahi duten herritarrak.

Baina, Maixux bezala, hizkuntza dela eta euren herrian bazterturik sentitzen direnean, isilik geratu eta amore eman ordez, errebelatu egiten dira, eskubidea exijitu eta babesa bilatzen dute. Diskriminazioari aurre egin eta konponbidea bilatzen, egoera aldatzen

ahalegintzen dira. Indar egiten dute hizkuntza-eskubideen errespetua lortzeko.

Herritar guztien eskubide guztiak bermatzeko ardura daukaten agintariek eta arduradunek, askotan, utzikieriaz jokatzaren bitartean, euskaldun gisa bizi nahi duten pertsonak egiten duten eginahalak eta hartzen duten jarrerak emaitzak ematen ditu, aldaketak sustatzen dituzte hizkuntza portaeretan.

2015 urtean zehar izan dira euskaraz jarduteko oztopoen aurrean Maixuxen jarrera berari eutsi eta arrakastarako bidea egin duten herritarrak. Hizkuntza dela eta bigarren mailako herritar gisa izatea onartzen ez dutenak, tratatu duina exijitu eta egiten duten ahaleginaren ondorioz aldaketak eragin dituztenak.

Euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidea mugatua dugun testuinguru honetan, herritarren jarrera proaktiboaren ondorioz, konponbidea izan duten urraketa egoera hauetako bakoitzak euskara erabiltzeko eta euskaraz bizitzeko aukerak areagotu egiten dituzte.

Hurrengo lerro hauetan jaso ditugu horietako batzuk.

Nafarroan bizitu den egoera bidegabearen eta mingarriaren amaiera aipatuz hasiko gara: euskaraz emititzen duen *Euskalerrria irratiak*, kostata baina azkenean aitortu diote emititzeko eskubidea. Eta Iruñerriko euskal hiztunen komunitateari, irrati bere hizkuntzan entzutekoa.

Nafarroan urtetan aplikatu diren hizkuntza-politikek euskararen berezko garapena eragozteko helburua izan dute. Nafarroako herritarrak izan dira euskarari sostengua eman diotenak. Nafarroako herritarren ahaleginari esker egin du euskarak aurrera. Nafar euskaldunen euskaraz bizitzeko nahia eta lana izan dira urratsak ematea ahalbidetu duena. Eta lan horrek fruitua eman du 2015ean.

Beste eremu batera pasatuz, merkataritzaren alorrean eta harreman publikoetan bezeroari eta, oro har, publikoari bere hizkuntzan zuzentzeak duen garrantzia ongi frogatua badago ere, entitate eta erakunde askok eskaintzen duten produktuen edo zerbitzuen gaineko informazioa euskaraz jasotzeko aukerarik ez dute askotan euskal hiztunek.

Euskal Herrian kokatutako enpresak edo entitateak izanik ere, maiz webguneak ingelesez edo frantsesez kontsultatu daitezke baina ezin da informazioa euskaraz eskuratu. Horrela gertatzen zen hurrengo hiru kasuetan baina, herritarrek Behatokiaren bidez kexa adierazi eta egindako lanketaren ondotik, euren web guneetan informazioa euskaraz ere ematea lortu zen 2015ean.

berria

LANUJARIATA, 2015ERKO ABUZTUAREN 29A • VIII URTEA • 3.780 ZENBAKIA • WWW.BERRIA.EUS • 1,50 EURO

Zorionak Euskalerrria! (irratiak)

Lizentzia, azkenean

Euskalerrria Irratiak emititzeko lizentzia izango du, 27 urtez lanean aritu eta gero • Nafarroako Gobernuaren kontratazio mahaiak aitortu dio • Hamabost egun ditu agiriak aurkezteko • 28

IRITZIA Euskalerrria Irratiaren legezko baimena Pablo Zabaketa	ELKARRIZKETA «Sokakero bai on du, LPPK erabiltzaren onuratu nahi oteko» M. Bujanda, irratiko zuzendaria	«Pilotuak» baztertuak Izan da, euskaraz emititzeko hutsagarriak S. Iribarren, Sorzen	«Bikagabekeria» Bai konpainia da erabaki horiek S. Aleman, ICA
---	--	---	---

Harian 2

Espaniako bozen ostean ezarritako garatzeko bide bat sumatzen du Urkulluk

Getxiko Estatuaren erreforma-erretiroa aurrera eramaten du Eusko Legebiltzarra. Aholkulariak, eta alderdiak bai nahi izateko • 6

Salatu dute gaitorik dauden presoek politika «ankerra» ematen dietela

Manifestazioa egin dute milaka pertsonak Bilbon, eta erri dauden eruska preso osasuneko eskuak bertan eskatu • 8

Azkarro bat jipitu dute Bilbon: azkeneko astean, hirugarren eraso izan da

Hirugarren egunerako protesta egin dute Bilboko jaietan, hirugarren aldiz emakume bati eraso egin diotekoa • 11

CDC ustelkeriarekin lotu du Guardia Zibila, 1-7a baino hila bete lehenago

Protesta baten bostakoa izan zen egotzia, CDCren egotza izan da. James Pei Nafarroako Legebiltzarreko kidea • 14

Austrian 71 ziren hilako migranteak, eta Bilboko kostaldean, 200 inguru

Hungariar lau pertsona atxilotu dituzte, herriegoian Austriar hiltzailea bota zutenak. Kanarietara kin bota dituzte • 16

KIROIA 20

Athletiek izkin egin die aurkari zailenei zokzetan

Europako Liga final berrak ematen dira Bilboko jaietan. AZ Alkazar, Athletic eta Partisan izango dira aurkariak • 20

Udagi 29

NARRAZIOA 13

'Inborsora'



Mikel Taberna

Indarra eta izendua



Andere estazioaren inguruko erretiroa, Bilboko jaietan. Aste geroago, Churrango izateko gaitza • 20

Mantangorri

• GEDICARRIA



Gezurra badirudi ere, oraindik orain, egoitza eta eraikin publikoetan bezeroei edo erabiltzaileei zein langileei zuzendutako oharretan, karteletan eta abarretan askotan hutsuneak antzeman dituzte herritarrek. Horiek aldatzeko eta euskal hiztunak begirunez tratatzeko eskatuz jo dute Behatokira herritarrek. Eta egindako eginahalaren ondorioz hutsuneak zuzendu egin dira.





Beste batzuetan euskarazko bertsioa zuzena ez dela eta akatsak daudela jakinarazitakoan horiek aldatzea edo zuzentzea lortu da. Esaterako, Metro Bilbaok ez zuen errespetatzen bere *Teleadierazle-sisteman* SOPELA herriaren toponimia. Euskaltzaindiak eta Sopelako Udalak berak ebatzitakoaren aurka SOPELANA erabiliz.




Bertara helarazitako jakinarazpenaren ondotik, Bilboko Euskalduna Jauregiak aldatu egin zuen gaizki idatzitako bide-seinalea

Hemen, berriz, Baionako Ikeak euskaldunekin izan duen keinu txikia



Hizkuntza-paisiarekin segituz, baina eremu sozioekonomikora salto eginez, Abadiñoako Eroskin bezeroei zuzendutako mezua erdara hutsean egotetik euskaraz paratzera emandako urratsaren frogak dira hurrengoak.



Nabarmenago ikusten da CAPIO klinika berrien irudian ele bietan ezarritako seinaletika.



“Iberdrolak igortzen dizkidan elektrizitate-fakturak euskaraz idatziaik egoten dira baina Iberdrolak igortzen dizkidan idazki guztiak euskaraz jaso nahi ditut”.

Eskaera egin zion hainbatetan bezero batek Iberdrolari eta beste hainbatetan horrela erantzun zion Iberdrolak: *“hurrengo komunikazioetarako neurri egokiak hartuko ditugu”* esanez. Bada, ekinaren ekinez, lortu du bestelako komunikazioak ere euskaraz jasotzea.

LA ELECTRICIDAD DE IBERDROLA PROCEDE EN SU MAYOR PARTE DE FUENTES RENOVABLES Y ES RESPETUOSA CON EL MEDIO AMBIENTE.

TUS GESTOS AHORRAN ENERGÍA Y CUIDAN DEL PLANETA

Cada vez consumimos más energía y los recursos para generarla no son infinitos. Por eso, pequeños gestos pueden disminuir tu consumo manteniendo el nivel de confort. Así, conseguirás un ahorro y estarás cuidando del planeta que nos proporciona esa energía.

- **Las lámparas LED**, además de proporcionar una luz de calidad, proporcionan una gran cantidad de luz con un consumo reducido. Son la tecnología actual más eficiente del mercado, y además las que tienen una mayor duración (siempre y cuando sean de calidad).
- **El frigorífico** es normalmente el electrodoméstico que más energía consume a lo largo del año en un hogar. Ajusta la temperatura para que no enfrie de forma excesiva, y cuando vayas a meter o sacar algo, intenta que la puerta esté abierta el menor tiempo posible.
- Siempre que puedas, **utiliza el lavavajillas y la lavadora al máximo de su capacidad**, seleccionando la menor temperatura de lavado que sea posible. De esta forma, ahorras energía, agua y detergente, y alargas la vida del electrodoméstico.
- **Tapa los recipientes mientras cocinas** para evitar un calentamiento más rápido.
- **El aire acondicionado** gasta entre 3 y 5 veces más energía a mayor temperatura. Úsalo con moderación.

Puedes encontrar más consejos en www.iberdrola.es

IBERDROLAK MERKATURATZEN DUEN ELEKTRIZITATEAREN GEHIENA ITURRI BERRIZTAGARRIETATIK DATOR, ETA INGURUMENA ERRESPETATZEN DU.

ZURE KEINUEI ESKER, ENERGIA AURREZTU ETA PLANETA ZAINTZEN DUGU

Gero eta energia gehiago kontsumitzen dugu, baina energia hori sortzeko baliabideak ez dira amaigabeak. Hori dela eta, keinu txikiak esker zure kontsumoa murriztu dezakezu, konfort maila jaitzi gabe. Horrela, aurreztu egingo duzu, energia ematen dituen planeta zaintzen duzun bitartean.

- **LED bonbillek** kalitatezko argiaren kantitate handia ematen dute, energia-kontsumoa txikia izanik. Egun merkatuan dagoen teknologiarik eraginkorrena da, eta gainera, LED bonbillek arruntak baino denbora gehiago irauten dute ibetiere kalitatezkoak badira).
- **Extebizitza batean, hozkailua** da urtean zehar energia gehien kontsumitzen duen etxetresna elektrikoak. Doitu hozkailuaren tenperatura, janaria gehiegi hoztu ez dezan, eta zerbait sartu edo ateratzen duzunean, saiatu atea ahalik eta azkarren ixten.
- **Ahal duzun guztietan, ontzi-garbigailua eta arropa-garbigailua ahalik eta gehien bete**, eta jartzekotan, aukeratu tenperatura ahalik eta baxueneko garbiketa-programa bat. Horrela, energia, ura eta xaboi aurreztuko dituzu eta luzatuko duzu etxetresna elektrikoaren bizitza.
- **Jarri estalkia eltzeari, janaria egosi behar duzunean**. Energia gutxiago kontsumituko duzu, azkarrago berotuko baita.
- **Temperatura jaitzi behar denean, gradu bakoitzeko, aire girotuaren energia-kontsumoak %4 eta 6 artean egiten du gora**. Neurritz erabili.

www.iberdrola.es/aurreztekoaholkuak web orrian aurkituko dituzu aholku gehiago

IBERDROLA

Pozik ageri zen 2015eko martxo aldean guregana jo zuen herritarra. Hona horretarako arrazoia:

“Hamaika bider salatu izan dut hainbat batzokiren praktika erabat erdaltzalea... gaur adierazi gura dizuet, sumatu dudala behingoan eragina izan duela behin eta berriro salatu izanak, behinik behin prentsako iragarkiei dagokienez. Izan ere, azken boladan ohartu naiz euskarari tokia egiten ari direla; Deia egunkarian eta Durangon aldizkari dohainezkoan egunotan ikusi dudaren arabera. Erantsita bidaltzen dizuet Durangaldeko eta Zornotzako postontzietan dohainik banatzen duten ‘Durangon’ aldizkarian agertu denaren argazkia”.

DURANGOKO BATZOKIA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA · ENKARGUZKO MENUAK
RAZIOAK · EZKONTZAK · BATAIOAK · JAUNARTZEAK

Menús del día y Carta · Menús por encargo
Raciones · Bodas · Bautizos · Comuniones

Zumalakarregi, 6 · DURANGO
Tel. 944 65 77 40 · www.baibatatzokia.com

Azpeitiako Bertan Merkatarari Elkartek bideratutako txartela jaso zuen herritarrak gaztelania hutsez zegoen gutunarekin batera. Herritarrak itzuli egin zuen karneta bere hizkuntza-eskubideak bermatzeko iradokizuna eginez. Handik gutxira Bertan Merkatarien Elkartek jakinarazpena igorri zuen Behatokira hizkuntza-eskubide urraketa onartuz eta eskutitza euskaratu zutela jakinaraziz.

----- Birbidalitako mezua -----

Gaia:HIZKUNTZA URRAKETA

Data:Mon, 23 Mar 2015 12:46:38 +0100

Nork:Bertan Merkatarari Elkartea

Nori:telefonoa@behatokia.eus

Kaixo,

Lehengo egunean zuen eskutitza jaso genuen. Herritar batek hizkuntza urraketa medio salaketa jarri zigun.

Dossier zenbakia: 135-2015

Hizkuntza urraketa bezeroei bidalitako eskutitzean zegoen (erdara hutsean) esan nahi dizuegu euskaratu dugula eskutitza. Atxikiturik bidaltzen dizuet eskutitza euskaratuta.

Besterik gabe....

Bertan Azpeitiko Merkatarari Elkartea

E-mail:

Telef:

— Eranskinak:

Rural Kutxa eskutitza.doc

Bezero agurgarri hori:

Zure esku jarri nahi dugu **BERTAN** txartela. Txartel honekin zure erosketak baldintzarik onenetan ordaindu ahal izango dituzu, eta Azpeitiko Merkatariek beti eskaintzen dizuten zerbitzu zuzen eta berezituaz gozatu ahal izango duzu.

Eraman ezazu beti zeurekin, oso baliagarria izan baitakizuke edozein unetan, eta eskaintzen dizkizun abantailez balia zaitetz.

GARRANTZITSUA

Sina ezazu oraintxe zure txartela eta puska ezazu lehengoa.

DOAKOA DA

HIRU HILABETETAN ORDAINTZEKO AUKERA EMATEN DU, INTERESIK GABE

BEREHALAKO KONTSUMO-KREDITUA ESKAINTZEN DU

Txartela galdu edo lapurtuz gero, deitu

902 123 209

91 807 01 62

telefonoetara




Beste txartelen bat nahi baduzu, edota edozein zalantzaren gaineko galderak egin, Bertan Azpeitiko Merkatarari Elkartera edota Rural Kutxaren bulegorik hurbilenera jo dezakezu, eta atsegin osoz jarriko gara zure esanetara.

Besterik gabe, har ezazu gure agurrik beroena.

Gaur egun enpresa eta erakunde askoren komunikazio kanal bihurtu diren sare sozialetan ere atzeman dituzte hutsuneak herritarrek eta aldaketak lortu ere bai.

“Baskonia taldearen Instagrameko kontuak ia gaztelania hutsean baino ez daude”.

Herritarrak jakinarazitako urraketa egoera helarazitakoan, erantzun positiboa eman zuen Baskonia taldeak eta, euren lana hobetzen laguntzeagatik eskerrak eman ondoren, Instagrameko kontuan eragindako aldaketaren frogak helarazi zituen.




Administrazio publikoek edota haren menpeko erakundeek, herritarren eta erabiltzaileen eskura jartzen dituzten inprimaki, paper edo dokumentuen artean ere izan da aldaketarik 2015ean. Esaterako, Nafarroako Gobernuak liburutegietan maileguan hartzen diren liburu edo CDen itzulketa epearen berri ematen duten papertxoak gaztelaniaz baino ez zegoen. Barañaingo herritarren ekinaren ondotik, ele bietan banatzen da.

ORAIN	LEHEN
Biblioteca de Barañain Barañaingo Liburutegia Telf.: 948286828 Recibo de préstamo - Mailegu agiria Lector - irakurlea: 211912 BIBLIOTECA PUBLICA Título - izenburua: Decir casi lo mismo / Cod.barras: 2208443 Fecha de préstamo - Maileguaren data: 22/02/2018 15:32 Fecha de devolución - Itzultze data: 23/03/2018 23:59 Por favor, devuelva los documentos dentro del plazo establecido; otros lectores también desean utilizarlos. Gracias Mesedez, dokumentuak ezarritako epean itzul itzazu; baita bertze irakurlek ere erabili nahi izanzen dituzte. Mila esker	Biblioteca de Navarra Nafarroako Liburutegi Telf.: 848427797 Recibo de préstamo Lector: Título: Cod.barras: Fecha de préstamo: Fecha de devolución: www.bibliotecaspublicas.es/navarra/ Por favor, devuelva los documentos dentro del plazo establecido, otros lectores también desean utilizarlos. Gracias

Uharteko Udalak ere gaztelania hutsean bidali zion herritarrari nahitaezko diru-bilketari buruzko jakinarazpena. Honek ez zuen onartu testua euskaraz ez egotea eta kexa bidali zion Behatokiaren bidez. Horrela erantzun zuen Uharteko Udalak:

“Herritarraren kexa kontuan hartu dugu eta Agentzia Exekutiboaren jakinarazpen eredia euskaratu dugu. Horrela, hemendik aurrera elebiduna izango da”.

Esan eta egin. Hona Uharteko Udalak herritarren eskura jarri duen inprimakia.



Ayuntamiento de Huarte
Uharteko Udala

Ingresar en: CAIXA BANK Cta.

CONCEPTO	PE
CIRCULACIÓN	

El ALCALDE-PRESIDENTE ha dictado la siguiente PROVIDENCIA DE APREMIO "De conformidad con General Tributaria, y en los Art. 82.b), 94 y 97 d) iniciado el procedimiento de apremio respecto de en el plazo de ingreso en periodo voluntario. Not débito en el plazo de un mes a contar desde el d sin efectuar el pago, se procederá al embargo d cubrir el importe adeudado.

ADVERTENCIAS. Ante esta resolución cabe into
a) **Recurso de Reposición** ante el mismo órgano esta providencia.
b) **Recurso Contencioso-Administrativo** ante e siguiente a la fecha de notificación de esta provi
c) **Recurso de Alzada** ante el Tribunal Admistr providencia.
Recargo, intereses y costas: se aplicará el re hubieran devengado, sobre la deuda satisfecha notificación de la providencia de apremio. La cantidad adeudada devengará intereses de cobro de los mismos se efectuará de acuerdo Foral de Navarra. El deudor deberá satisfacer **Suspensión:** El procedimiento de apremio, a señaladas en el artículo 166 del Reglamento d **Aplazamiento:** Podrá aplazarse o fraccionar Reglamento de Recaudación de la Comunidad

PROVIDENCIA DE A

NOTIFICACIÓN

PROVIDENCIA DE APREMIO

Concepto
DNI / NIF
DESTINATARIO

31620 HUARTE NAVARRA

FIRMA DEL RECEPTOR

FECHA
DNI
RELACIÓN CON EL DESTINATARIO

NOMBRE Y APELLIDOS



Ayuntamiento de Huarte
Uharteko Udala

Sartu hemen: CAIXA BANK kontua

Argibideak: OLITE, 20 - BEHEA tel. 948 - 249250

KONTZEPTUA	EPEA	HASIERAKO KUOTA	KOSTUAK	ERREKARGUA	INTERESAK	ZENBATEKOA
ZIRKULAZIOA	2015	114.99	3.50	23.00	0.00	141.49

ALKATE-LEHENDAKARIAK ondorengo eman du
PREMIAMENDU-PROBIDENTZIA "Abenduaren 14ko tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 117.3 artikuluan, eta Nafarroako Foru Komunitatearen Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 82.b), 94. eta 97. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, adierazten dut premiamenduzko prozedura abiarazi dela, goian aipatu datuei dagokien zorraren gainean, ez baita zor hori ordaindu, hori egiteko izan den borondatezko aaldian. Jakinaraz dakiola probidentzia hau zordunari eta zorra osorik eta hilabeteko epean ordaintzeko errekerimendua egin diezaiotela; epe hori honako hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina kontatuko da. Halaber, zordunari ohartaraziko zaio, behin epe hori ordaindu gabe iraganik, bere ondasun eta eskubideak bahitzeari edo izan litezkeen bermeak exekutatzeari ekingo zaioa, zor duen zenbatekoa estali arte.
DIRUBILTZAILEA

QHARTARAZPENAK. Probidentzia honen aurrean ondoko errekurtsio hauetako bat paratzen ahal da, aukeran:
a) **Beraztertze errekurtsoa** egintzaren egile den organoari zuzendua, HILABETEKO epean, premiamendu hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.
b) **Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa**, Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, BI HILABETEKO epean, premiamendu hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina; edo, bestela, jakinarazi eta hortik aitzina.
c) **Gora jotzeko errekurtsoa**, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, HILABETEKO epean, probidentzia hau hilabeteko epea amaitu baino lehen, premiamenduzko errekarria aplikatuko da, eta ez dira galdatuko zorraren gainean sortuko ziren berandutze-interesak.
Zorretan den zenbatekoak berandutze-interesak sortuko ditu, nahitaezko aldia hasten denetik zenbateko hori ordaindu bitartean. Haien kalkulua eta kobrantza aipatu Nafarroako Foru Komunitatearen Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 98. artikuluan ezarritakoarekin bat eginen dira. Zordunak premiamenduzko probidentziaren kostuak ordaindu beharko ditu.
Etetea: Premiamenduzko prozedura, errekurtsoa aurkeztuagatik ere, Foru Komunitatearen Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 166. artikuluan eta Ordenantza Fiskal Orokorraren 61. artikuluan xedaturik diren eran eta baldintzetan baizik ez da etengo.
Geroratzea: Zorraren ordainketa geroratu ahalgo da, edo zatikatu, Nafarroako Foru Komunitatearen Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren 48. artikuluan eta Udal Aurrekontuak betetzeko oinarrietan xedatutako kasu eta baldintzetan.

PREMIAMENDU-PROBIDENTZIA

JAKINARAZPENA

UHARTEKO UDALA

31620 UHARTE NAVARRA

PREMIAMENDU-PROBIDENTZIA

Kontzeptua
NAN / IFK
HARTZAILEA

31620 UHARTE NAVARRA

ITZULI:

DERRIGORREZKO DIRU-BILKETA
OLITE, 20 BEHEA
31004 IRUÑA

Agiri hau eman eta fede ematen duen langilea.
DATA
SINADURA
--

HARTZAILEAREN SINADURA	Ematearen lehenengo saiakera LANGILEAREN SINADURA	1. Eman 2. Helbidea ez da zuzena 3. Hartzailea ez dago 4. Ezezaguna 5. Zendua 6. Ez dute onartu 7. Ez dute kargu hartzen 8. Postontzian utzia	Ematearen bigarren saiakera LANGILEAREN SINADURA	DATA ORDUA IDENTIFIKAZIOA	DATA ORDUA IDENTIFIKAZIOA

Baionako Mediatekara joan zen herritarra ez zen gustura atera bertan izan zuen mespretxuzko tratuarekin. Mediatekan izena emateko frantses hutsean zegoen inprimakia euskaraz bete zuelako haserretu egin zitzaion idazkaria. Bada, Behatokiarekin harremanetan jarri eta Mediatekara keza igorri ondoren, izen-emate fitxa ele bietan jarri du Mediatekak.

MÉDIATHÈQUE DE BAYONNE

INSCRIPTION INDIVIDUELLE BANAKAKO IZEN EMATEA

***NOM - DEITURA :** ***Prénom - Izena :**

***Né(e) le** (e)an sortua ***Lieu de naissance - Sorlekua :**

***Sexe - Sexua :** M/G F/E ***ADRESSE - HELBIDEA⁽¹⁾⁽²⁾ :**

.....

***CODE POSTAL - POSTA KODEA** ***COMMUNE - HERRIA**

Téléphone - Telefonoa⁽¹⁾ :

Courriel - Helbide elektronikoa⁽¹⁾ :

Profession ou situation scolaire (classe et nom de l'établissement)
Lanbidea edo eskola egoera (maila eta ikastetxearen izena) :

***POUR LES MINEURS (- de 18 ans) - ADINGABEEK (18 urtez petik)**

***RESPONSABLE LÉGAL - LEGEZKO ARDURADUNA** Mme - And. M. - Jn.

***NOM - DEITURA :** ***Prénom - Izena :**

***Né(e) le** (e)an sortua ***Lieu de naissance - Sorlekua :**

Je soussigné(e) autorise mon enfant mineur à emprunter des documents à la Médiathèque et m'engage à lui faire respecter le règlement. **Nik, behean izenpetzen dudana honek, ene haur adingabeari Mediatekan dokumentuak mailegatzeko baimena ematen diot eta araudia errespetatzera engaiatzen naiz.**

J'atteste l'exactitude des renseignements ci-dessus, déclare avoir pris connaissance du règlement de la Médiathèque, m'engage à le respecter et à signaler à la Médiathèque tout changement de coordonnées (adresse, téléphone, courriel) survenant dans l'année. Jarraian diren xehetasunak zuzenak direla segurtatzen dut, Mediatekaren araudiaren berri ukan dudala adierazten dut, eta horren errespetatzera eta urtean gerta daitekeen aldaketa oro (helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa) Mediatekari jakinaraztera engaiatzen naiz.

J'autorise la Médiathèque à m'adresser ses informations (lettres d'information, de réservation et de rappels) par courriel. Mediatekari baimena ematen diot informazioak (berri paper, erreserba eta abisu gutunak) posta elektronikoz helaraz diezazkidan

Formulaire à remettre à l'Accueil en se munissant d'une pièce d'identité en cours de validité⁽¹⁾ et d'un justificatif de domicile de moins de 3 mois⁽¹⁾ (quittance EDF, téléphone, loyer ou impôts). **Hariekuan emateko inprimakia,** bali den nortasun agiria eta 3 hilabete baino gutiago dituen bizileku frogagiri bat (EDF, telefono, alokairu edo zerga ordainagiria) aurkeztuz.


***Date** ***Eguna**

***Signature** ***Izenpetzea**

* mentions obligatoires
(1) de l'inscrit ou du responsable légal, le cas échéant.
(2) pour les résidents temporaires (élèves internes, personnes en vacances, etc.), merci d'indiquer votre adresse permanente à l'année.

* beharrezko argibideak
(1) izen emalearena edo honen legezko arduradunarena, beharrez.
(2) aldi bateko egoiliarrek (barnetegiko ikasleek, oporretan den jendeak, etab.), zuen helbide iraunkorra eman, otoi.

Donostiako San Telmo museoan ekitaldiren bat antolatzen duten entitateak behartuta daude catering zerbitzua *Bokado Taldearekin* kontratatuzera. Talde horrek hainbat hizkuntzatan eskaintzen du bere menu zerbitzuen karta. Orain arte ez bezala, aurrerantzean euskaraz ere egongo da Behatokira jo zuen entitate batek egindako ahaleginari esker.



Zornotzan IAT Ibilgailuen Azterketa Teknikorako kudeatzen duen enpresatik, SMS mezuak gaztelania hutsean igortzeagatik erabiltzaile batek igorritako kexari erantzunez, honako neurri hau iragarri zuen Behatokia helarazitako erantzunean:

**INSPECCION TECNICA LINK, S.A.**
Polígono Zubietas
46340 Amorebieta - Vizcaya
Teléfono 94 630 88 33
Telefax 94 630 85 36

Garbiñe Petriati Ijurra
Marcelo Zelaieta Etorbidea
U3 Eraikina, 13 Bulegoa
31014 Iruñea

GAIA: Dossier zenbakia 505-2015
Andre hori:
2016ko urtarrilatik aurrera azterketa abisu-mezuak esaldi honekin bidaliko dira:

"ITV-IAT Amorebieta. Matrícula/Matrikula: _____. Validez/Epea: ____/____/____.
Cita/Hitzordua: www.itelink.com o/edo 94 630 88 33."

Mila esker. Adeitasunez,




Alberto Aguirre Arive
Aztertikoko Arduraduna

Ins. Reg. Mercantil de Vizcaya, Tomo BI-538, Sección General de Sociedades Folio 208, Hoja n.º BI-4516-A, Inscripción 1.ª - N.I.F. A-48-551.030

“Iratin Informazio eta zaintza zerbitzuak emateko langileak kontratatzeke lan deialdia egin du Aezkoako Batzarre Nagusiak. Eskatuko den euskararen ezagutza Batzarreak 2013an jasotakoa baino apalagoa izanen da. Lana Irati basoan aritzeko da eta langileen betebeharren artean bisitariei azalpenak ematea dago, informazio gunea kudeatzea... Erabaki horrek herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideak urratzea ekarriko du”.

Honela, kezkatuak, mintzatzen zen gurekin harremanetan jarri zen Aezkoako bizilaguna. Berehala zuzendu zen Behatokia Aezkoako Batzarreburuarengana herritarraren kezka eta kexa helarazteko. Handik gutxira deitu zuen kexa jarri zuen herritarrak:

“Batzarre Nagusiak atzera egin du eta bai aurten eta etorkizunean ere B2 hizkuntza-eskakizuna eskatuko zaie Iratiko mendizain lanetan aritzeko hautagaiei”.

- Poseer carnet de conducir y vehículo apropiado para el ejercicio del cargo (se adjuntará fotocopia compulsada del carnet).
- Estar inscrito como demandante de empleo en el Servicio Navarro de Empleo de Aoiz.
- Acreditar la capacidad de atención oral en euskera (nivel B2). Se podrá acreditar mediante titulación o mediante la superación de una prueba de nivel. Quienes estén interesados en realizar la prueba de conocimiento de euskera deberán indicarlo en su solicitud.
- Se deberá aportar la documentación que acredite el cumplimiento de los anteriores requisitos y curriculum para la valoración de los méritos, con los justificantes de los méritos alegados.

La selección se realizará el día 31 de marzo de 2015 a las 9:30 de la mañana en la Casa del Valle de Aezkoa - Aribe. Consistirá en una prueba técnica sobre conocimiento de la zona y una entrevista.

- La selección será única para todos los periodos

- Plazo de presentación de solicitudes: las solicitudes se presentarán en el modelo de instancia que se facilitará en la Secretaría de la Junta, hasta las 13 horas del próximo día 30 de marzo de 2015.

El resto de condiciones obra de manifiesto en las oficinas de la Junta de Aezkoa a disposición de los interesados, junto con el modelo de instancia a entregar.

- Gidatzeko baimena eta lanerako ibilgailu egokia edukitzea (baimenaren fotokopia konpulsatua aurkeztuko da).
- Lan eskatzaile modura egotea Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Agoizko bulegoan.
- Euskaraz ahoz atenditzeko gaitasuna edukitzea (B2). Kreditazio hori tituluaren bidez egiten da edo, bestela, mailaketa proba bat gaindituz. Euskara maila kreditatzeko proba egin nahi duenak eskarian adierazi beharko du.

Izangaiek aurreko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte, hala nola, meritutzat hartzeko, curriculum eta bestelako agiriak aurkeztu.

Hautaketa probak 2015eko martxoaren 31n egingen dira, 09:30ean, Aezkoako Etxean - Aribe. Eskualdeari buruzko ezagupenaren proba teknikoa egingen da eta elkarrizketa bat.

- Aukeraketa bakarra izanen da eta epealdi guztiatarako baliagarria izanen da.

- Eskariak aurkezteko epea: eskariak Batzarre Nagusiko Idazkaritzan egingen dira dauden instantzia ereduaren bidez. Aurkezteko epea: 2015eko martxoaren 30eko 13:00ak arte.



Aezkoako Batzarre Nagusiko Idazkaritzan daude, interesatutako guztien eskura, gainerako baldintzak eta aurkeztu beharreko instantzia eredu.

Arife, 18 de marzo de 2015.

Arife, 2015eko martxoaren 18a

EL PRESIDENTE - BATZARREBURUA

Félix Jamar Jáuregui



Lan munduan, langile euskaldunak zailtasunak ditu enpresa barruan bere lan-jarduna euskaraz garatzeko; bai hizkuntza paisaia zein idatzizko komunikazioari dagokionez (nominak, makinak, jarraibideak, sistema informatikoa, segurtasuneko kartel eta planoak, giza baliabideetako barne mezuak), hala nola ahozko komunikazioan ere (batzar nagusian, bileretan).






Bada, 2015ean bertako beharginek egindako eskaerari erantzunez, euskara plana abiatzeko lehen urratsak iragarri ditu Arrasateko POLMETASA lantegiak.



Ez dira bat edo bi Osakidetzarekin lotuta 2015ean Behatokia jaso diren kekek. Oraindik ere euskaraz aritzeko zailtasunak aurkitzen ditu harreran bertan erabiltzaileak osasun-zerbitzua jasotzera joaten denean.

“Errenteria-Iztietako osasun zentroko mostradorean, informazio gunean, arratsaldetan bai, baina goizetan ezin izaten da arreta euskaraz jaso, goizean dauden langile guztietatik bat bera ere ez da euskalduna”.






Kasu honetan Osakidetza onartu egin zuen hizkuntza-eskubideen urraketa ematen zela eta berehalako antolaketa neurriak hartu zituen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

 Osakidetza Donostialdea ESI OSI Donostialdea	Donostia Unibertsitate Ospitalea Hospital Universitario Donostia Begiristain pasealekua, z.g. 20014 Donostia-San Sebastián Tel.: 943 007072 / Faxa: 943 007320
Hizkuntz Eskubideen BEHATOKIA	
Garbiñe Petriati andrea	
Marcelo Zelaieta etorbidea 75	
U3 eraikina, 13.bulegoa	
31014 IRUÑEA	
Petriati andere estimatua,	
Lerro hauen bidez, erabiltzaile batek adierazitako ezadostasunari erantzuna eman nahi diot; izan ere, Iztietako osasun zentruko goizeko txandan ez zen errespetatu euskaraz artatua izateko duen eskubidea.	
Jakinarazi nahi dizut, erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzarekin batera unitate honen azterketa sakona egin dugula, eta une honetan zailtasunak ditugula erabiltzaileei behar bezalako zerbitzua emateko, txanda horretan euskararen ezagutza (2. Hizkuntza Eskakizuna) zuen langilea lan-lekuz aldatu baita; eta, une honetan, harrera horretan 1. Hizkuntza Eskakizuna duen langile bat bakarrik dagoelako zerbitzua ele bietan emateko.	
Egoera aurreko paragrafoan deskribatutakoa izanik, jakitun gara ez direla inola ere erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzen; beraz, berehalako antolaketa neurri bat hartu dugu, aipaturiko txandan erabiltzaileak artatzeko bi langile elebidun egongo direla ziurtatzeko. Eta era horretan, euskaraz artatuak izan nahi duten erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatu daitezten.	
Azkenik, eskatu nahi nizuke erabiltzaileari gure barkamenik zintzoenak helaraztea, sortu dugun egoera deserosoa dela eta; era berean, nire agurrik beroena jaso ezazu.	
Adeitsuki,	
Donostian, 2015eko otsailaren 27an	
 Izpta.: José Manuel Ladrón de Guevara Portugal	
	
 Osakidetza DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA	Donostialdea ESiko zuzendari gerentea
PAZIENTEAK ATENDITZEKO ZERBITZUA SERVICIO DE ATENCIÓN AL PACIENTE	
2015 MAR. 02	
Sarrera-zk. N.º de Entrada: 15/3417	
Irteera-zk. N.º de Salida:	
	

Osakidetzak neurriak hartzea eragin zuen beste erreklamazio bat Zabalganako herritarrek helarazitakoa izan zen. Honela zioen Behatokira helarazitako kexan

“Ez dugu Zabalganako osasun-zentroan aurre-erditze klaseak euskaraz jasotzeko aukerarik”.

Osakidetzak helarazitako erantzunean aitortzen du nahitaezkoa dela prestakuntza hau euskaraz ere eskaintzea. Araba Eskualdean emaginak diren langileetatik bik hizkuntza-eskakizuna kreditaturik baldin badute ere, euren iritziz, ez dute behar besteko trebetasunik ikastaroa euskaraz emateko. Horiek horrela, Gasteiz osorako talde bat eratuko zuela iragarri zuen Osakidetzak Behatokira helarazitako erantzunean.

 Osakidetza ARABAKO ESQUALDEA COMARCA ARABA	 Euskadi 2 0 0 6
NORK/DE: ARABAKO ESQUALDEKO PERTSONALEKO ZUZENDARITZA DIRECCIÓN DE PERSONALDE COMARCA ARABA	 Osakidetza ARABAKO ESQUALDEA COMARCA ARABA
NORI/A: HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA BEHATOKIA. OBSERVATORIO DE DERECHOS LINGÜÍSTICOS	27 FEB 2015  IRTEERA SALIDA
Zuzendari hori,	Sra. Directora,
Zabalgana osasun zentroko euskarazko erditzearen prestakuntza ikastaroen eskaintzari buruzko zure erreklamazioa dela eta, hauxe jakinarazten dizut:	En relación con la reclamación que nos plantea sobre la oferta de cursos de preparación al parto en euskera en el Centro de Salud de Zabalzana, paso a informar:
Arabako Eskualdeko emaginak diren langileetatik bik kreditatutako hizkuntza-eskakizuna dute. Biek, aipatutako ikastaroaren edukiei dagokien gaitasun tekniko eta irakaskuntzakoa izan arren, euren iritziz, ikastaroa euskaraz emateko behar besteko trebetasunak eta gaitasuna ez dituzte bermatzen.	Dentro de la plantilla de matronas de Comarca Araba, se encuentran actualmente dos con perfil lingüístico acreditado. Ambas, a pesar de tener dominio técnico y docente en la materia del curso, no se sienten con habilidades y dominio para impartir este curso en euskera.
Arabako Eskualdeak jasotako erreklamazioa aintzat hartuta, bi profesional hauek jarduera hau euskaraz ere ematen trebatzeko beharrezko ballabideak erabiliko ditu. Horiek horrela, helburu hori lortzeko ahalaginak ez ezik ikasteko denbora ere beharko du eginkizunak.	Comarca Araba, sensible a esta reclamación recibida, va a poner los medios necesarios para que estas dos profesionales puedan ir adquiriendo las capacidades necesarias para que puedan impartir esta actividad en euskera. Lógicamente, a pesar de los esfuerzos que sean necesarios para su consecución, es una tarea que necesitará un tiempo de aprendizaje.
Bestetik, gaurko egunean ez dugu antzeman, talde bat egin nahi bada, aurreko erditzearen prestakuntza euskaraz jaso nahi duten hainbat emakumezko haurdun dagoenik. Edonola ere, eta zuk bidalitako erreklamazioari jarraituz, prestakuntza hau euskaraz ere eskaintzea nahitaezkoa da. Horren ondorioz, hasieran Vitoria-Gasteiz osorako talde bat eratuko dugu, eta benetako beharrianak egiaztatu ondoren erantzuna eman ahal izango diegu, , betiere gure neurrien arabera posible bada.	Por otra parte, a fecha actual, no se ha detectado que haya suficientes embarazadas interesadas en recibir esta formación preparto en euskera como para poder organizar un grupo. No obstante a lo anterior, como bien dice su reclamación, será necesario ofertar esta formación en euskera, por lo que inicialmente organizaremos un grupo para toda Vitoria y veremos las necesidades surgidas y en consecuencia poder satisfacerlas, en la medida que nos sea posible.
Arabako Eskualdea bereziki sentsibilizatuta dago gure unitate guztietan zerbitzu elebiduna eskaintzearekin. Hori dela eta, gure ahalaginak horretara norabideratuko dira, zentroetara osasun arreta jasotzera datozen bezeroek zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizial batean zein bestean, hau da, gogokoen duten hizkuntzan, jasotzeko eskubidea baliatu ahal izateko.	Comarca Araba está especialmente sensibilizada con la oferta del bilingüismo en la atención de todas nuestras Unidades, es por lo que nuestros esfuerzos irán encaminados en conseguir que todos los clientes que acudan a recibir atención sanitaria a los Centros, puedan ejercer su derecho de asistencia en el idioma oficial del País Vasco que prefieran.
Jakina denez, bidea astiro-astiro egin beharko da, hau da, langile euskaldunen kopurua areagotuz eta lanari utsiz.	Lógicamente este camino habrá que recorrerlo de forma paulatina, a medida que el número de personal vaya creciendo pero sin cejar en el empeño.
C/ Adriano VI, núm. 20 - 7ª p. - Apartado de correos 3128 - 01080 VITORIA-GASTEIZ Tfno. 945 00 67 30 - Fax 945 00 67 57 - E-mail: direccion.comarcaaraba@osakidetza.net	 EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO OSASUN ETA KONTSUMU SALA DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

Hauek adibide batzuk besterik ez dira. Euskaraz bizitzea hautatu duten herritarrek izan dira aldaketa hauen motorra. Oztopoen aurrean irmotasunez jokatu eta, euskaraz bizitzea lortzeko bidean, aldaketak eragiteko akuilu lana egin dutenak.

Egunerokoan aurkitzen dituen oztopoen aurrean jarrera pertsonal aktiboa hartu eta inguruan eragiteko, neurriak hartzea ahalbidetzeko ahalmena erakusten dute. Agerian jartzen dute kontzienteki egindako praktikak emaitzak ematen dituela.

Orri hauetan aipatutako lorpen bakoitza euskaraz bizi nahi duen herritarren nahia errealitate bihurtzeko eta hobeki bizitzen lagunduko dion pauso bat da.

Horrela, herritarrok dugun indarrean sinestea arrakastarako bermea da. Euskaraz bizitzeko aukera eta eskubidea mugatuta dugun testuinguru honetan, gure inguruan aldaketa positiboak eragiteko ahalmenaz jabetu eta zailtasunen aurrean uzkurto gabe jokatzeko duten pertsonak eragina daukate bere inguruan.

Helbururik handiena urrats txikiz osatuta dagoelako, lorpen hauetako bakoitzak, gure inguruko aldaketarik txikienak eta xumeenak ere ondorioak ditu eta euskaraz bizitzeko xedera hurbiltzen gaitu. Keinurik txikienak garrantzia duelako eta ametsa errealitate bihurtzeko ekintza bat delako.

Euskarari gero eta leku gehiago egiten, aldaketa positiboak eragiten saiatzen dira. Euskal hiztun gisa aintzat hartzen ez dituztenean, aktiboki pentsatzen dute, ez diote eskubideari uko egiten. Erdarak lehenesten diren herrian euskaraz bizitzeko hautua egin duen herritarrek salatu egiten dute eta euren ahaleginak emaitzak ematen ditu.

Euskal hiztun gisa askatasunez eta berdintasunean bizitzeko aukera izatea ez delako kapritxoa, eskubidea baizik.

Bizipen hauek aukera bat jartzen digute aurrean: hizkuntza-eskubideen urraketari planto egiteko aukera zabaltzen dute lau haizetara. Indar betez hizkuntza-eskubideen urraketari ezetz esateko aukera.



EUSKARA
biz
nahiz

EUSKARA
biz
nahiz

EUSKARA
biz
nahiz

EUSKARA
biz
nahiz

EUSKARA
biz
nahiz

1. OSASUNGINTZA

Beste egun bat erizaintza eskolako fakultatean. 100 ikasle inguru irakasleari begira etorkizunean beren lanbidea izango den horren sekretuak ikasi nahian. Gaixoarekiko gertutasuna, giro lasaia eraiki beharra, konfiantzaren garrantzia, gertatzera doan horren azalpen xehea eskaini beharra. Aletzen doa irakaslea erizainen izana definitzen dituen portaerak. Sendatze prozesuak beharrezkoak ditu aurreko denak, beharrezkoa du konfiantza, beharrezkoa du gertutasuna. Sendabidearen parte garrantzitsua da gaixoa egoki artatzea.

Hori dena urratzen du gaixoaren hizkuntza erabiltzen ez duen profesionala. Gaixoak kontsultara berez daramatzen ardura, egonezina, beldurra... handitu egiten dira profesionalak ez bada gai konfiantza giroa sortzeko, ez bada gai gaixoaren hizkuntza erabiltzeko.

Gaixoaren sendabidea kontsultan hasten da. Kontsultan ez badago konfiantzarik, ez badago gardentasunik, ez bada pazientea egoki artatzen zailagoa da sendatzea. Zerbitzua pazientearen egoerari, izaerari eta inguruneari egokitu behar zaio. Bestela jokatzeko ez da etikoa eta ez du kode deontologikoa betetzen.

Halaxe adierazi zuen Kordobako Medikuen Elkargoak bertako ospitalean gaztelania behar beste ezagutzen ez zuten medikuak kontratatzen hasi zirenean. Elkargoaren iritziz “Espainiar estatuan medikuntzan jarduteko ezinbesteko da espainiera nahikotasunez ezagutzea. Medikuntzaren Kode Deontologikoak medikuak pazientearen hizkuntza ezagutzea agintzen du”.

“Pazientearen eta medikuaren arteko harremanean komunikazioa da elementurik funtsezkoena. Arina, naturala eta erraza izan behar du, bestela, nekez emango da egintza mediku osoa eta erabatekoa. Pazientearen hizkuntza ez ezagutzeak oztopo gaindiezinak ezartzen ditu erabiltzaile eta medikuaren arteko harremanean”.



Ilustre Colegio Oficial de Médicos
de la Provincia de Córdoba
El Presidente de la Comisión de Ética
y Deontología Médica

Elvira Collaco Chao

Colegio Oficial de Médicos
CORDOBA
25 JUL. 2007
ENTRADA N.º 52

Dr. D. FERNANDO LEÓN GARCÍA
Ilmo. Sr. Presidente
Ilustre Colegio Oficial de Médicos
Córdoba

Córdoba, 25 de Julio de 2007

En relación con la consulta
surgida por la contratación
los cuales se les asigna un
en los actos médicos, solo
comunique si este sistema
privacidad y la confidencialidad
duda sobre la confidencialidad
médicos", se procede a

I. ANTECEDENTES

1. En la consulta se...
oficial del Estado,
actuaciones colegia
2. La cuestión fun...
Constitutivo de la...
a la libre circula...
Comunidad.
3. En el Consejo...
adoptó el criteri...
tan sencilla co...
lema "Nuevos...
adquirió el co...
cumplir estos...
7/09/2005 po...
Directiva, en...
personas qu...
acceder a la...
que los nac

Domicilio: Ronda de los Te

Ilustre Colegio "ante la problemática
Andaluz de Salud a
Córdoba, 25 de Julio de 2007

emigrante de las condiciones de ejercicio no discriminatorias que pueda imponerle este último Estado miembro, siempre que tales condiciones estén justificadas objetivamente y sean proporcionadas".
Es evidente pues que los derechos que pueden tener los médicos de los distintos Estados Miembros a ejercer en España vendrán condicionados por las exigencias, que estando justificadas, imponga ésta como Estado receptor.

II. FUNDAMENTOS DE DERECHO Y DEONTOLÓGICOS

- 1.- **Directiva 2005/36/CE, de 07/09/2005**
Artículo 53. Conocimientos lingüísticos.
Los beneficiarios del reconocimiento de sus cualificaciones profesionales deberán poseer los conocimientos lingüísticos necesarios para el ejercicio de la profesión en el Estado Miembro de acogida.
- 2.- El Comité Permanente de los Médicos Europeos, en 1977, cuando ya era una realidad muy viva la libre circulación de médicos entre los países de la CEE de entonces, adoptó el **Acuerdo CP1977/55**, que, textual y lacónicamente, dice: *El conocimiento de la lengua del país de acogida constituye para el médico emigrante un deber deontológico con el fin de garantizar el ejercicio correcto de la medicina.*
- 3.- **Código de Ética y Deontología Médica de España.**
Capítulo III, *Relaciones del Médico con sus pacientes.*
- 4.- **Ley Básica reguladora de la Autonomía del paciente.**
Capítulos IV, *Del consentimiento Informado* y V, *De la Historia Clínica.*
- 5.- **Ley del Medicamento (Ley 29/2006)**
Art. 77 *De la Prescripción:*
...3: " *la receta médica será válida en todo el territorio nacional y se editará en lengua oficial del estado y en las cooficiales de las comunidades autónomas*".
...5: " *El facultativo incluirá las pertinentes advertencias para el farmacéutico y para el paciente*".

III. CONSIDERACIONES

1. La comunicación es el elemento esencial de la relación médico-paciente; no es posible un acto médico pleno si no hay una comunicación fluida entre médico y paciente, no sólo oral, sino gestual, de interpretación de silencios y de símbolos. Sería incluso deseable que el médico fuese capaz de comprender hasta los localismos del lugar en que ejerce. El desconocimiento de la lengua impone una barrera infranqueable al paciente y al médico para llevar a cabo una relación guiada por emociones, afectos e información, que en modo alguno puede ser suplida por un interprete.



Ilustre Colegio Oficial de Médicos
de la Provincia de Córdoba

El Presidente de la Comisión de Ética
y Deontología Médica

2. Del acto médico se derivan una serie de actuaciones administrativas que exigen el conocimiento de la lengua: redacción de la historia clínica, de certificados, de la prescripción, de documentos medico-legales, etc. Todos ellos son derechos para los pacientes y deberes para el médico.

3. Toda la legislación nacional obliga a proteger los derechos de los pacientes; a que tengan una asistencia eficaz, actualizada y segura, y adecuada a su nivel cultural, y capaz de confeccionar documentos que les permita mantener una comprensión.

4. La Directiva 2005/29/CE establece claramente, en su artículo 17, que el profesional que presta servicios profesionales que pretenden

5. Se entiende, por tanto, que el conocimiento de la lengua de sus pacientes es una lengua de comunicación

6. Un hecho distinto es que se haga valer de forma temporalmente

7. Un traductor profesional del acto médico podría asumir la función de mediatizado

8. Los daños sanitarios derivados del uso de un idioma, ya sea como negligencia o como consecuencia de una mala praxis, para que se pueda determinar sea cual fuere

IV.-CONCLUSION

Es un deber deontológico para ejercer la Medicina en España, tanto en el ámbito de la sanidad pública, como de la privada, poseer un conocimiento suficiente de la lengua española, que le permita ejercer con seguridad y garantías; y que permita al enfermo comunicar sus padecimientos y problemas con la certeza de que son bien comprendidos e interpretados y poder así recibir del médico los consejos y la información que el acto médico exige.

Fdo. Eliseo Collazo Chao

Euskaldunentzako medikua euskalduna ez izatea garrantzirik gabeko gaia eta onartu beharrekoa den bitartean, berebiziko garrantzia hartzen du beste hizkuntza batzuen hiztunentzako.

Horrela, beste edozein hizkuntzetako hiztunentzako arrazoizkoa eta bidezkoa dena, zergatik ez da hala euskaraz bizi nahi dutenentzako?

Izan ere, zoritxarrez, beste urte batez esan behar dugu zailtasunak izan dituztela herritarrak osasun-asistentzia euskaraz jasotzeko. Osasun arretan, paziente eta gaixoarekiko harreman eta prozedura guztietan aurkitu dituzte oztopoak erabiltzaile euskaldunak.

Medikuarengana joan eta kontsultategian edo ospitalean, ahoz eta idatziz, euskaraz arreta jasotzeko aukerarik ez izatea gertatu da maiz. Izan ere, egokitu zaien familia medikuarekin, pediatriarekin, erizainarekin, harrerako langilearekin eta abar euskaraz jarduteko arazoak izan dituzte herritarrak.

Eremu administratibo eta lurralde guztietan izan dira antzeko gertaerak. Goazen horien zenbaiten xehetasunak ezagutzera.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

Euskal Autonomia Erkidegoan 2013an onartu zen II. Euskara planean lehentasunezkoak dira harrera, pediatria, larrialdiak eta familia medikuak. Bada, zerbitzu horietan guztietan izan dituzte zailtasunak herritarrek euskaraz komunikatu ahal izateko.

“Deban bizi naiz. Anbulatorioko medikuak, familia-medikuak alegia, ez daki euskaraz eta gaztelaniaz aritu behar izaten dut berarekin. Urteak daramatza Deban. Baina ez da bakarra; beste bi mediku ere badaude egoera berean, horietako bat pediatria”

“Basurtoko ospitalean erditu nintzen”. Ez leihatilakoak, ez emaginak, ez hurrengo egunetako erizainek, ez pediatriak, ez handik hile batera atxiki ziguten psikologoak ez zekiten euskaraz. Zeladore batekin bakarrik komunikatu ahal izan ginen euskaraz”.

“Etxeko txikiekin, bai eta ni neu ere, osagilearengana joaten naizenean eskertuko nuke medikuarekin euskara erabili ahal izatea. Sarritan gertatu zaigu Zumaian, medikuari azalpenak ematean nahiz harenak jasotzerakoan komunikazio arazoak izatea.”

“Beasaingo anbulatorioko larrialdietara zuzendu nintzen nire 6 hilabeteko haurrarekin. Artatu gintuen medikuari zuzentzean, euskaraz ez zekiela eta ulertu nahi bagenuen erdaraz egitera behartu gintuen. Bigarren mediku bat ere izan zen kontsultan. Honek ere, gu euskaraz zuzendu arren erdaraz erantzun zigun.”

Kezka iturri eta egonezin handia sortzen segitzen dute pediatria euskaldunarekin jarduteko zailtasunak. Egoera ahulagoak dauden pazienteak izanik, esan genezake larritasun handiagoz bizi dutela herritarrek euren txikiek mediku euskaldunarekin aritzeko dituzten oztopoak. Hona zenbait adibide:

“Bi pediatria daude Bilboko alde zaharreko anbulatorioan. Gure semearen pediatriak ez daki euskaraz eta besteak kupoia beteta omen dauka. Hala ere, bigarrenarekin behin kontsulta bat izan genuen eta ez da euskaraz txukun komunikatzeko gai. Beraz bi pediatria daude eta bat ere ez da euskaraz komunikatzeko kapaza.”





“Antxoko pediatriarenera joan ginen maiatzaren 8an, eta, saiatu arren, ezin izan genuen euskaraz egin, pediatria erdaldun hutsa zelako”

“Gaur goizean, urtarrilak 28, Txagorritxuko larrialdi Pediatrikoetara joan eta erdaraz egin behar izan dut nahitaez, langile euskaldun bat bera ere ez zegoelako .”


“Osakidetzako Iztietako anbulatorioan, Errenterian, hiru pediatria daude baino horietatik bat bera ere ez da euskalduna.”

“Intxaurrendoko osasun-zentroan ez dago euskaraz dakien pediatriarik eta haur euskaldunak derrigor pediatria erdaldunarengana eraman behar dira.”


Osakidetzak kexa hauetarako Behatokia igorritako erantzunetan, egoera hauek konpontzeko oztopo nagusia pediatrik aurkitzeko zailtasunak aipatzen ditu; eta gaineratzen du zailtasunak areagotu egiten direla pediatria euskaldunak aurkitzeko orduan.

 Osakidetza	Donostialdea ESI OSI Donostialdea	Donostia Unibertsitate Ospitalea- Hospital Universitario Donostia Begiristain pasealekua, z.g. 20014 Donostia-San Sebastián Tel.: 943 007072 / Faxa: 943 007320
Hizkuntz Eskubideen BEHATOKIA Garbiñe Petriati andrea Marcelo Zelaieta etorbidea 75 U3 eraikina, 13.bulegoa <u>31014 IRUÑEA</u>		ER : 242-2015. dola. 94.
Petriati andrea:		
Erabiltzaile batek BEHATOKIaren bidez helarazi digun ezadostasunaren berri eman didate. Ezadostasuna Pasai Antxoko Osasun Zentroan Pediatriako fakultatiboak emandako arretari dagokio; izan ere, erakundeko profesional honek ez du erabiltzaileak lehenetsitako hizkuntza errespetatu.		
Gai honi buruz adierazi nahi dizut, egoeraren ezadostasuna ikusirik, lanpostu horren egoeraren berri eskatu dudala, eta, zoritxarrez, zuen idatzian erabiltzaileak azaldutakoa berretsi besterik ez dut egin.		
Une honetan lanpostu horren titularra aldi baterako baimena hartuta dago, eta lanpostu jakin (pediatrik) horien ordezkapena egitea oso konplexua izaten da, ez baitago ordezkapenak egiteko nahikoa pediatrik. Hori dela eta, nahiz eta jakin ez diogula erabiltzaileari aukeratutako hizkuntzan arreta ematea bermatzen, lanpostua betetzeko beharrak eraginda, hizkuntzari dagokion baldintza betetzen ez duen espezialista kontratatu behar izan dugu. Dena den, aurreikusten dugu egoera honek irailan izango duela konponketa; izan ere, espero dugu, lanpostuaren titularra hil horretan itzultzea lanera.		
Azkenik, agurtu aurretik, eskatu nahi nizuke erabiltzaileari, gure izenean, sortutako egoeratik barkamen eskaerarik zintzoena adieraztea, eta, aurrerantz, Donostialdea Erakunde Sanitarioari buruz duen iritzia hobetzeko dugun borondatea helaraztea.		
Adeitsuki,		
Donostian, 2015eko maiatzaren 26an		
		Osakidetza
José Manuel Ladrón de Guevara Portugal Donostialdea ESiko zuzendari-gerentea		DONOSTIALDEA ESI DONOSTIALDEA GERENTZIAKO ZUZENDARITZA DIRECCIÓN GERENCIA
<hr/>		
 Osakidetza DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA DONOSTIALDEA ESI DONOSTIALDEA PAZIENTEAREN ETA ERABILTZAILEAREN ARRETA ZERBITZUA SERVICIO DE ATENCIÓN AL PACIENTE Y USUARIO		
2015 MAI. 29 MAY. 29		
Sarrera-zk. N.º de entrada: <u>15/9102</u>		
Irteera-zk. N.º de salida:		
		

Orain dela 10 urte, 2006ko kexa beretsuari erantzunez arrazoi berberak aipatzen zituen Osakidetzak. Alegia, pediatria euskaldunen gabezia.

 Osakidetza
Servicio vasco de salud

GIPUZKOAKO EKIALDEKO ESKUALDEA
COMARCA GIPUZKOA-ESTE

 Osakidetza
Servicio vasco de salud
GIPUZKOAKO EKIALDEKO ESKUALDEA
COMARCA GIPUZKOA-ESTE

24 ENE. 2007

Jaun hori:


SARRERA ENTRADA IRTEERA SALIDA

Zk. 238.

880-2006 zenbakia duen espediente jaso dugu. Oiartzungo Osasun Zentroan, bi pediatria daude eta biak 2. Hizkuntza Eskakizunak egiaztatuta dute. Oiartzungo Osasun Zentroko Pediatria Unitatea, elebiduna delarik. Agian baliteke, Oiartzungo pediatren ordekapenetan euskaraz ez dakien pediatria bidaltzea (arazo handiak bai ditugu pediatriako eta medikuntza orokorreko ordezeko euskaldunak aurkitzeko).

Bidalitako kexan ez diguzue jartzen eguna, horregatik zer gertatu den jakitea saila egiten zaigu. Esan dugun bezala Oiartzungo Osasun Zentroko Pediatria Unitatea elebiduna da.

Donostia, 2007ko Urtarrilaren 24an


PERTSONALEKO ZUZENDARIA
M. NIEVES RODRÍGUEZ SEVILLANO
PERTSONALA
PERSONAL

Urteak pasa dira biribilgune berean bueltaka, ez da irtenbiderik aurkitzen eta pediatren inguruko arazoa larria da. Garbi dago osasun-langile euskaldunak behar direla. Osasungintzako profesionalen ibilbidea unibertsitatean hasten da eta honek berebiziko garrantzia du. Baina aspaldikoa da EHU-n Medikuntza euskaraz



ikasteko ezina eta 2015ean Medikuntza graduazio ekitaldian ikasketak euskaraz egiteko zailtasunak plazaratu zituzten, beste behin, ikasleek agintari guztien aurrean.

Osakidetzako langileen oporrak, baimenak edo bestelakoen ordezkapenak egiteko orduan ere arazoak gertatu dira hainbatetan euskarazko zerbitzuari dagokionez. Aldi baterako kontratazio horietan ez da euskararen gaitasuna kontuan hartzen eta, ondorioz, ez da euskarazko arreta bermatzen.

Zestoako osasun etxean bi mediku daude, biak euskaldunak. Urriko lehen astean mediku horietako baten ordezkapena egiteko mediku ez euskalduna jarri dute. Medikuarekin erdaraz hitz egin behar beraz, eta gure hizkuntza-eskubideak zapuzturik berriz ere.

Haur psikologiaren sailean ere neurriak hartu behar dira euskarazko artatze faltagatik horrelako egoera mingarriak saihesteko.

“Bidasoa ospitalean haur psikiatra bakarra dago eta ez daki euskaraz. Bertaratzen direnen hizkuntza-eskubideak urratzeaz gain, haurren osasuna eta segurtasuna arriskuan jartzen du egoera honek.”

“9 urteko alaba osasun mentaleko alorrera bideratu didate psikologia zerbitzua izan dezan. Azpeitia bezalako herri euskaldun batean eta familia giroan hazten ari den haur batek euskarazko zerbitzua jaso behar du berau eraginkorra izan dadin. Gaztelaniarekin oso mugatuta daude adin horretako herri honetako haur gehienak, gure artean. Osasun mentalean artatu zuen psikologo edo psikiatra erdalduna zen, euskaraz ezer ez zekiena. Horrela, gure haurraren hizkuntza-eskubideak ez ezik, zerbitzu eraginkorra jasotzeko aukerak izugarri mugatzen dira.”

Jar zaitezte haur eta guraso horren lekuan eta imajinatu, une batez, zer nolako inpotentzia eta nahigabea eragin zaien euskarazko atentzioaren faltan. Onartuko lukete erdaldunek, gaztelaniaz edo frantsesez gaitasunik ez duten profesionalak artatzea?

Erditzea prestatzeko ikastaroetan, emagin eta harreran edota informazio gunean eta kafetegian erdaraz egitera behartzeagatik ere izan dira kexak 2015ean.

“Bergarako ambulatiora deitu dut. Antzuolako familia medikuarentzako txanda hartzeko. Telefonoa hartu didanak espainolez hitz egin dit. Nik euskaraz esandakoa ulertzeko gai izango zela pentsatu dut. Baina ‘etzi’ eta ‘bederatzieta’ bezalako hitzak behin baino gehiagotan errepikatu arren, ez ditu ulertu. EZ zen inondik inora gai ez euskaraz hitz egiteko ezta ulertzeko ere. Berak espainolez hitz egin du ‘agur’ arte.”

Idatzizko harremani dagokienez, tratamendu orriak, gaixotasun bati buruzko jarraibideak eta errezetak gaztelania hutsean jasotzea izan dira erabiltzaileek gehien salatu dituzten hutsuneak.

Osakidetza **Hoja de Tratamiento Activo para el paciente** **ELUSKO JAURRIARITZA GOBIERNO VASCO**
 DEPARTAMENTO DE SALUD





Centro y Facultativo: DESCONOCIDO ADMINISTRADOR, GENERAL, SISTEMAS
 Paciente: A. Z. R. J. U. , G. J.
 TIS: Aportación:

MEDICAMENTO O PRODUCTO SANITARIO	Desayuno	Comida	Merienda	Cena	Acostarse	Revisión o Finalización
Tratamientos agudos de corta duración						
AMOXICILINA 500MG 30 COMPRIMIDOS 1 (COMPRIMIDO) cada 8 horas >	1	1			1	22-05-2015
Instrucciones: A la misma Hora. Con o sin alimento.						
DEXKETOPROFENO 25MG 20 CAPSULAS 1 (CAPSULA) en Desayuno, comida y cena	1	1		1		18-05-2015
Instrucciones: Tomar entero.						

Información al Paciente
 - En esta hoja constan todas las prescripciones activas e instrucciones introducidas en el sistema de prescripción de Osakidetza. Esta hoja no es una receta.
 - Conserve este documento de información durante el periodo de validez del tratamiento.
 - En cumplimiento del art. 5 de la Ley Orgánica 15/99, se informa de que estos datos serán incorporados al Fichero Receta Electrónica para la gestión y control de la prestación farmacéutica, cuyo órgano responsable es la Dirección de Farmacia. Puede ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante la Dirección de Farmacia del Departamento de Sanidad y Consumo (Avda Donostia - San Sebastián 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

13-05-2015 Página 1 de 1

Konponbide erraza izan dezaketen kasuetan ere hutsuneak ageri dira oraindik. Hori erakusten dute hizkuntza-paisaiari lotutako hainbat kekek. Txagorritxuko ospitalea nabarmentzen da horien artean



Testuinguru honetan osasun arreta euskaraz eskatzeko hainbat ekimen eta dinamika abiatu dira 2015ean: “kexa poteoa” Arrasaten (100dik gora eskaera), erabiltzaileak eta langileak batzea helburu duen Berdin elkarte, ordezkapenetan eta udako kontratazioetan mediku elebidunak kontratatzea galdegiteko dinamika...

Osakidetzan posible da herritarrekiko harremanetarako euskara lehenestea; hau da, lehenesteko hizkuntza erregistratzeko aukera dago. Hala nahi duten erabiltzaileek eskaera eginez gero, “e” ikusgarri bat agertzen da profesionalaren aplikazio informatikoetan. Pazienteak aukera hori dagoela ezagutu egin behar du eta administrazioak erantzun egin behar dio eskaera egin duen pazienteari.

**ARRASATEN GUK
EUSKARAZ,
OSPITALEAN ZERGATIK
EZ?**

MARTXOAK 13, BARIKUA
Osasun arreta euskaraz lortzeko
KEXA POTEOA

NON? Arrasateko JAI ZALE tabernan
ORDUA: Eguardiko 14:00etatik 19:30ak bitarte
(norberak nahi duenean!)

**euskaraz sendatu
nahi dut**

BERDIN
=

**euskaraz
bai sano!**

Osakidetzak oso berandu ekin zion erakundearen euskalduntze prozesuari, ondorioz, abian jarri beharreko neurriak ausartagoak beharko lukete izan.

Erabiltzaileek osasun asistentzia euskaraz jasotzeko dituzten trabak ez ezik, osasun-langileek zailtasunak izan dituzte lan-jarduna euskaraz garatzeko eta lan hizkuntza euskara izateko. Langileek erabiltzen dituzten lan tresnak euskaraz ez egotea eta hauei zuzendutako informazioa erdara hutsean bideratzeak zaildu egiten du beharginen lan-jarduna euskaraz burutzea.

“Hondarribiako osasun etxean lan egiten dut. Martxoaren 11n Bidasoa ESIko Zuzendari Gerenteak bidalitako esku-garbiketari buruzko inkesta jaso nuen, erdara hutsean. Euskaraz bidali ezean ez nuela erantzungo jakinarazi nuen posta elektronikoko bidez. Aldaketa batzuk egin eta aurreko lotura baliogabetu eta beste lotura bat bidali zuen martxoaren 12an. Honetan ere gaztelaniaz baino ez dago inkesta”.

De: SECRETARIA DIRECCION MEDICA HUA

Enviado: viernes, 06 de febrero de 2015 15:04:49 (UTC+01:00) Bruselas, Copenhague, Madrid, París

Para: GD-13-Todos txago; GD-10-329-Correo Santiago


Asunto: AGRADECIMIENTO

Estimad@s compañer@s,

Desde la Dirección del HUA queremos transmitir a todos los trabajadores del hospital, en sus sedes Santiago, Txagorrtixu y Consultas externas, nuestro agradecimiento por el enorme esfuerzo y trabajo que habéis realizado esta difícil semana, en la que la gripe y la nieve nos han exigido mucho. La respuesta organizativa y asistencial ha sido excelente.

Recibid un cordial saludo

DIRECCION DEL HUA



NAFARROAKO FORU ERKIDEGOA

Kezkatzeko modukoa da osasun zerbitzuetan Nafarroan bizi den egoera ere. Legeak eremu euskalduna deritzaneko herrietan, 1986ko Foru Legeak eskubide hori aitortzen badie ere, paziente euskaldunek ez daukate kasu askotan oinarrizko osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko aukerarik. Herritar asko daude, bai familia mediku baita pediatarrekin ere, gaztelaniaz hitz egitera behartuak.

“Gaur goizean Irurtzongo Osasun Etxera joan behar izan dut. Zaintzako medikuak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz eman behar izan dizkiot azalpenak. Tratamendua jarri dit eta pazientearentzako jarraibideen orria luzatu dit, hau ere espainiera hutsean. Eremu euskaldunean gaudela kontuan hartuta, ezin da gutxienez orri elebiduna prestatu?”.

Instrucciones al Paciente

Fecha: 23/05/2015

Paciente: TSI 00

CIPNA: CENTRO DE SALUD DE IRURTZUN

Centro

Entregado por:

Nº de Colegiado:

Tipo: TODAS

Medicación: TODAS

Ordenación: FEC-REGISTRO TRAT.

Horario: 6 7 9 10/11 12 13 16 17 18 21 24

Desayuno Comida Cena Al acostarse

BILASTINA 20 MG COMPRIMIDO 20 COMPRIMIDOS

Duración Tratamiento: Desde 23/05/2015 hasta 27/05/2015

Cada día: 1

1 COMPRIMIDOS ANTES DE ACOSTARSE Cada día VÍA ORAL

“Semearekin pediatarrenganatu joan ginen urteko errebisioa zuelakotz eta ezin izan genuen harekin euskaraz aritu, erdalduna baitzen”.

“Larunbatean, irailak 12, Oronoz-Mugairiko osasun-zentroan izan ginen 4 urteko alabarekin. Etxetik atera aitzinean, azaldu genion medikuak galdera batzuk egiten zizkiola. Berak orduan kezka adierazi zigun: ‘ez badaki euskaraz?’. Bada, espero genuenaren kontra, medikua ez zen euskalduna eta ezin izan zuen alabarekin komunikatu”.

Osasun asistentzia euskaraz jasotzeko oztupoek buruhauste ugari eragiten dizkiete Nafarroako herritar askori. Vasconcearen Legeak ezartzen duenez zonalde euskalduneko herritarrek eremu publikoan euskaraz aritzeko eskubide osoa dute. Halere, langileei ez zaie bertako hizkuntza jakitea eskatzen eta herritarrak gaztelaniara jotzera behartuta daude.

“Arbizuko familia medikuak oporrak hartu ditu eta hura ordezkatzeko jarri duten medikua ez da euskalduna. Kontsultan gaztelaniaz egin behar izan dut, gainontzeko herritar guztiek bezala. Aurreko urtetan ordezeko euskalduna bidali dute, beraz, atzerapausoa”.

Osasunbidearekiko harremana euskaraz izatea nahi duela adierazita duen herritarrek ere horretarako zailtasunak ez ezik, tratu zakarra eta bidegabea ere jaso du kasuren batean.

“Sutan nago. Osasunbideako langile batengandik espero ez nuen tratua jaso dut. Azaroak 3, 12:56. Telefono deia jaso dut 63030211629188 zenbakitik. Vianako Printzea zentrotik deitzen didala erran dit gizonaekoak. Elkarrizketa ongi hasi da, baina informazioa euskaraz emanen didanik badagoen galdetu diodanean gauzak okertzen hasi dira. Ondokoak entzun behar izan ditut: “Soy andaluz”; “No es mi obligación llamarte, te estoy haciendo un favor”; “No voy a ponerme a buscar a alguien para que te llame, para que deje de hacer lo que está haciendo”. Osasunbideari nirekiko harremana euskaraz izatea nahi dudala jakinarazia diodala erratean, baietz, zitazio-gutuna euskaraz dagoela erran dit eta “no entiendo tanta chorrada” gaineratu du. Erran diot, dagokionari errateko euskaraz informatua izan nahi dudala. Hitzordua noiz dudan jakin nahi badut, neronek deitu beharko dudala erranez bukatu du elkarrizketa. Nik deitu? Jaso dudan tratu zakar eta bidegabearen ostean ez dut horrelakorik egiteko inongo asmorik. Hitzordua noiz dudan jakinaraztea Osasunbideari dagokio eta tratu duina, nire hizkuntza-eskubideak errespetatuz, izatea nahi dut. (13:50ean bertze dei bat jaso dut 63030211622020tik. Oraingoan ongi, euskaraz, informatu naute. Ez nuen gutxiagorik espero. Berandu, ordea, tratu zakar eta bidegabea jasan behar izan baitut lehendabizi.)”.

Euskaraz aritzeko arazo hauen aurrean mediku euskalduna eskatzeko 2014an hainbat herritan jasotako ehunka eskaerek jarraipena izan dute 2015ean. Horrela ia 600 eskaera egin dira 2015en Etxarri Aranatzen profesional euskaldunak nahi dituztela adieraziz. gaztelaniara jotzera behartuta daude.



Jasotako kexa eta eskaerei erantzunez, Nafarroako Arartekoak berak adierazi du legeak eskubide hori aitortzen diela herritarrei. Horrela, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuari iradoki dio langileekin harremanak euskaraz izateko eta zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko neurri eraginkorrak hartu ditzala lehenbailehen.

Gogoratu behar dugu Osasunbidean lanean diharduten 10.000 inguru langileetatik %0,5ak baino ez daukela ezarrita hizkuntza-eskakizuna. Horiek horrela, Nafarroan osasun-asistentzia eta harrera euskaraz jasotzea zori kontua da gaur egun.

Eremu mistoa deiturikoan egoera are kezkarriagoa da, lanpostu batzuetan soilik baloratzen baita merezimendutzat.

“Abuztuaren 20an 11:00ak aldera Barañain I osasun-etxera deitu dut, 948198330 zenbakira. Telefonoa hartu didan langileak ez didanez euskaraz egin, euskaraz dakien langilerik baden galdetu diot. Une horretan ezetz erantzun dit. Orduan, ea noiz egonen den euskaraz dakien langilea galdetu diot. Haren erantzuna: “no tenemos la obligación de saberlo (euskara)”. Nahi banuen “gora” deitzeko eta erreklamazioa jartzeko esan dit. Barañain I osasun-etxean 3-5 administrari egoten dira harreran, baina nik ezin izan dut euskaraz hitz egin eta ez dut zerbitzua euskaraz jaso. Langileek ez dute euskara jakiteko betebeharririk... eta nik euskaraz hitz egiteko dudak eskubidea, zer?”

Idatzizko harremanetan, eta nafar herritar guztientzako diren kanpaina eta komunikazio euskarrietan ere, erabiltzaile euskaldunak ez dira kontuan hartzen.

“Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institututik koloneko minbiziari aurre hartzeko kanpainaren berri ematen duen informazioa bidali didate postaz. Bertan heldu diren euskarri guztiak (aurkezpen gutuna, informazio orria, parte hartzeko txartela eta txartela bidaltzeko gutunazala) gaztelaniaz besterik ez daude?”

ELIGE90
PROGRAMA DE DETECCIÓN
PRECOZ DE
CÁNCER DE COLÓN

TARJETA DE PARTICIPACIÓN



Por favor, indíquenos un teléfono de contacto:

Prevención Cáncer de Colon

IPAR EUSKAL HERRIA

Ipar Euskal Herrian euskal hiztunen eskubide linguistikoak ez daude egoera hobean. Euskarri idatzietan zein ahozkoetan, seinaletan eta abar euskarak ez du ia presentziarik eta pazientearekiko harreman-hizkuntza frantsesa nagusitzen da. Are gehiago, frantsesa ez den beste hizkuntzak kontuan hartzen direnean, lehenago egiten zaio lekua gaztelaniari berezko hizkuntzari baino.

“Helios zentrora deitu eta itxarote mezua frantsesez eta gazteleraz entzuten dugu. Euskaraz, aldiz, hitzik ez”

“Oftalmologo kabinetera deitu dut hitzordua hartzeko. Erantzungailuan frantsesez tramite batzuk azaltzen dituzte (...). Azalpen luze horiek bukatzerakoan berriz, gazteleraz ere errepikatzen dute gauza bera! Ez ote dakite euskara ere badela lurralde honetan? Jadanik ez dut sobera ongi ulertzen gazteleraren presentziaren interesa Baionan eta re gutxiago euskararen bazterketa, jakinez Euskal herriko berezko hizkuntza dela”.

ONDORIOAK

Bizipen hauek guztiek agerian jartzen dute euskal hiztunek kalitatezko osasun asistentzia jasotzeko dauden zailtasunak.

Osasun arloko adituen esanetan pazientea, pertsona, da osasun-zerbitzuaren muina. Osasunaren eremuan ezinbestekoa da medikuaren eta pazientearen arteko komunikazioa eta harremana egokia izatea, konfiantza maila handikoa eta horretarako berebiziko garrantzia du erabiltzen den hizkuntzak.

Kalitatezko osasun arreta zuzenki dago lotuta arreta hori pazientearen hizkuntzan emateko gaitasunarekin. Erabiltzailearen hizkuntzan burutzen dena, pazientearen hizkuntzan eskaintzen dena da kalitatezko osasun arreta. Arreta eta hizkuntza banaezinak dira, kalitatezko osasun asistentziaren osagaia da hizkuntza, betebeharreko gaitasun bat. Horiek horrela, ahoz zein idatziz, asko dago hobetzeko osasun asistentzia euskaraz nahi duen hiztunak zerbitzua ganoraz jasotzeko.

Hizkuntza gutxitu orok behar du lege babesa eta legez babestu behar da herritarrak osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea, noski. Baina, herritarrek Behatokira helarazitako kexek erakusten dutenez, osasun arreta euskaraz jasotzeko eskubidea legez aitorturik izatea ez da nahikoa erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak ziurtatzeko. Horretarako ezinbestekoa eta lehentasunezkoa da euskaraz komunikatzeko gaitasuna izango duten profesionalak egotea, erabiltzaileen beharrei erantzungo dien prozesuak planifikatzea eta plangintza hori garatzeko behar besteko baliabideak eta bitartekoak egokitzea.

ELSKARAZ
bizizi
nahi dut



HEB

2.HERRIZAINGOA SEGURTASUNA

EUSKARAZ SEGURTASUNEZ?

Azaroak 1, Omiasaindu edo Santu Guztien Eguna. Herritarra aspaldiko lagunekin afaldu eta etxerantz doa, ez oso santu nonbait. Iruñeko udaltzainek auto bat ikusi dute goizaldeko ordu batean Nafarroa Behereko etorbide bazterrean, Iruñera bidean, maleteroa zabalik, arriskuaz ohartarazteko triangelua jarrita eta gidaria kanpoan dela. Hurbildu eta laguntzarik behar duen galdetu diote. Gurpila zulatu zaiola eta ezin duela aldatu erantzun die.

Udaltzainei gidaria edanda dagoela iruditu zaie. Alkoholik edan duen galdetu diote eta baietz esan die, lagunekin afaldu duela baina alkoholemia proba eginez gero ez duela uste positibo emango lukeenik.

Lehen alkoholemia proba egitera gonbidatu dute (etilometro digitalarekin) eta positibo emanez gero Udaltzainen egoitzara eramago dutela jakinarazi diote, kontrasterako probak egitera (odol, gernu eta gisako analisiak). Herritarrak ez du inolako eragozpenik jarri eta proba egin eta tasa positiboa eman duenez Udaltzaingoaren egoitzara eraman dute.



Udaltzainek bigarren probaren nondik norakoak eta proba ez egiteak izan ditzakeen ondorioak azaldu dizkiote, gaztelaniaz. Herritarrak proba egiteko arazorik ez duela baina informazioa euskaraz nahi duela jakinarazi du. Udaltzainek, kasu handirik egin gabe “no sabemos” erantzun diote, baina herritarrak euskaraz aritzeko eskubidea duela azaldu die eta handik aurrera euskaraz baino ez duela egingo. Hala egin ere.

Herritarrak euskaraz baizik ez zuela erantzuten ikusita udaltzainak asaldatzen hasi dira eta ezinegona eta tentsioa handitzen joan dira. Mehatxu ere egin diote *“ya sabemos que hablas castellano”*, *“como sigas así te vas a buscar la ruina”* ...

Herritarra ez dago amore emateko eta interprete bat bilatuko dutela esan diote. Nonbait zerbitzuan dauden udaltzainen artean ez dago euskaraz dakien inor. Ordu eta erdi pasa eta ez da interpretearen arrastorik. Azkenean, izkribu bat ekarri diote sinatzeko “Acta de información de derechos al investigado no detenido”. Izkribua erdaraz dago, ordea, eta euskaraz ekartzeko eskatu du. Denbora tarte bat igarota “Eskubideen Lege informazio-ikerketak ez da gelditu” dioen agiria ekarri diote.



ESKUBIDEEN LEGEA INFORMAZIO-IKERKETA EZ DA GELDITU

Iruñean, Udaltzaingoa. Iruñeko bulegoetan, 2:45 pm izateaz eguna azaroaren 1a, 2015 hasten D. San Martin Améscoa Baja urtean jaio zen, Nafarroako probintzian egun informatzeko azaroa, 19, eta semea, Monasterio de Fitero herriko of Pamplona (Nafarroa), NAN egileak eratu no. que ha izana salatu zuten bere delitua inplikazioa ustezko: ukatzea izango proiektatuko legez ezarritako to Art.383 CP eta alkohola artearen eraginpean gidatzen. CP 379,2

Artikuluak 771,2 eta Prozedura Kriminalaren Legearen 520,2 jarraiki, eta konstituzio eskubideak, informazioa gozatzeko denbora honetatik dute, osatua:

- Eskuin isilik geratzen da eta ez deklaratu nahi baduzu behintzat; ez duen edo batzuk dizkio galderak erantzuteko, edo esan epailearen aurrean bakarrik dagoela deklaratzeko.
- - Oraintxe ez den berak aurka deklaratu edo erruduntasuna aitortu
- Derecho abokatu bat izendatuko da, eta lagundu zuen moduan atzerapenik gabe ikertzen ez badu abokatu bat izendatuko, bulegoko abokatu bat izendatzea eskatu ahal izango ditu.
- Interprete baten laguntza free, norik ez du ulertzen edo hitz egiten gaztelaraz edo galderaren ekintzaren hizkuntza ofiziala, edo gor edo entzumena urritasuna duten pertsonen eta zailtasunak dituzten beste pertsona atzeritarra kasuan izan eskuinera hizkuntza.

Eskubideei dagokienez adierazita, ikertu hopes:

- Testigantza epailearen aurrean.
- Testigantza Polizia ere.
- Izango Aholkularia D. Laguntza jaso.
- Beharreko guardiako abokatu baten laguntza.
- Izango interprete-baten laguntzarekin.

Eta garbatu zituen arduraz hau zabaltzen da, ikerketa sinatzen, irakurri zuen bere burua, elkarrekin monitore taldearekin ondoren.

Handik egun batzuetara epaitegira agertzeko zitazioa jaso du herritarrak. Bi delitu leporatzen dizkiote: edari alkoholdunen eraginpean gidatzea batetik eta desobedientzia edo alkoholemia proba egiteari uko egitea bestetik. Lehen delitua egin izana onartzen du, ez ordea bigarrena. Desobedientzia delituagatik lau hilabeteko espetxe zigorra jaso du. Epaia irmoa denez ezin du haren aurkako helegiterik aurkeztu, baina euskaraz jarduteko eskubidea defendatzeagatik zigortu dutela sentitzen du.

Mozkorrentzat propio prestatutako bertsioa dirudi. Senean dagoenak gogoz saiatuta ere nekez ulertuko duena. Herritarrak adarra jotzen ari diren galdetu die udaltzainei eta euskara duinean idatzitako agiria eskatu du, agirian eskuz idatzita ikus daitekeen moduan.

Udaltzainek alkoholemia proba egiteari uko egiten diola interpretatu dute eta epailearengana bidaliko dutela jakinarazi. Epaiketa azkarrerako zitazio zedula eskuratu diote herritarrari, hura ere gaztelania hutsean. Euskaraz eskatu duen arren ez diote eman.

Handik egun batzuetara epaitegira agertzeko zitazioa jaso du herritarrak. Bi delitu leporatzen dizkiote: edari alkoholdunen eraginpean gidatzea batetik eta desobedientzia edo alkoholemia proba egiteari uko egitea bestetik. Lehen delitua egin izana onartzen du, ez ordea bigarrena. Desobedientzia delituagatik lau hilabeteko espetxe zigorra jaso du. Epaia irmoa denez ezin du haren aurkako helegiterik aurkeztu, baina euskaraz jarduteko eskubidea defendatzeagatik zigortu dutela sentitzen du.

FALLO

Que debo condenar y condeno al acusado .
como autor responsable de un delito de conducción de vehículo de motor o ciclomotor bajo la influencia de las bebidas alcohólicas del Art. 379.2 del Código Penal y un delito de negativa a realizar las pruebas de detección alcohólica del Art. 383 del Código Penal, no concurriendo circunstancias modificativas de la responsabilidad criminal, imponiéndole por el delito del Art. 379.2 del Código Penal la pena de **CUATRO MESES multa**, con una cuota diaria de **OCHO EUROS**, o la responsabilidad personal subsidiaria correspondiente, en caso de impago, y la **privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores por DOSCIENTOS CUARENTA Y CUATRO DIAS**, y al abono de las costas; y imponiéndole por el Delito del Art. 383 del Código Penal la pena de **CUATRO MESES PRISION**, accesorias legales, **privación del derecho a conducir vehículos a motor y ciclomotores por DOSCIENTOS CUARENTA Y CUATRO DIAS**, y al abono de las costas.

Se suspende por un periodo de 2 años y en las condiciones legales establecidas la pena de de CUATRO MESES de prisión impuesta quedando subsistentes el resto de pronunciamientos de la sentencia.

18/1986 Foru Legeak, Vasuencearenak, 17. Artikuluan dio eremu mistoan herritar guztiek euskara nahiz gaztelania erabiltzeko eskubidea dutela Administrazio Publikoeci zuzentzeko.

Iruñeko Udalaren esparruan euskararen erabilpena eta sustapena arautzen dituen ordenantzak 5. eta 7. artikuluetan dio herritarrek Iruñeko Udalari gaztelaniaz nahiz euskaraz egiteko eskubidea dutela, eta ahoz udalari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei hizkuntza berean eginen zaiela harrera. Udalak neurri egokiak hartuko dituela gaineratzen du helburu hori erdiesteko.

Herritarren eskubideak babestu eta legea betearazteko dauden udaltzainek baina, desobedientzia delitua leporatzen diote legez aitortua duen eskubidea baliatzen saiatu den herritarrari eta legea betearazteko dagoen epaileak, Udaltzaingoari arrazoi eman eta herritarra zigortu du gaztelaniaz jakinda euskaraz aritzea delitu dela aditzera emanaz.

Gauzak horrela, zer segurtasun juridiko du euskaldunak autoritatearen aurrean euskaraz jardun ahal izateko? Nork zainduko ditu herritarren hizkuntza-eskubideak eta nork zigortuko legeak urratuz eskubide horiek errespetatzen ez dituztenak?

Goian azaldu dugun kasua, kasu bakana dela pentsa lezake batek baino gehiagok. Gaitzerdi hala balitz. Hizkuntz Eskubideen Behatokian 2015 urtean zehar jasotako testigantzek, horrelako egoerak uste baino ohikoagoak direla erakusten baitute.

Hona adibide batzuk:

“Apirilak 24, arratsaldeko 19:30. Pasai Donibane sarreran Ertzaintzaren kotxe batek gelditu gintuen ni eta nire laguna kotxean gindoazela. Gerrikorik gabe gindoazelako salatu egingo gintuztela esan ziguten. DENA ERDARA HUTSEAN.

Guk hau ikusirik, mesedez, euskaraz egiteko esan genien. Gure harridurarako ez zeudela euskaraz egitera behartuta esan ondoren erdaraz jarraitu zuten.

Guk gure haserrea erakutsi genien eta eztabaidan hasi ginen beraiekin. Halako batean ertzainetako batek euskaraz ez zidala egingo 'porque no me da la gana' erantzun zidan.

Ia ordu bete pasata isuna ematera gerturatu ziren ertzainak. Isuna erdara hutsean idatzia zegoela ikusirik, ez genuela hartuko esan genien. Orduan, euskaraz hitz egiten zuen ertzain bati hots egingo ziotela eta pixka bat itxaroteko eskatu ziguten.

Momentu bat beranduago, beste ertzain kotxe bat azaldu zen eta bertatik euskaraz ulertzeko moduan hitz egiten zuen ertzaina jaitsi eta guregana zuzendu zen. Gure harridurarako, erdaraz idatzitako isunean jartzen zuena azaldu besterik ez zigun egin. Guk mesedez isuna euskaraz idazteko eskatu genion, ezezko borobila jasoaz. Hau gutxi ez, eta plaka zenbakia eskatuta 'nik neria, ez dizut emango!' esanda kotxean sartu eta alde egin zuen.

Isunak bertan geratu ziren, lurrean botata eta ertzain etxera abiatu ginen kexa jartzera.

Lehenengo Errenteriara.

'Hola, buenas tardes'... harrera polita!

Euskaraz hasi ginen azaltzen gertatutakoa eta... 'en castellano por favor'. Guk hau ikusirik, euskaraz hitz egiten zuen ertzain batekin hitz egin nahi genuela esan genion. Pixka bat itxaron ondoren, hasi ginen ertzainari gertatutakoa euskaraz azaltzen. Honek, trafikoko isuna zela eta berak ezin zuela ezer egin eta Oiartzunera joateko esan zigun.

Han abiatu ginen Oiartzunera. Bertara iritsita, hasi ginen bertako ertzainari zer gertatu zen kontatzen eta honek isuna euskaraz jasotzea gure eskubidea zela esan ondoren ondokoa ere esan zigun:

'Agian isuna jarri dizueten agenteek ez zekiten euskaraz eta horregatik egin dute isuna erdaraz'.

'Euskara ez da arma bat, eskubide bat da, eta ez erabili gure aurka' hau ere entzun genuen...

Azkenean, hiru orduren ondoren lortu genuen isuna euskaraz egitea.

Zergatik galdu behar ditut nire bizitzako hiru ordu ertzaintzaren isun bat euskaraz jasotzeko?

Zergatik jasan behar ditut horrelako umiliazioak nire eskubideak bermatu behar dituztenen aldetik?''.

“Pasaiako Udaltzaingoak isuna jarri zidan baimendua ez zegoen tokian aparkatzeagatik. Isuna gaztelania hutsean idatzita zegoen. Ordaintzera joan nintzenean isuna euskaraz nahi nuela adierazi nuen udaletxean eta udaltzain bat etorri zen nirekin hitz egitera. Euskaraz aritu ginen eta isuna euskaraz idatzita nahi nuela jakinarazi nion. Ez zuela horrelakorik egingo erantzun zidan; isuna ordaintzeko eta nahi banuen salaketa orria idazteko. Halaxe egin behar izan nuen, epe barruan ordainduz gero egiten duten beherapena ez galtzarren. Hala ere, Pasaiako Udalarari jakinarazi nahi diot euskaraz zigor nazan nahi dudala; horretarako eskubidea dudala”.

“Ertzaintzak alkoholemia kontrola jarri zuen abenduaren 28an Oiartzungo Lanbarren industrialdean. ‘Buenas caballero’rekin agurtu ondoren, nik euskaraz zekien norbaitekin hitz egin nahi nuela adierazi nion. Euskaraz bazekienez, euskaraz hitz egin genuen. Furgonetara alkoholemia egitera joan eta gauza bera gertatu zitzaidan, honela erantzun zidan ertzainak: ‘Nik badakit euskaraz, pero de aquí en adelante te voy a hablar en castellano y tu me entiendes, ¿vale?’”.

Legeak herritarrei aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak bermatzeko protokoloek agintzen dute herritarrekiko ahozko harremanetan euskara edo gaztelania erabiliko dela herritarrak lehenetsitako hizkuntzaren arabera. Eta, edozein kasutan, herritarren batek euskalduna ez den langile bati euskaraz egiten badio, langileak errespetu osoz ahalbidetu beharko diola lankide euskaldun batek lehenbailehen artatzea.

Goian aipatu ditugun adibideetan, ordea, ez da herritarrek lehenetsitako hizkuntza errespetatzeko ahaleginik antzematen. Aitzitik, euskaraz jardun nahi duten herritarrenganako nagusikeria nabarmentzen da, herritarrak agente erdaldun elebkarrek ezagutzen duten hizkuntza bakarrera makurrarazi nahia.

Zenbat oinarririk gabeko susmo, gaizki-ulertu, eztabaida eta berandutze ez lirateke ekidingo segurtasuneko agenteek euskaraz balekitez? Haiek erabateko gaitasuna izango lukete edozein izapide euskaraz egiteko, eta hizkuntza-eskubideak bermatuta herritarrek.

Horretarako ordea, hizkuntza-politika proaktiboak behar dira bai lanpostua eskuratzeko baldintzak ezartzerakoan, euskaraz ez dakiten agenteak euskalduntzeko plangintzetan, euskaraz lan egitea ahalbidetzeko bitartekoetan, nahiz agenteen hizkuntza jardunaren gaineko protokoloetan.

Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Sailaren iragarkietan sarri ikusi eta entzuten dugu “Zu laguntzeko gaude” leloa. Euskaldunei laguntzeko euskaraz jakitea ezinbestekoa del barneratu behar du Ertzaintzak eta agente elebidunez osatu kidegoa.

“Joan den astean lapurrak sartu zitzaizkidan dendan eta Erandioko komisaldegira deitu nuen ertzainak bidal zitzaizten. Euskaraz azaldu nuen zertarako deitzen nuen, baina deia hartu zuen pertsonak ez zekien euskaraz eta gaztelaniaz eman behar izan nizkion azalpenak. Patruilako bi ertzain etorri ziren dendara, eta ez batak, ez besteak, ez zekiten euskaraz.

Ondoren ertzain etxera joan behar izan nuen salaketa egitera. Atarian zegoen zinpeko zaindaria ez zen euskalduna, eta barruan, salaketa idaztera etorri zen ertzainak ere ez zekien euskaraz. Salaketa euskaraz egin nahi nuela jakinarazi nion eta beste ertzain bat agertu zen, euskalduna, baina normalean salaketak egiten aritzen ez dena. Berak azaldutakoaren arabera, behin baino gehiagotan eskatu du euskara teknikoko ikastaroak egitea euskaraz lan egiten trebatzeko, baina momentuz ez du horretarako aukerarik izan”.

Giza baliabideetan ez ezik, bitarteko materialetan ere gabeziak ditu Ertzaintzak herritarrei zerbitzua euskaraz bermatzeko. Horrela, eskualderik euskaldunenetan ere (Lekeitio, Berrobi, Ibarra ...) espainiera hutsean aurkituko ditugu errepide-kontrolak edo arriskuak iragartzeko paneletako testuak




Ibarra eta Berrobiko kasuetan ertzain etxean testua osatzeko eskura dituzten letra kopuruaren eskasia izan zen nonbait oharra gaztelaniaz bakarrik idazteko arrazoia.

Programa informatikoak salaketak euskaraz jasotzeko garatu gabe egoteak ere eragotzi egiten du herritarrek euskaraz egin dituzten salaketen kopia euskaraz eskuratzea.

“Donostiako Udaltzaingoaren egoitzan (Easo kalea) izan naiz gaur salaketa bat jartzen. Euskaraz hasi naiz mostradorean, eta euskaraz erantzun didate lehen datuak eta hartzerakoan. Salaketa bat egin nahi nuela, eta pixka bat itxaron behar izan dut, izapideak egiteko ajentea etorri arte. Harekin ere, euskaraz jardun dut, momentu guztietan, baina salaketa egiterakoan ere. Baina nire harridurarako salaketa sinatzeko orduan, gaztelaniaz idatzita zegoela ikusi dut. Agenteari galdetuta jakin izan dut, ordenagailuaren programa gaztelaniazko zela eta, salaketa gure hizkuntzan egin nahi izanez gero, eskuz bete behar dela inprimakia! Laburbilduz, badela salaketak eta bestelakoak gaztelaniaz egiteko programa bertan, baina euskarazkorik ez, nahiz eta niri kasu egin didaten bi agenteek euskaraz txukun jardun. Gabezia potoloa ezta? Noizko programaren euskarazko bertsioa?”.

Ohikoenak diren jardueretan ere ez da bermatzen euskararen presentzia: inprimakiak, jakinarazpenak, sms mezuak, sare sozialetan zabaltzen diren txioak, jendeari zuzendutako ohar idatziak...

 Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala		Boletín de denuncia	
LUGAR DE LA INFRACCIÓN (CALLE Y NÚMERO)		DÍA, MES Y AÑO	HORA
HECHO DENUNCIADO		NORMA INFRINGIDA Y CALIFICACIÓN: LEY SOBRE TRÁFICO, ART. REGLAMENTO CIRCULACIÓN, ART. O.M.T. O.R.Z.E.L. OTROS LEVE <input type="checkbox"/> GRAVE <input type="checkbox"/> MUY GRAVE <input type="checkbox"/>	
MATRÍCULA	MARCA	MODELO	COLOR
APELLIDOS Y NOMBRE DE LA PERSONA DENUNCIADA		IMPORTE MULTA	CON DTO.
LOCALIDAD Y PROVINCIA DE RESIDENCIA		D.N.I	
CALLE, NUMERO Y PISO		MOTIVO POR EL CUAL LA DENUNCIA NO SE NOTIFICA EN EL ACTO	
PUNTOS A DETRAER	IDENTIDAD Y FIRMA DENUNCIANTE/S:	FIRMA Y N.º DE AGENTE NOTIFICADOR	FIRMA DEL DENUNCIADO/A Y FECHA DE ENTREGA DE LA NOTIFICACIÓN

(Instrucciones al denunciante)





FECHA: 12 de enero de 2016
DEPARTAMENTO: Medio Ambiente y Salud Pública
ASUNTO: Notificación de Providencia

AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ / VITORIA GASTEIZ UDALA
REGISTRO GENERAL DE SALIDA / IRTEERA ERREGISTRO NAGUSIA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y SALUD PÚBLICA
INGURUMEN ETA OSASUN PUBLIKO SAILA

12/01/2016

Nº DOCUMENTO: 536843 ZK
Nº ORDEN: 400337 ZK

Por el Concejal-Delegado del Departamento de Medio Ambiente y Salud Pública ha sido dictado en el día de la fecha el siguiente Decreto:

Por el servicio de Policía Local se informó que con fecha 10 de octubre de 2015 a las 12 horas, se encontraba orinando en la vía pública en PLAZUELA DE ALDABE.

Dichos hechos pudieran ser constitutivos de una infracción LEVE prevista en artículo 147.1 j) de la ordenanza municipal de limpieza, recogida y transporte de residuos de la que sería responsable [redacted], y por la que podría ser sancionado por el Concejal-Delegado del Departamento de Medio Ambiente y Salud Pública con apercibimiento o multa de 90 hasta 750 euros de conformidad con el cuadro de sanciones de la citada ordenanza.

Considerando lo anterior, el Concejal-Delegado del Departamento de Medio Ambiente y Salud Pública, en uso de las atribuciones previstas en la Ley 57/2003, de medidas de modernización del Gobierno Local, y de conformidad con la delegación otorgada por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local de 19 de junio de 2015, resuelve:

Primero.- Incoar expediente sancionador a [redacted] por la comisión de una infracción LEVE del artículo 147.1 j) de la ordenanza municipal de limpieza, recogida y transporte de residuos.

Segundo.- De acuerdo con el sistema objetivo establecido por Decreto del Alcalde de 22 de marzo de 2012, ha sido nombrado Instructor del expediente Javier Larrieta Cendegui, y del que podrá promoverse recusación por los motivos previstos en el artículo 28 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, mediante escrito en el que se exprese la causa en que se funda la recusación.

De todo lo cual se le informa, a fin de que si lo considera oportuno, en el plazo de quince días formule alegaciones y presente las pruebas y justificaciones que estime convenientes a su derecho, plazo durante el cual podrá examinar el expediente si lo desea.

Se advierte que en caso de no presentar alegaciones sobre el contenido de la iniciación del procedimiento en el plazo previsto para efectuarlas, la iniciación podrá ser considerada propuesta de resolución.

Maiz euskara modu testimonialean soilik erabiltzen da:

“Sestaoko Udaltzaingoak bidalitako mezuan euskara “folklore” hutsa. Hona hemen jasotakoa: “ALERTA: La Policía Local les informa de que se ha detectado la introducción de billetes falsos de 50€ en bares y comercios de la localidad. KONTUZ EN JAIK.” Kontuz en jaiak! Hau marka!”

ONDORIOAK

Segurtasuneko kidegoen jardueran gaztelania eta frantsesa dira lehentasunezko hizkuntzak eta berme juridiko osoa eskaintzen duten bakarrak.

Herritarrek ez dute bermatua zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea, dela agenteek euskaraz ez dakitelako, dela bitarteko material egokiak ez dituztelako, eta 2015 urtean errepikatu egin dira herritarrek aurreko urteetan salatu dituzten gertaerak: euskaraz eginiko salaketen kopiak gaztelaniaz idaztea agenteek behar besteko gaitasunik ez dutelako, isun inprimakiak gaztelaniaz, herritarrei zuzendutako abisu eta oharrak gaztelaniaz baizik ez, sare sozialetako txioak gaztelaniaz, zuzeneko arreta euskaraz jasotzeko aukerarik ez izatea, tratu zakarrak eta mehatxuak...

Segurtasun kidegoetako agente guztiak elebidun izan arte euskaldunek ezin izango dugu poliziekin segurtasun osoz euskaraz jardun. Desobedientzia delitua leporatzeko arriskuan egongo gara beti.

Europako Ministroen Kontseiluak eta Adituen Batzordeak behin eta berriz adierazi dute euskaraz dakiten agenteen kopurua txikia izateak arazoa sortzen duela herritarrek zerbitzua euskaraz jaso ahal izateko, eta azken ebaluazio-aldian ere, segurtasun kidegoetako langile euskaldunen kopurua handitzeko neurriak hartzeko gomendioa luzatu diete agintari publikoei.

Horrek segurtasun kidegoetako lanpostuak hornitzeko deialdietan euskara jakiteari orain arte ez bezalako trataera ematea eskatzen du, euskaraz jakitea ezinbesteko baldintza bihurtuz, hori baita agente euskaldun eta erdaldunen arteko desoreka leundu eta herritarrek aitortuak dituzten hizkuntza eskubideak bermatzeko neurri eraginkor bakarra.

Horrez gain, segurtasun kidegoetako agenteak euskalduntzeko plangintzak premiaz abiarazi behar dira, eta agenteak euskaraz lan egiteko trebatu eta baliabide material egokiz hornitu kalitatezko euskarazko zerbitzua bermatzeko.

Euskaraz ez dakiten agenteei zuzendutako praktika egokien gida bat sortu eta lantzea ere ez legoke soberan herritarrek hizkuntza dela eta pairatzen dituzten tratu zakar eta bidegabeak errotik ezabatze aldera.

“Atzo, ekainak 12, Ertzaintzaren Zabalburuko komisaldegira joan nintzen Arriagan elkarteratze bat egin ahal izateko baimen eske. Euskaraz agurtu eta euskaraz eskatu nion zerbitzuan zegoen ertzainari. Honen erantzuna: “Háblame en castellano. Desconozco el euskera. Si quieres, dirígete a la consejera Estefanía Beltrán de Heredia”. Erdaraz jarraitu behar izan nuen, baimena behar nuen eta”.

euskaraz
bizi
nahi dut



3. JUSTIZIA

JUSTIZIA, OREKATU BEHARREKO BALANTZA

Epaitegi batean den-denak izutzen du herritarra. Neurri handiz edo txikiz bada ere, epaitegi batera joan behar duenak badaki pertsona baten interpretazioak ondorioak izan ditzakeela bere etorkizunean. Herritar orok nahi du epaileak argiki jasotzea bere bertsioa eta epailearentzat datu esanguratsua da ez bakarrik zer esaten den, nola esaten den ere, kontuan hartzen duen elementua.

Justizia alorrean bada, bereziki larriak dira hizkuntza eskubideen urraketak. Esan nahi duzun hori epaileak itzultzaile baten bitartez jasotzen duenean aukera handia dago informazioa bidean galtzeko eta horrek herritarra urduritzeaz aparte bere defentsa eskubidea ere kaltetu egiten du.

Zaila izaten segitzen du justiziaren alorrean euskaraz aritzea: zitazioak edota epaiketa batean parte hartu dutenaren ziurtagiriak erdaraz helbideratuak egotea, epaiketa batean euskara ez den bestelako hizkuntzetan deklaratu behar izatea edota interprete baten presentziaz egin behar izatea, agiriak erdara hutsez egotea edota harrerako langileak, epaileak, fiskalak, zein dena-delakoak euskaraz ez jakitea... ohikoak izaten dira Justizia Administrazioan.


“Gaur goizean, Donostiako Auzitegian, “aurretiazko eginbideak” delakora joan behar izan dut (1. solairuan). Euskaraz hasi eta gaztelaniaz jarraitu behar izan dut euskaraz ez zekiela erantzun dit et arreta egin didan funtzionarioak. Testigantza euskaraz egin nahi nuela adierazi diot eta halaxe markatu du laukitxoan. Handik 2. solairura igo behar izan dut testigantza ematera, Instrukziozko 4. Epaitegira, eta han ere euskaraz ez zekien funtzionarioa egokitu zait. Testigantza hartu nahi izan dit baina euskaraz egin nahi nuela adierazia nuela gogoratu diot. Orduan ea beste egun bat galdu nahi nuen galdetu dit, itzultzailea eskatu beharko zuela-eta. Baietz esan diot eta beste egun bat eman dit, baina harritu egin nau gaztelaniaz egiteko konbentzitu nahi izanak”.



“Demanda euskaraz aurkeztu arren, demandari lotutako antolaketa rako eginbidea gaztelaniaz baino ez dut jaso”.

“Donostiako epaitegien eraikineko Dekanatoan, (eskubitara dagoen bulegoa, non epaitegi guztietara doazen idatziak erregistratzen diren), eguerdiko ordu bata inguruan atenditu gaituen funtzionarioak, gizonak, ez zekien euskaraz”.

“Iruñeko Lehen Auzialdiko 6. Epaitegiak zitazio zedula bidali dit. 18/1986 Foru Legeak euskaldun izendatzen duen eremuan bizi naiz baina jaso dudana agiria espainiera hutsean dago, ez du euskarazko ordainik. Euskalduna naiz, euskaraz nahi ditut administrazioarekiko harremanak, eta beste nafar batzuk ez bezala legearen babesa dut horretarako. Bada, legeak betearazteko omen dagoen erakunde horrek ez ditu nire hizkuntza- eskubideak errespetatu eta legea ere urratu du jakinarazpena erdara hutsean bidaltzean”.

	Juzgado de Primera Instancia Nº 6 c/ San Roque, 4 - 4ª Planta Pamplona/Iruña Teléfono: 848.42.42.57 Fax.: 848.42.42.81 00031	Sección: B Procedimiento: PROCEDIMIENTO ORDINARIO (DERECHO AL HONOR - 249.1.2) Nº Procedimiento: 0000521/2014 NIG: 3120142120140004185 Materia: Derecho de la persona
	CÉDULA DE CITACIÓN	
ÓRGANO QUE ORDENA CITAR JUZGADO DE PRIMERA INSTANCIA Nº 6 de PAMPLONA/IRUÑA.		
ASUNTO EN QUE SE ACUERDA El arriba referenciado.		
PERSONA A LA QUE SE CITA D ^a JESUSITA MARTINEZ GARCIA Domicilio en C/ San Roque, 4 - 4ª Planta, Pamplona/Iruña		
En concepto de TESTIGO, para actuar en dicho juicio, propuesto/solicitado por la parte demandante.		
OBJETO DE LA CITACIÓN Concurrir al juicio o vista a fin contestar al interrogatorio de preguntas de las partes sobre hechos controvertidos en el pleito.		
DÍA, HORA Y LUGAR EN QUE DEBE COMPARECER Se le cita para el día 11 de Febrero del 2016 a las 11:30 horas, en Sala de vistas 401 (Planta 4) de este Órgano Judicial sito en c/ San Roque, 4 - 4ª Planta, Pamplona/Iruña.		
PREVENCIONES LEGALES 1.- Los testigos tienen el deber de comparecer en el juicio o vista para el que fueron citados (artículo 292.1 de la Ley 1/2000 de Enjuiciamiento Civil LEC). 2.- La infracción de este deber será sancionada, previa audiencia, con una multa de ciento ochenta a seiscientos euros (artículo 292.1 LEC).		
En Pamplona/Iruña, a 07 de octubre del 2015.		
EL/LA LETRADO DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA		

1

Bai ahozko jardunean eta bai jardun idatzian ere, oro har, hizkuntza nagusia, bakarra ez denean, erdara da.

Zenbait kasutan euskara hutsean aurkeztutako agiriak atzera botatzen dira edo haien itzulpena eskatzen da. Epaitegietan, hitzez nahiz idatziz, euskaraz jardun nahi izateak atzerapena nozitu beharra dakar.

“Urtarrilaren 7an exekuzio-demanda aurkeztu nuen Bergarako 1. Auzialdiko eta Instrukziozko 2. Zb.ko Zulup-ean eta urtarrilaren 21ean izapidetu aurretik demanda gaztelaniara itzultzea erabaki zuen idazkari-judizialak. Bada, otsailaren 3an, behin itzulpena jasota, adierazi dute demanda izapidetu eta tramitera onartzen dutela. Ondorioz, itzulpenak 12 eguneko atzerapena eragin du auzian”.

Gaur egun, jarduera judizialeko prozedurak euskaraz burutu nahi izatea oztopoz beteriko bide bati ekitea da. Hala ere, gero eta gehiago dira bere eskubideei irmo eusten dioten herritarrak.



Herritarrak propio eskatuz gero soilik izapide edo jarduera batzuetan erabiliko du Justizia Administrazioak euskara. Alegia, zenbait dokumentu euskarara itzuliak izango dira, edo itzultzaile-

interpretariarekin aritzeko aukera izango da. Baina, oro har, prozedurak gaztelaniaz izapidetzen dira hasieratik amaierara (zitazio-zedulak, dokumentazioa, jakinarazpenak, aktak, antolaketa eginbideak, probidentziak, autoak, epaiak, etab.).

“Demanda euskaraz aurkeztu arren, demandari lotutako antolaketarako argibidea gaztelaniaz baino ez dut jaso”.

Justizia Administrazioiko langileek euskaraz ez jakiteak herritarren hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzea dakar.

“Urtarrilaren 23an Hernaniko Bake Epaitegira joan naiz eta bertako langileak gaztelaniaz agurtu ondoren, zer nahi dudan galdetu dit, hau ere, noski, gaztelaniaz. Ni euskaraz hasi natzaiot hizketan eta ez duela ulertzen esan dit, eta zer nahi dudan galdetu dit ostera ere. Orduan nik ea euskaraz artatzeko inor ba ote dagoen galdetu diot gaztelaniaz. Berak ezetz erantzun dit...”

ONDORIOAK

Horiek horrela, Justizia Administrazioaren aurrean ez dago euskara berdintasunez erabiltzeko eskubiderik.

Justizia Administrazioan euskaraz jardun nahi izateak segurtasun eza, jaso litekeen tratua eta sortu daitezkeen desabantailen gaineko zalantza eragiten du herritarrengan.

Azken urteotan egoera iraultzeko hainbat ekinbide plazaratu badira ere, (baliabideak bideratu, harremanak administrazioekin, Auzia Euskaraz egitasmoa) epaitegietan ez da euskaraz funtzionatzen. Eta horrek hizkuntza-eskubidea ez ezik babeserako eskubidea ere kaltetu egiten du.

Epaia da garrantzizkoena eta kexa bat jartzeak berak eragina izan dezake epailearen iritzian eta azken erabakian.

Bestalde, Espainiako Gobernuak 1992an sinatu eta 2001ean berretsi zuen Erregio edo Gutxiengoen Hizkuntzen Europako Itunaren betetze mailaren laugarren txostena argitaratu du Europako Kontseiluko Ministroen Kontseiluak.

Espresuki bi eskaera egin dizkio Espainiako estatuari:

1.- Alda dezala marko juridikoa prozedura kriminal, zibil zein administratiboak hizkuntza koofizialetan egin ahal izateko. Legea dela oztopoa justiziaren administrazioaren eremuan.

2.- Justizia Administrazioan euskara ezagutzen duen langile proportzio egokia izateko neurri legal eta praktikoak hartzea.

Aurreko ebaluazioetan identifikatutako arazoak bere horretan jarraitzen dute justizia administrazioan. Ez da ziurtatzen jurisprudenzia-organoek prozedura euskaraz aurrera eramatea. Ez da legeriarik aldatu eta egiturazko arazoak daude.

Pertsonalaren kontratazioa bezalako arlo garrantzitsuetan euskarak merezimendu soila izaten jarraitzen du, eta aurrez esan bezala, nekez eskaini dezake administrazioak euskarazko zerbitzu oso eta normalizatua euskaraz ez dakien pertsonalaren bidez. Euskarak ez luke meritua izan behar Justizia Administrazioan, baldintza baizik.

Argi dago, behar-beharrezkoa dela neurri eraginkorrak hartzea urraketa egoerekin amaitzeko. Sakoneko aldaketak eman behar dira euskal hiztunak bigarren mailako herritarrak izateari uzteko.

PAU
BORDEAUX
PETIT BAYONNE
BAIONA TTPIA-PETIT BAYONNE
Conseil Gén.
Kontseil Orokorra-Cor

**Erantzutza Euskaraz eskola
Erantzutza publikoan zain dezagun**
*Défendons l'enseignement
en Basque à l'école publique*

**euskaraz
bizi
nahi dut**

**euskaraz
bizi
nahi dut**



4. HEZKUNTZA

Dokumentu hau idazten ari garen unean jakin dugu Iruñeko Udalak bikoiztu egingen duela euskarazko haur eskolen kopurua. Orain arte bi ziren eta aurrerantzean lau izanen dira.

Azkeneko 20 urtetan etengabea izan da Iruñeko auzo guztietan euskarazko haur eskolak izatearen eskaera. Izan ere, hirian dauden 17 haur eskoletatik soilik bitan, Txantrea eta Arrotxapean, hezi daitezke umeak euskaraz.

Urte hauetan guztietan Udalak egin duen politika ukatzailearen ondorioz, ehunka familiek euren seme-alabak gaztelaniazko eskolara eraman beste erremediorik ez dute izan. Hori edo egunero hiria punta batetik bestera gurutzatu euskarazko eskolara eraman ahal izateko.

Erabaki horrek eskatzen zuen ahalegina ongi jakin arren, gertutasunaren gaineratik hizkuntza lehenetsi eta euskaraz hazteko erabakia hartu dute hainbat familiek. Era askotarikoak izan dira egindako mobilizazioak: agerraldiak, artikuluak, sinadura bilketak, kontzentrazioak, kalejirak, jende kateak, aulkitxo dantzak, eskaera bilketak, erregistroak, helegiteak...



Eta indarrez eta ilusioz borrokatzeak ekarri du garaipena. Oraindik eskaintza nahikoa ez bada ere, 2016-2017 ikasturteetik aurrera, euskarazko eskaintza handitu eta beste bi haur eskola irekitzea erabaki du Iruñeko Udalak. Berri ona euskarazko eskaintza bikoiztu egingo delako eta Iruñeko auzo gehiagotara iritsiko delako.



Hezkuntzaren helburua ikasleen nortasunaren garapena izanik, euskara hizkuntza propiotzat duen lurraldeko irakaskuntza sistemak, euskararen ezagutzari bide eman behar dio. Bizi den tokiko errealitatea ezagutzeko tresnak eskaini behar ditu eskolak, horretarako ikasleei bermatu egin behar zaie euskararen ezagutza.

Bizikidetzan aurrera egiteko, integrazioaren bidean sakontzeko, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko eta harmonian bizitzeko, ikasleek euskara menderatzeko aukera eskaini behar du hezkuntza sistemak. Eskolak ikasle guztien aukera berdintasuna bultzatu behar duen heinean, euskara eta beste hainbat hizkuntzen ezagutza bermatu behar du. Euskararen ezagutzaren unibertsalizazioak bermatuko du hizkuntzaren normalizazioa eta bizikidetzaren lantzea.

Baina egungo errealitateak printzipio horiek guztiak kaltetzen ditu. Haur eskoletan, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, Lanbide Heziketan edo Unibertsitatean, nahiz akademia pribatuek eskaintako zerbitzuetan, horietan guztietan pairatu baitituzte hizkuntza-eskubide urraketak herritarrek.

Lehen aipatu dugun moduan urratsak eman badira ere, Iruñean, seme-alabak euskarazko haur eskoletara igorri ezinik gelditu dira 58 guraso. Haur eskoletako 1.578 plazatatik 164 baino ez dira izan euskaraz 2015ean, hau da, %10 inguru.

Frantziako Hezkuntza Erreforma berriaren baitan, berriz ere, hizkuntza gutxiagotuak baztertuak izan dira. Seaskak bere kezka adierazi izan du, esanez erreforma aplikatuko balitz euskararen eta euskarazko irakaskuntzari kalte egingen liokeela, euskara ikasgaiari dagokion ordu kopuruaren murrizketa lekarkeelako, beste ikasgai batzuekin ordezkaturik, hala nola hizkuntzak ala kirola. Hortaz, euskara kopuru berberarekin segitu nahiko balitz, ikasleek erreformaren onura pedagogikoak ez zituzten ezagutuko.

b

Gizartea | Kolegioen erreformak okertu egingen du tokiko hizkuntzen irakaskuntza


Kolegioen erreformak okertu egingen du tokiko hizkuntzen irakaskuntza

Frantziako Hezkuntza Ministerioak egin nahi du aldaketa. Irakasle elkartearen arabera, ikastetxeen borondatearen esku geldituko da hizkuntza gutxituak irakatsi ala ez. Elebidunak bakartu egingen ditu



Najat Vallaud-Belkacem Hezkuntza ministroak bultzatu du erreforma. M. RUIZ / EFE

2015-05-08 / Maddi Ane Txoperena Iribarren



Kolegioak dira Frantziako hezkuntzaren ahulgunea. Hala adierazi du Najat Vallaud-Belkacem Frantziako Hezkuntza ministroak azken hilabeteotan ikastetxe horien erreformaz mintzaterakoan. Eta horregatik eraldatu nahi du irakasteko modua 10 urtetik 14 urtera arteko gazteak hiltzen



Maddi Ane Txoperena

Iribarren

Azken finean, frantses estatuak jakinarazi izan du erreforma berriak ez dituela hizkuntza gutxiagotuak baztertuko, eta orain arteko irakaskuntza ordu kopurua mantenduko zela irakaskuntza sailetan. Edonola ere, beste behin ere, lege aldaketa honen bidez gobernu frantsesak euskara segurtasunik gabeko egoeran utzi du.

Lehen mailan aldiz, sail elebidun publikoko irakasle batek Behatokira jo du erabat kezkatuik esanez:

“Nahiz eta formakuntza oren batzuk jaso dituztan sail elebiduneko erakasleekin Paben, ez naiz gai sentitzen euskara ikasgaia erakasteko haurrei eta bereziki gramatika, ez dizkigutelako pedagogia tresnak zehazki erakatsi. Ez dugu sekula euskara erakasle trebatuagoen lekukoa jaso ahal izan, adibidez. Orduan nola erakatsi zer den erlatiboa? Ez dakit, ez didate sekula metodoa azaldu eta gainera ikasmaterial biziki gutxi da pedagogiari buruz. Horrela, denbora anitz galtzen da haurren euskalduntzeko bidean. Nahi nuke pedagogia formakuntza zehatz bat jaso euskaraz erakatsi ahal izateko euskal gramatika”.

Egia da 2015ean Unibertsitateko Euskal Ikasketak sailaren esparruan master berri bat sortu dela murgiltze ereduko lehen mailako irakasleen formatzeko hain zuzen; baina momentuko Paben dira klaseak eta ez dira Euskal Herrian eta horrek kostu bat gehiago sortzen du irakasle gaiantzat. Gainera, ez du arazoa konpontzen, sail elebidunekoek jarraitzen baitute euskarazko formakuntza espezifikorik gabe eta funtsean ez da zehaztu master berri horretan irakatsiko dela nola irakatsi euskaraz.

Ur Apalategi Euskal Ikasketen arduradunaren esanetan, Baionako Euskal Ikasketen sailak beste hutsune bat dakar: “zaila da aurkitzea gai jakin batean euskaraz aritzeko gai diren eta administratiboki unibertsitatean ari daitezkeen espezialistak”.

Bestalde, Euskararen Erakunde Publikoak irakasleei euskarazko formakuntza jasotzeko aukera eskaintzen die, AEK-k zerbitzu hori beteko duelarik; nahiz eta euskara irakatsiko zaien, ez zaie irakatsiko nola irakatsi euskaraz.

Bere aldetik, Seaskak hitzarmena berritu du Hezkuntza Ministeritzarekin, baina ez da zailtasunik gabe izan. Batetik, Seaskak jarraituko du hainbat irakasle bere saketetik ordaintzen eta bestetik, Ministeritzak jarraitzen du erraten ezin dela Baxoa euskaraz egin zuzenketetarako irakasle eskasiagatik.

Otsailean Nafarroako Parlamentuak euskarazko irakaskuntza legeak ezarritako eremu ez-euskalduneko sare publikoan eskaintzea onartu bazuen ere, 2015-2016 ikasturtean ez da gauzatu eta familia ugari seme-alabak euren herrietan euskaraz matrikulatu ezinik gelditu dira. Euren herrian euskaraz ikasteko aukerarik ez eskaintzearen ondorioz herritik kanpo D ereduan matrikulatzeko erabakia hartu duten gurasoek ahalegin ekonomikoa ere egin behar izan dute, garraioa eta jantokia ordaintzea beren gain baita. Ondorioz, legeak ezarritako eremu ez-euskalduneko familiek eremu euskaldunekoek halako 3 ordaindu behar dute euren seme-alabek euskaraz ikasi ahal izan dezaten. Horrek beste karga handi bat ere badu: urteak daramatzatela egunero-egunero, eguraldi ona ala txarra, autoa edo ahal duten garraioa hartu eta euren herria utzi eta milaka kilometro eginez eskolara joaten, honek dakarren arrisku eta abarrekin.



Behingoan D eredia Nafarroa osoan eskaintzeak irakasle euskaldunen beharra ekarriko dio Administrazioari. Bada, behar tekniko horiek alde batera utzi eta lan eskaintza publikoan hasiera batean oposaketara ateratzeko asmoa erakutsi zuten euskarazko 120 plaza bertan behera utzi ditu Nafarroako Gobernuak. Erabaki ulergaitza eta ondorio larriak izango dituen.

Bestalde Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatutakoan Lanbide Heziketaren bidetik jarraitu nahi duten ikasleek euskaraz ikasteko aukera murriztagoa dute. Euskararen presentzia LHn ez dator bat derrigorrezko hezkuntzan duenarekin, eta gabezia horri derrigorrezko diren praktikak euskaraz egiteko ezintasuna gaineratu behar zaio. Horrela, hezkuntzak euskalduntzen duena lan munduak erdaldundu egiten du.

“Urrutiko Lanbide Heziketan kurtso honetako eskaintza guztia (erdi nahiz goi maila) gaztelaniaz baino ez da.”

Eusko Jaurlaritzak berak aitortua du euskarazko irakaskuntzak derrigorrezko hezkuntzandaukanpisuaren eta Lanbide Heziketan daukanaren artean dagoen aldea handiegia dela. Alde hori murrizteko hainbat ahalegin jaso



dituzte Agenda Estrategikoan. Besteak beste, Lanbide Heziketan espresuki euskarazko irakaskuntza sustatzea, D eredu indartuz eta titulu guztiak euskaraz eskaintzera iritsiz eta B eredu sortzea. Legealdi honen barruan Euskadiko Lanbide Heziketako Legea aurkeztu du eta Legebiltzarrak onartzen badu, B ereduaren sorrera finkaturik geldituko da. Derrigorrezko hezkuntzan ikasle gehienak eredu euskaldunetik datozela ikusita, badu zentzurik B eredu ezartzeak?

Bien bitartean 2015eko Ibilaldiaren antolatzaileek, Bilboko Harrobia Lanbide Ikastolak, ikasketa profesionaletan euskarazko eskaintza bultzatzea izan dute helburu, euskarazko eskaintza oso urria baita.

Baionako Unibertsitatean Euskal Ikasketen departamentua izan arren, euskara erabat bazterturik geratzen da. Era berean, ez da deus komunikatzen euskaraz. Beste hizkuntzetan ordea gero eta gehiago komunikatzen da, hara nola gaztelaniaz eta ingelesez.

The screenshot shows a website page for the 'Association Baïoneko'. The page title is 'L'association Baïoneko : son engagement auprès des étudiants de la licence'. The page content includes a list of objectives for the association, such as maintaining and developing links between current and former students, supporting the faculty and active participation of students, and supporting cultural, sports, and humanitarian projects. It also mentions examples of projects supported by the association, such as a forum of professions and a forum of careers in 2011. There is a sidebar on the right with a 'TÉLÉCHARGEMENT' section containing links to diaporamas and a photo album.

Baionako Unibertsitateko ikasle batek mezu hau helarazi du Euskararen Telefonora:

“Baionako Unibertsitatean, Euskal Masterrean diren ikasleek/ erakasleek ez dute gela finkorik klaseetarako, eta azken momentuan jakiten dute gela zein izanen den, idazkariari eskatuz aldi oro. Beste sailek noski ez dute horrelako arazorik, bakoitzak aitzinetik daki zein geletan izanen den. Horrek ongi erakusten du nola UPPA-k Euskal Ikasketen saila baztertzen duen. Ulergaitza egiten zait euskaldunok tokirik ez ukaitea bertako unibertsitatean”.

Unibertsitateari lotutako bestelako zerbitzuetan ere gauza bera gertatzen da eta maiz ikasle euskaldunak erabat baztertuak dira. Horra beste froga bat:

“Unibertsitateko jatetxean lagun batekin bazkaltzen ari ginen. Euskaraz ari ginela, gure ondo-ondoan beste bi ikasle zeuden eta batak guri begiratu eta besteari bota zion: “zenbat atzerritar dauden aurten, harrigarria da!”. Horrelako egoerak lotsagarriak dira. Nola da posible Euskal Herrian bizi den herritar batek bertako hizkuntza batera ez ezagutzea? Jatetxeak badu bere erantzukizuna: zergatik seinalestean ez da ezer euskaraz agertzen? Unibertsitateko jatetxeak urrats bat egin beharko luke horrelako egoera penagarriak ekiditeko gisan. UPPA-ri lotutako erakunde gisa, jakinean izan beharko lukete unibertsitatean Euskal Ikasketak saila ere dagoela eta hortik kanpo ere, beste hainbat ikasle euskaldun”.

Nafarroako Unibertsitate publikoan berriz, sortu zenetik 29 urte pasa direnean ikasgaien %20 soilik eskaintzen da euskaraz eta Irakasletza da euskaraz egin daitekeen karrera bakarra (duela 15 urte bezalaxe). 2013-2014 ikasturteetik %39 handitu da ingelesezko ikasgaien eskaintza; euskarazkoena, aldiz, %10 besterik ez. Erizaintza ikastegian zehazki, ikasleen %40 inguru euskalduna da, baina ikasleek 2 ikasgai soilik egin ditzakete euskaraz.



Euskal Herriko Unibertsitatean euskarak bitarteko, eta oro har, ordu gehiago behar dituela zalantzarik gabea da. EHUko medikuntza ikasleak, esaterako, aspalditik ari dira ikasketak euskaraz egin nahian; euren eskubidea ez ezik, osasungintzaren euskalduntzea ere jokoan da:

“2014-2015 ikasturtean Basurtoko irakasguneko Medikuntzako 6. mailan euskaraz matrikulatutako ikasleek oztupo handiak izan ditugu Medikuntza forentse eta toxikologiako irakasgaia euskaraz ikasteko. Teoria orduak euskaraz jaso ditugu, baina praktika eta mintegi orduak

gaztelaniaz eman dizkigute (iaz arte euskaraz jasotzen ziren). Gainera autopsietako orduak kendu egin dizkigute, irakaslea euskalduna izan arren kontratu orduak gainditu egiten dituelako.”



Kexa hori Medikuntza karreraren egoera islatzen duen iceberg-a da: ikasleek urteak daramatzate ikasketak euskaraz egin nahi dituztela aldarrikatzen. Eusko Jaurlaritzak ardura handia du aspaldiko arazo honetan: 1) Euskaraz ikasteko eskubidea urratzen die ikasleei eta 2) Osakidetza euskalduntzea baldintzatzen ari da Medikuntza fakultateak zerbitzua euskaraz emateko trebatuak ez dauden profesionalak sortzen jarraitzen baitu, hau da, pazienteei hizkuntza-eskubideak urratuko dizkieten profesionalak sortzen.

EHUko langileek bertako berezko hizkuntza eta ofizialetako bat ez jakiteak eragiten dituen kalteen adibidea:

“Tesiaren egiten ari naiz Pabeko Unibertsitatean Zuzenbide sailean. Kotutela bideratzen ari nintzela EHUrekin, hango idazkariak ezin izan du euskaraz komunikatu nirekin. Zailtasunak ukan ditugu elkar ulertzeko eta tramiteak asko luzatu dira. Ezin da jarraitu horrela.”

Herritar horri izapidea burutzea behar baino gehiago korapilatu zaio. Bada langilearen gabeziaren ondorioz, erantzun desegokia jaso duen ikaslerik ere: *“A ver, a ver a ver, ...en castellano”*. *“Ez mesedez eta ez ezer.”* Mota honetako erantzunak jaso behar oraindik!

Eusko Jaurlaritzarekin jarraituz, Ikertzaile Doktorea bazina eta elkarrizketa baten bidez doktoretza-ondoko Programarako laguntza eskuratzea bazenu jokoan, elkarrizketa zer hizkuntzatan egitea aukeratuko zenuke ondokoa irakurriko bazenu? *“Euskara” aukeratuz gero, jakin behar duzu aldibereko itzulpena erabiliko dela eta interpreteak ez direla adituak zientzia-gaietan, baizik eta aldibereko itzulpenean”*.



Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan garbiketan eta sukaldaritzan aldi baterako premiak betetzeko zerrendak irekitzeko deialdia egin zuen 2015ean Eusko Jaurlaritzak. 2007 eta 2009 deialdiei jarraiki, oraingo honetan ere ez da euskararen ezagutza aintzat hartu

“Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxe publikoetan garbiketa eta sukaldaritzan aldi baterako premiak betetzeko zerrendetan izena emateko epea ireki du eta bertan izena emateko ez da euskararen ezagutza kontuan izanen. Ondorioz, litekeena da euskaraz diharduten ikastetxeetara euskaraz ez dakiten langileak bidaltzea.”

Nafarroako ikastetxe batera ere atezain erdalduna bidali zuen Nafarroako Gobernuak, nora eta D ereduko ikastetxe batera.

“Iruñeko Sanduzelai Ikastetxe Publikora atezain erdalduna bidali dute Iruñeko Udaletik. Ikastetxea D eredukoa da.”

Imajinatzen duzu zure seme-alaba irakaslearen mandatu batekin atezainarengana joan, haurrak euskaraz egin eta hark gaztelaniaz egiteko eskatzea?

Eta D ereduko ikasle bazina irakasleak azalpenak euskaraz ez ematea?

“Gasteizko D ereduko Mendebaldea institutuan nago 4. DBHn, eta Matematikako irakasleak behin baino gehiagotan gaztelaniaz hitz egin digu eta azalpenak eman dizkigu.”

Era berean, Baionako herritar batek honako mezua zuzendu zion Acadomia agentziari:

“Nire klaseko beste hainbat ikasle bezala, nahiko nuke euskara klaseak proposatuak izan ditezen Acadomian”.

Honako erantzuna jaso zuen: *“Jadanik proposatzen ditugu euskara klaseak, gehien bat ikastola edo sail elebiduneko ikasleentzat. Haatik, bilatzen baduzue beste ikasgaiak ere euskaraz egitea (hara nola matematika), kasu horretan ez dugu ezer proposatzeko momentuko baina erakasle egokia aurkituz gero, proposatzen ahalko genuke”.*

ONDORIOAK

Ipar Euskal Herrian azken urtetan euskarazko hezkuntzak gora egin duen arren irakasleak prestatzeko arazoak eta gabeziak daude. Gainera, Frantziako Hezkuntza Erreformaren ondorioz ikasleek euskara ikasgaiari dagokion ordu kopurua murrizteko arriskua dago. Alegia, euskara segurtasunik gabeko egoeran aurkitzen da.

Bestalde, Baxoa euskaraz pasatu ezinean jarraitzen dute ikasle euskaldunek.

Horrez gain, Baionako Unibertsitatean euskaldunak arrotz gisa tratatuak dira esparru guztietan.

Euskaraz ikasteko aukera Nafarroako guztietara zabaltzeko aukera emango du 2015ean Vasconcearen Legean egindako aldaketak, eta, ondorioz, eremu ez-euskalduneko eskola publikoetara iritsiko da D eredia.

Haur eskolen kasuan, eskaintza zabaldu eta hizkuntza-eskubideen urraketa eteteko urratsa eman den arren, urrun dago oraindik eskaera guztia asetzetik.

Horrela, hezkuntza sistemaren etapa guztietan daude oztopoak Nafarroan hezkuntza euskaraz jaso ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa mailan gora egin ahala, euskaraz ikasteko aukerak murriztu egiten dira. Horrela, oraindik ere bai Lanbide Heziketan eta bai unibertsitatean ezintasunak daude ikasketak euskaraz burutu ahal izateko.

Kultura ondare propioaren adierazpide nagusia den hizkuntzaren ezagutza ez dago bermaturik euskararen herrian. Euskaraz ikasteko eskubidea ez dago garantizaturik ikasmaita guztietan. Horrek hizkuntza-eskubideak urratzeaz gain, ez dio batere mesederik egiten bizikidetzari, aukera berdintasunari eta herritarren arteko harreman harmoniatsuari, elkarbizitzari.



Euskaraz
hizi
düt

"Iruñean Haur Eskolak Euskaraz"
Jende-kalea Arrotxapeatik
Martx-10 Udaletxe
18:00 plaza raino
Euskaraz
hizi
düt
#Ap25aNAHltasuna

5. ADMINISTRAZIO JARDUERA OROKORRAK

“VUELVA USTED MAÑANA”

“Vuelva usted mañana” Mariano José de Larra XIX mendeko kazetari espainiarraren artikulurik ezagun eta aipatuenetariko baten izenburua dugu. Idazki horretan garaiko Espainiako administrazioaren nagikeriaren eta eraginkortasun ezaren kritika satiriko eta zorrotza egin zuen Larrak. Gerora, esapide hau maiz erabili izan da burokrazia eta administrazioaren eraginkortasun eza salatzen.

Orduetik hona bi mende igaro badira ere “Vuelva usted mañana”k gaurkotasun osoa izaten jarraitzen du euskararen ofizialtasunari dagokionez Espainiako administrazioan ez ezik gainerako administrazio publikoetan ere.

861-2015 DOSIERRA

Usurbilgo herritarra Nortasun Agiriaren Donostiako bulegora joan da 4 urteko alaba eta Usurbilgo Bake Epaitegian eman zioten alabaren jaiotze-agiriaren ziurtagiria hartuta, alabarentzako Nortasun Agiri Nazionala egitera. Alaba jaio zenean euskaraz inskribatu zuten erregistro zibilean eta ziurtagiria euskaraz idatzita dago. Jaiotze-agiriak alboko ohartarazpena du, hura ere euskaraz idatzia. Nortasun Agiriaren Bulegoko langileak Bake Epaitegian eman dioten ziurtagiriak ez duela balio esan dio neskatoaren aitari, ez dagoelako ele bietan. Bake Epaitegian hori jakin badakitela, eta alabari nortasun agiria egin nahi badio berriz itzuli beharko omen du ziurtagiri elebidunarekin.



Herritarrak berak ekarri duen ziurtagiria erakunde ofizial batek luzatutakoa dela esan dio, eta euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomia Erkidegoan. Bi aldiz esan dio gauza bera, baina langileak agiria Madrilera bidali behar dutela azaldu dio eta hara ezin dela euskaraz soilik bidali.

Nortasun agiririk gabe itzuli behar izan dute aita-alabek etxera.

Haserre dago, hizkuntza eskubideak ez zaizkiola errespetatu sentitu du eta Hizkuntz Eskubideen Behatokia jo du laguntza eske. Badu haserre egoteko motiborik. Izan ere, Espainiako Nortasun Agiria lehen aldiz egiteko honako hauek aurkeztu behar dira: jaiotze-agiriaren hitzez hitzeko ziurtagiria, eskatzailearen argazki egin berri samarra, eta eskatzailea bizi den herriko udalak luzatutako erroldatze ziurtagiria.

Herritarrak aurkeztu duen ziurtagiriak, euskara hutsean egonagatik ere balio osoa du. Izan ere, erregistro zibilaren legeak dio *“Idazpenak gaztelaniaz edo erregistro zibila dagoen autonomi-erkidegoko berezko hizkuntza ofizialean egingo dira, adierazpena egin den hizkuntzan edo aurkezten den agiria idatzita dagoen hizkuntzan”*. Hartara, inskripzioa euskaraz egin bazen, euskaraz besterik ezin da luzatu hitzez-hitzeko ziurtagiria.

Madrilera bidali behar dutela eta ezin dela euskara hutsean bidali? Ez da herritarraren arazoa, administrazioak berak konpondu beharreko afera baizik. Izan ere, euskaraz aurkeztutako idazki eta agiriak, balio eta eragin-indar osoa dute euskara EAEko hizkuntza ofiziala den heinean.

Hitzordu berria eskatu du herritarrak, eta berriro agertu da bulegora 4 urteko alabarekin eta lehenbiziko aldian eraman zituen agiriekin eta Behatokiko ordezkariaren laguntzarekin. Gaur zorte hobea izan du. Alabak badu nortasun agiria. Hala ere, ez du ulertzen zergatik itzuli behar izan duen bigarren aldiz lehenbizikoan egin zitekeena egitera.

Arestikoa kasu bat da, baina zenbat horrelako ez zaizkigu gertatzen euskaldunoi gaur bai eta bihar ere bai?

Eskaera bat bideratu diogu SEPEri webguneak eskaintzen duen aukera baliatuz. Euskaraz idatzi dugu eskaera. E-postaz erantzun digute eskaera gaztelaniaz azaltzeko eskatuz.

Gutuna bidali dugu. Hartzailearen helbidean euskaraz idatzi dugu herriaren izena, baina Correos-ek bueltan ekarri digu “Dir. Incorrecta” idatzita. Hartzaileari deitu eta helbidea zuzena dela egiaztatu dugu. Bigarrenez bidali dugu helbidea euskaraz eta gaztelaniaz idatzita. Oraingoan arazorik gabe jaso dute.

Ekainaren 13an udalak eratzeko ekitaldietan parte hartzeko zinegotzi egiaztagiriak aurkeztu behar dira. Azpeitiko eskualdeko hauteskunde-batzordetik Zumaiako udalera bidali dituzten egiaztagiriak espainiera hutsean idatzita daude. Euskarazko agiriak eskuratu nahi badira, Azpeitiako epaitegira joan behar da gaztelaniazkoak itzuli eta agiri elebidunak jasotzera.

Eraginkortasun eza ez da Espainiako estatuko administrazioaren gaitza soilik. Frantziakoak ere erakutsi du gisa bereko jokabiderik.

Horrela, La Banque Postale erakundearen iradurak erabiltzen diren euskarazko helbidean ulertu ez nahian, baita euskaraz betetako txekean ukatzen. Herritar batek Behatokira jo zuen etsiturik:

“Orain dela gutxi, La Poste-n kontu bat ireki nuen eta egia da arazo anitz izan ditudala, haien artean, jaso berri dudana jakinarazpena. Omen ezin dut euskaraz den txeke bat pausatu. Zehazki nire enplegatzailearen izenean zen txeke bat itzuli didate etxera, 156€-koa hain zuzen. Jakin badakit badela jendea La Poste-n ere kontua duena eta nire enpresa berean lan egiten duena, eta berak behin ere ez du arazorik ukan.

Ondorioz, nire enplegatzailea behartua izan da txekea berriz egitera, frantsesez. Lotsagarria iduritzen zait txeke xume batengatik baina batez ere bertako hizkuntzaren balioespenerengatik sekulako gertaera desatsegin hau bizitzea. Gainera kantitatea zenbakiz ere azaltzen da eta guztiz ulerkorra da denontzat.


Pertsonalki, denbora galtze bat, energia xahutze bat eta diruaren berandutzea eragin dit, eta inpotentzia handia, La Banque Postale-n ere, ez baitidate deus ere erraztu”.

Jarraian ikusiko dugun moduan, Larrak bere garaian kritikatu zuen “Vuelva usted mañana”k, gaurkotasan osoa ez ezik aldaera ugari ditu Euskal Herriko administrazio publikoen jardunean.

EUSKARA HIZKUNTZA SUBSIDIARIOA

EAEko eta Nafarroako Autonomia Estatutuetan euskara eta gaztelania EAEko eta Nafarroako hizkuntza ofizialak izango zirela xedatu zen, Nafarroan euskararen ofizialtasuna eremu euskaldunera mugatu bazen ere. 35 urte beranduago, gaztelaniak balio osoa du administrazio publikoen jardunean, aldiz, euskarak hizkuntza subsidiario izaten jarraitzen du nahiz eta Euskal Herriko berezko hizkuntza izan.

Ipar Euskal Herrian ofizialtasun aitortzarik batere gabe administrazioan euskaraz aritzeko aukerak, hemen bezain urri edo urriagoak. Frantziako Estatuak Euroituna sinatuko zuen itzaropena bazen François Hollande Frantziako lehendakariak euro-ituna berretsiko zuela hitz eman baitzuen. Baina beste behin ere, ez du hitza errespetatu. Hortaz, Estatu frantsesa euro-ituna oraino berretsi ez duen Europako estatu bakarretariko bat da.



Gabezia horri erantzun bat aurkitu nahian, Paul Molac diputatu bretoiak lege proposamen bat mahaigaineratu zuen tokiko hizkuntzen murgiltze ereduko irakaskuntza eta espazio publikoan zein ikus-entzunezko eremuan sustatzeko asmoz. Lege proposamenak aukera berri franko zekartzen berez, eta aldi berean ez zituen frantziar Estatuaren baloreak urratzen. Zentzu berean, 2008-an Konstituzio frantsesari gehitu zitzaion artikuluari –“tokiko hizkuntzak Frantziaren ondarearen parte dira”- zentzu gehiago ematen zion, ideiaren gauzatzeko parada eskaintzen zuen alegia. Zoritxarrez, bozketa ez da irabazi, boz bat eskas zela. Alta, legebiltzarraren parte handi bat alde zenez, horrek pentsarazten du tokiko hizkuntzak nolabaiteko jukutria politiko baten biktima izan direla. Tokiko hautetsiek ez dute bozketan parte hartzeko garrantzia ikusi gainera. Oraingoan ere, tokiko hizkuntzen gaia eskuina eta ezkerren joko politikorako tresna hutsa bezala erabili dute.

Gauzak horrela, Euskal Herriko administrazioetan euskarak bertako hizkuntza izan arren bigarren mailako hizkuntzaren trataera duela erakusten duten adibide ugari aurki ditugu Hizkuntza Eskubideen Behatokiak 2015 urtean jasotako kasuen artean.

Langile publikoengana euskaraz zuzendu eta *“perdona, no entiendo”, “en castellano!!”, “mal empezamos si me hablas en euskera”, “erdaraz mesedez”, “¿no sabes hablar castellano?”* eta gisako erantzunak, ohikoak izan dira 2015 urtean.

Era berean, eguneroko ogi ditugu erdara hutsezko jakinarazpenak, sms mezuak, agiri ofizialak:

DIRECCION GENERAL DE TRAFICO
JEFATURA PROVINCIAL DE TRAFICO
NAVARRA

MINISTERIO DEL INTERIOR

AUTORIZACIÓN TEMPORAL PARA CONDUCIR

AUTORITZACIÓ TEMPORAL PER (A)CONDUIR
AUTORIZACION TEMPORAL PARA CONDUCIR
ALDI BATERAKO GIDATZEKO BAIMENA

1. DNI-NIE:	2. CLASE DE PERMISO O LICENCIA:	
3. APELLIDOS:		
4. NOMBRE:		
5. OBSERVACIONES: 01		
6. LUGAR DE EXPEDICIÓN:	7. FECHA DE EXPEDICIÓN:	8. VÁLIDO HASTA:

1.- DNI-NIE / DNI-NIE / NAN-AIZ 4.- Nom / Nome / Izena
 2.- Clase de permiso o licencia / Clase de permiso ou lizenzia / Gidatzeko baimen edo lizenzia mota
 3.- Cognoms / Apellidos / Abizenak 5.- Observacions / Observaciones / Oharrak
 6.- Lloc d'expedició / Lugar de expedición / Baimena emandako toki
 7.- Data d'expedició / Data de expedición / Baimena emandako data
 8.- Vàlid fins a / Válido ata / Noz arteko balioa

VÁLIDA PARA CONDUCIR POR ESPAÑA SI VA ACOMPAÑADA DE UN DOCUMENTO OFICIAL DE IDENTIFICACION

VÁLIDA PER A CONDUIR PER ESPANYA SI VA ACOMPANYADA D'UN DOCUMENT OFICIAL D'IDENTIFICACIÓ / VÁLIDA PARA CONDUCIR POR ESPAÑA SE VAI ACOMPANYADA DO DOCUMENTO OFICIAL DE IDENTIFICACION / ESPAINIAN GIDATZEKO BALIAGARRIA DA. BAINA NORTASUN AGIRI OFIZIALEN BATEKIN BATERA

Bizkaiko Foru Aldundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Foraldea
 Departamento de Obras Públicas

Se informa a los vecinos del barrio de Rekalde que los trabajos diurnos y nocturnos en el puente de Rekalde se van a prolongar durante las siguientes 2 semanas, del 2 al 13 de Marzo.

Sentimos las molestias ocasionadas, se ha buscado el menor impacto posible tanto a usuarios de la vía como a los vecinos de la zona.

Por último agradecemos su paciencia y buena voluntad durante estos días.

adif Estaciones de Viajeros

SERVICIO DE ATENCIÓN AL CLIENTE

JUSTIFICANTE DE DEMORA

FPEC05.08
Página 1 de 1
Revisión: 2
Fecha: abril 2006

Tren LODIO número _____ que tenía prevista:

A) su LLEGADA a la estación de BILBAO el día _____ a las _____ horas, la efectuó a las _____ horas, con una DEMORA en la LLEGADA de 35' minutos.

B) su SALIDA de la estación de _____ el día _____ a las _____ horas, la efectuó a las _____ horas, con una DEMORA en la SALIDA de _____ minutos.

C) su SALIDA de la estación de _____ el día _____ a las _____ horas, NO CIRCULÓ.

Estación de INT. ABANDO INDALECIO PRIETO, a _____ de _____ de 200__

El/La Supervisor/a Comercial,

Rellénesse la única opción (A, B ò C) que corresponda

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Área de Participación Ciudadana, Juventud y Deporte
Servicio de Comunicación

Herritarren Partaidetza, Gazteria eta Kirol Alorra
Komunikazio Zerbitzua

NOTA DE PRENSA

El Servicio de Promoción Empresarial cierra tras siete años de apoyo al emprendimiento, debido a un cambio normativo estatal que modifica las competencias municipales

Ayuntamiento y Gobierno estudian fórmulas de colaboración para seguir teniendo en la ciudad un espacio de atención a los emprendedores

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

AVISO DE COMPARECENCIA
ENTREGA DE COPIAS DE NOTIFICACION

RECAUDACION EJECUTIVA

Habiéndole remitido a Ud. una notificación desde esta dependencia para exigir el pago de un expediente de apremio y no encontrándose Ud. en su domicilio, se le remite copia de la misma, con la que poder hacer el pago en cualquier oficina de las que se le indica en la notificación.

Se le hace saber que de no pagar o de no personarse en nuestras oficinas, para la recepción formal de la notificación, esta y la providencia de apremio se publicará en el Boletín Oficial de Navarra, mediante el Edicto correspondiente, continuándose el procedimiento de apremio hasta su finalización sin hacer más diligencias en su busca.

EL RECAUDADOR EJECUTIVO.

EJ-GV

F. ALTA CON INTERMEDIACION. Renovada en fecha 19/05/2015. Fecha limite proxima renovacion: 19/08/2015. Huella: _____ REN

mai. 20, 10:38

LANBIDE: _____ F. ALTA CON INTERMEDIACION. Renovada en fecha 19/05/2015. Fecha limite proxima renovacion: 19/08/2015. Huella: _____ REN

Gaur

14:56

LANBIDE: _____ F. ALTA CON INTERMEDIACION el 10/06/2015. Fecha limite proxima renovacion: 19/08/2015. Huella: _____ INS

GAUR

TGSS informa: Si ha comunicado su teléfono a la TGSS, podrá acceder a la Comunicacion anual a trabajadores en nuestra Sede Electronica <https://goo.gl/2Rwgz9>

14:43

Inprimakiak bete behar eta euskarazko alerik ez egotea,

“Baionako mediatekan izena emateko fitxa frantses hutsean da. Hala izanik ere euskaraz bete dut, besteak beste, “karrika” emanez eta nire izena “uy” grafiarekin eman ordez “i”-rekin emanez. Idazkaria haserretu zait eta mespretxuzko jarrerarekin hartu nau, hola ezin zela aritu deitoratuz”.

Geroztik, iduriz izen-emate fitxa ele bitan jarri dute, baina frantsesa lehenetsiz.


Webguneetan informazioa euskaraz ez eskegitzea, edo erdizka soilik jartzea euskaraz.

Informazio euskarrietan euskarak tokirik ez izatea




Aplikazio informatikoak euskaraz aritzeko prestatu gabe egotea.

Komunikazio kanpainenetan euskara aintzat ez hartzea.



Erabiltzen den euskararen kalitatea batere ez zaintzea...

“Baionako turismo bulegoak argitaratu azken esku-orria euskara hutsean eskaintzen da. Pausu garrantzitsua da berez, Euskal herritar gisa, turismoa eta aisia ere euskaraz bizi ahal izateko. Zoritxarrez, akatsez emokatua da! Euskarara itzultzeaz gain, hizkuntzaren kalitatea zaintzea ere komeni da. Frantsesaren kasuan seguru aski ez ziren horrelako gramatika akatsak onartuko. Euskarak arreta bera merezi du”.



HERRI-AGINTARIEN UTZIKERIA

Espainiako Estatuak 2001 urtean berretsi zuen Europako Erregio eta Gutxiengoen Hizkuntzen Karta. Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak eta Adituen Batzordeak Euroitunaren bidez hartutako konpromisoak zer neurritan bete diren aztertzen dute hiru urtetik behin, eta emaitzaren arabera gomendioak luzatzen dizkiete estatu eta erregio agintariei egoera bideratzeko hartu beharreko neurrien inguruan. Adituen Batzordeak 4 ebaluazioaldi egin ditu Euskal Herrian, eta horietan guztietan langile euskaldunen kopurua handitzeko neurriak eskatu dizkie Estatuko nahiz autonomia erkidegoetako agintariei, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanetan euskara erabiltzeko aukera izan dezaten.

Ituna berretsi eta 14 urtera irakasle lanpostuak kenduta, Nafarroako Gobernuan % 0,6 dira hizkuntza eskakizuna duten lanpostuak. Eusko Jaurlaritzan batz-beste administrazio orokorreko langileen %36,4k du egiaztatuta hizkuntza-eskakizuna. Hala ere, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, udalek eta mankomunitateek 2015 urtean egin dituzten lan deialdi publiko zenbaitetan, edo aldi baterako beharrei erantzuteko lan poltsak osatzeko deialdietan herritarrekiko harremana euskaraz izatea eragotziko duten neurriak hartu dituzte.

“Nafarroako Gobernuak haurren hezitzaile lanpostuak betetzeko izangaien bi zerrenda hautapoben bitartez osatzeko deialdia argitaratu du Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Zerrenda bat aldi baterako kontratazioak egiteko izango da eta, bestea, zerbitzu berezien egoeran prestakuntza izateko. Aurkeztuko direnei ez zaie euskaraz jakitea eskatuko, ez nahitaezko baldintza bezala, ez eta merezimendu gisa ere. Nafarroako Gobernuak ez du baldintzarik sortuko zerbitzua euskaraz nahi duten herritarren eskaerei erantzun ahal izateko”.

“Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ikastetxe publikoetan garbiketa eta sukaldaritzan aldi baterako premiak betetzeko zerrendetan izena emateko epea ireki du eta izena emateko ez da euskararen ezagutza kontuan izango. Ondorioz, litekeena da euskaraz diharduten ikastetxeetara euskaraz ez dakiten langileak bidaltzea”.

“Nafarroako Gobernuak mantentze lanetako ofizial izateko 28 lanpostu huts, C mailakoak, lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia argitaratu zuen otsailaren 26ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean. Euskaraz jakiteagatik emango den puntuazioa ez da iristen 55/2009 Dekretuan ezarritako gutxienezkoa”.

“Aezkoako Batzarre Nagusiak ostiralean egindako batzarrean onartutakoaren arabera, lan-deialdi baterako eskatuko den euskararen ezagutza Batzarre Nagusiak 2013an hartutako erabakian jasotakoa baino apalagoa izanen da. Lana Irati basoan aritzeko da; langileen betebeharren

*artean bisitariei azalpenak ematea dago, informazio-gunea kudeatzea...
Aezkoan euskara ofiziala da eta bisitarien ehuneko handia euskalduna”.*

*“D-Bus konpainian akordio batera ailegatu dira UGT sindikatuarekin
gidari berrien euskararen ezagutza tasa murrizteko. Akordioaren arabera,
hemendik aurrera gidarien %40ri ez zaio euskaraz jakitea eskatuko”.*

*“Osasunbideako Lehen Arretako Profesionalen Zerbitzu Buruak
91E/2015 Ebazpena eman du administrari laguntzaile, erizain eta mediku
lanpostuak aurretiazko barne egokitzapen prozedura bidez (lekualdatze
lehiaketa) betetzeko. Eremu euskaldunean aritzekoak diren arren, zenbait
lanpostutan ez da euskaraz jakitea galde egiten ez eta merezimendu gisa
baloratzen ere”.*

Nafarroan, aldetaren Gobernuak Europako Ministroen Kontseiluak eta Adituen Batzardeak emandako gomendioak kontuan hartuko dituela jakinarazi du berriki. Hala ere, lehen lan deialdi publikoan, Hezkuntzakoan, euskarazko hezkuntza-beharrei erantzuteko aurreikusitako irakasle kopurua baino 120 lanpostu gutxiago atera ditu oposizio-lehiaketara alderdi eta sindikatu erdalzaleen kritikak isilarazi nahian. Gainera kontratazio zerrenda bakarraren alde egin ordez, zerrenda bereziak mantenduko ditu euskarazko eta gaztelaniazko lanpostuetarako, irakasle euskaldunek “abantailarik” izan ez dezaten gaztelaniaz bakarrik dakitenen aurrean. Modu berean, Osasunbidean lan deialdi publikoa egingo duela iragarri du. Baina lanpostuak hornitzeko deialdia egin aurreko lekualdatze lehiaketan ez da kontuan hartu euskaraz jakitea, ez baldintza bezala ez eta merezimendu gisa ere. Ondorioz, euskaraz ez dakiten profesionalak ari ahalko dira destinoa eremu euskaldunean duten lanpostuetan.

Herri agintariak zerbitzua euskaraz emateko gai ez diren eta zerbitzua euskaraz emango badute euskalduntze programetan sartu beharko dituzten langileak kontratatzen ari dira, beraz. Hizkuntza eskubideen bermearen ikuspegitik bideratzen ari diren kontratazio politika guztiz desagokia da, diru-publikoen kudeaketaren ikuspegitik tamalgarria.

Horrekin batera, herri aginteen lidergoa eta erantzukizuna ez dira inondik ageri administrazio publikoan euskararen erabilera normalizatzeko neurri proaktibo eta positiboan sustatzaile gisa.

Horrela, Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusiaren, V. Plangintzaldiko egitasmoan (2013-2017) euskarazko bertsioa beti eskuragarri izateko baliabide informatikoak egokitzea lehen helburuko neurri gisa ageri bada ere, honako salaketa helarazi du Behatokira Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko Bizkaiko ordezkariak langile batek:

*“Urtarrilean itzuli nintzen nire lanpostura denboraldi bat eszedentzian
eman ondoren. Orduan bertan jakin nuen aplikazio berri bat jarriko
zigitela, SAP delakoa, beste sail batzuetan aspaldian erabiltzen ari direna
antza, eta inork ez zekien esaten euskaraz erabiltzeko aukerarik izango*

genuen. Apirilean aplikazioan trebatzeko ikastaroak antolatu zituzten ordezkarietzako langileentzat, ikastaroa euskaraz egiteko aukera eman barik. Ikastaroaren lehenengo egunean, aplikazioaren euskarazko bertsioaz galdetu nuenean ez zegoela eta ez zela egongo erantzun zidaten. Eta bertan erabaki nuen planto egitea, ez nuen ikastaroa egin eta nire nagusiei jakinarazi nien ahoz nik ez nuela aplikazio hori erabiliko. 9 hilabete joan dira ordutik, baina aplikazioa euskaraz erabiltzeko aukerarik gabe eta inolako azalpenik gabe jarraitzen dut”.

“Donostiako Udaltzaingoaren egoitzan (Easo kalea) izan naiz gaur salaketa bat jartzen. Euskaraz hasi naiz mostradorean, eta euskaraz erantzun didate lehen datuak eta hartzerakoan. Salaketa bat egin nahi nuela, eta pixka bat itxaron behar izan dut, izapideak egiteko agentea etorri arte. Harekin ere, euskaraz jardun dut, momentu guztietan, baita salaketa egiterakoan ere. Baina nire harridurarako salaketa sinatzeko orduan, gaztelaniaz idatzita zegoela ikusi dut. Agenteari galdetuta jakin izan dut, ordenagailuaren programa gaztelaniazko zela eta, salaketa gure hizkuntzan egin nahi izanez gero, eskuz bete behar dela inprimakia! Laburbilduz, badela salaketak eta bestelakoak gaztelaniaz egiteko programa bertan, baina euskarazkorik ez, nahiz eta niri kasu egin didaten bi agenteek euskaraz txukun jardun. Gabezia potoloa ezta? Noizko programaren euskarazko bertsioa?”.

Udalak erantzun du herritarren salaketak jasotzeko aplikazio informatikoa euskaraz ere erabilgarri dagoela, baina muga batzuk dituela. Gaztelaniazko bertsioak laguntza menu batzuk badauzkala, eta denak ez daudela oraindik euskaratuta, baina urte honetan bertan menu guztiak euskaraz egotea espero dutela.

Kontratazio administratiboekin gauza bera gertatzen da. Erakundeek euskararen erabilera arautzeko xedapenetan jasota dute kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak eurek emanak izango balira bezala hartzeko eskubidea dutela herritarrek hizkuntzari dagokionean. Hala ere, euskara erabiltzen ez duten enpresei buruz galdetu izan zaienean, maiz aitortu dute zerbitzua kontratatzeko baldintzetan ez zaiela hizkuntza betebeharririk zehaztu.

Gaia:290-2015 dossier zenbakia. Erantzuna
Data:Wed, 3 Jun 2015 13:52:18 +0200
Nork: @donostia.es>
Nori:telefonoa@behatokia.eus

Egun on!

Honekin batera igortzen dizut 290-2015 dossier zenbakiari dagokion erantzuna.

KEXAREN ZIOA

Herritarrek honela azaldu zuten bere kexa 2015-05-17an: Atzo arratsaldean Donostiako Anoeta Miniestadioan izan ginen Euskadiko Kadeteen Pistako Atletismo txapelketan. Mikrofonoan zegoen pertsonak gaztelania baino ez zuen erabili azalpenak emateko garaian, ez genuen euskaraz hitzik entzuteko aukerarik izan.


Donostiako Udalean, 5. Euskara Planaren bidez, udal instalazioen eta materialen erabilerarako hizkuntza irizpideak ezarrita daude, eta, irizpide horien arabera, udal instalazioak eta materialak erabiliz antolatzen diren ekitaldiei loturik zabalitzen diren idatzi, iragarki, ohar, bartel eta gainerakoak (ahoz nahiz idatziz) euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, eta hizkuntza horietan egingo da ekitaldiaren publizitatea eta zabalkundea; horrez gain, herritarrei harrera egiteko langileek bermatu egin beharko dute euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin.

Horretan oinarriturik, instalazioen erabilera alokatzeko egiten diren hitzarmenetan zehatz adierazita daude goian aipatzen diren irizpideak, baina kirol ekitaldietarako alokatzen diren instalazioen hainbat kasutan ez dago honelako hitzarmenak sinatu beharrik, eta, askoz izapide xumeagoen bidez egiten direnez, gaur egun, oraindik, ez da hizkuntza irizpideen ezarpenik agerian jartzen, beraz, antolatzaileek ez badute arlo hori kontuan hartzen, berez, ez dute bere alokairu baldintzei loturiko inolako urraketarik egiten.

Garbi dago, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeari begira, Udalari badagokiola arlo hori hobeto aztertu eta arautzea. Zalantzarik gabe, eragin beharra dago eta, dagoeneko lantzen ari garen bidetik, espero dugu gai hori, luze gabe, behar bezala bideratu ahal izatea.

Adeitasunez,

Iune Ekosegi Etxabe
Euskara Zerbitzua - Bulego burua
iune_ekosegi@donostia.eus
www.euskaraz.eus
www.merkatari.eus
Tf: 943 483756 - Faka: 943 483765
Konstituzio plaza 2. behea. 20003
Donostia.



Gaia:RV: PÁGINA WEB GESTOR
Data:Wed, 2 Sep 2015 11:24:04 +0200
Nork: @pamplona.es>
Nori:telefonoa@behatokia.eus


En relación a su escrito del pasado 25 de agosto, sobre la omisión del euskera en la página web de las piscinas de San Jorge, les informamos que, al igual que se hizo en una ocasión anterior, hemos transmitido su queja a la empresa que gestiona el complejo deportivo, ya que esas instalaciones no se gestionan directamente por el Ayuntamiento, sino a través de un contrato de asistencia. La página web es una propuesta o mejora del servicio que ofertó la actual adjudicataria, Gesport SL. El servicio actualmente está prorrogado y próximamente se abrirá un proceso de contratación en el que sería convenientemente que en el pliego de condiciones figurara explícitamente el compromiso con el euskera.

Atentamente,

Secretario Técnico Participación Ciudadana, Juventud y Deporte
Ayuntamiento de Pamplona
@pamplona.es
Tel. 948

Beste batzuetan, hizkuntza irizpideak ezarri arren ez dute betetzeari buruzko jarraipenik egiten eta herritarrek ezin izaten dituzte zerbitzuak eta informazioak euskaraz jaso.

“IAT Ibilgailuen Azterketa Teknikorako Zornotzako emakidadunak ez ditu euskaraz bidaltzen sms-ak. Eusko Jaurlaritzak egingo ote du behingoan zerbait legedia bete dadin, euskaldunon eskubideei dagokienez? IAT Jaurlaritzaren ardura da-eta”.



Inoiz, erakundeek hizkuntza-irizpideak betearazteko duten ardura gainera kentzen dute, elebitasuna errespetatu ez izana zerbitzua ematen duten enpresei egotziz.

BARAKALDOKO UDAL GORENA
ILLUSTRE AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO
KULTURA, HEZKUNTZA, EUSKARA ETA KIROLAK, GAZTERIA, ETA KALITATEA ARLOA
KULTURA, HEZKUNTZA, EUSKARA, EDUCACIÓN, EUSKERA Y DEPORTES, JUVENTUD Y CALIDAD

Garbiñe Petriati Ijurrea
Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren zuzendaria
Marcelo Zelaia etorb. 75, U3 eraikina, 13. bulegoa
31014 Irueña

ETA NO ETA EZ

AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO
REGISTRO GENERAL
Eguna: 12 MAR. 2015
Fecha: 12 MAR. 2015
Za: /DOK. 486
Za: /DOK. 486
IRTEERA - SALIDA

Andere hori:
Joan den martxoaren 9an Hizkuntza Eskubideen Behatokiak bidalitako kexari erantzunez (148-2015 dossier-zenbakia), Barakaldoko Udalak onartzen du joan den otsailaren 21ean, Arte Eszenikoaren egitarauaren barnean eskainitako "Sevillako bizargin txikia" operarekin gertatutakoa.

Egia da Arte Eszenikoaren publikitatean "Mintzatu, euskaraz / Kantatu, italieraz" iragarri zela, Barakaldoko Udalar, Ópera Divertimento konpainia kontratatu zuenean, halaxe izango zela jakinarazi baitzitzaion.

Kexa jarri duen herritarrek salatu duen bezalaxe, hasierako aurkezpena baino ez zen euskaraz egin. Edozein modutan ere, ez dugu aste Barakaldoko Udalar inolako lege urraketarik leporatu behar zaionik, kasu honetan Barakaldoko Udala engainu baten biktima izan baita.

Antzezlanari hasi zen unean jakin zuten Barakaldoko Udalak obra, nagusiki, gaztelaniaz antzeztuko zela eta une horretan okerragoa izango zen antzezlanari geldiarazi eta bertan bertan guztiak ezer ikusi gabe etxera bidaltzea.

Honen aurrean Barakaldoko Udalak konpainia hori berriz ere ez kontratatzea erabaki du.

Halakorik errepikatuko ez delakoan,
Adegitasunez,
Atentamente,
Barakaldo, 2015eko martxoaren 11
Carlos Fernández Martínez
Kultura, Hezkuntza, Euskara, Kirolak, Gazteria eta Kalitatea arloko zinegotzi delegatua

En contestación a la queja enviada el pasado 9 de marzo desde el Observatorio de Derechos Lingüísticos (Nº de dossier: 148-2015), el Ayuntamiento de Barakaldo reconoce lo sucedido el pasado 21 de febrero con la ópera "Sevillako bizargin txikia" ofertada dentro del programa municipal de Artes Escénicas.

Es cierto que en la publicidad del programa Artes escénicas se anunciaba "Lo hablado, euskera / lo cantado, italiano", ya que así se le hizo saber al Ayuntamiento en el momento de la contratación de la compañía Ópera Divertimento.

Tal como ha denunciado el ciudadano o ciudadana que ha interpuesto la queja, sólo se realizó en euskera la presentación inicial. No obstante, no creemos que se deba acusar al Ayuntamiento de Barakaldo de vulnerar ninguna ley, ya que en este caso el Ayuntamiento de Barakaldo no ha sido sino una víctima de un engaño.

El Ayuntamiento de Barakaldo no tuvo conciencia del problema hasta que no estaba la obra de teatro en marcha; por lo que hubiera sido mucho peor el haber parado la representación y haber enviado a todos los espectadores a casa sin ver nada.

Ante esto, el Ayuntamiento de Barakaldo ha decidido no volver a contratar a dicha compañía.

Confiamos en que algo así no vuelva a suceder.

Herrito Plaza, 1 - 48901 BARAKALDO - Tel: 947350100 - e-mail: ayuntamiento@barakaldo.org - http://www.barakaldo.org - FJL/CJL/P-48-01700-H

Gauzak horrela esan genezake, kontratu bidez emandako jarduera eta zerbitzuetan erakunde publikoen arduragabekeria tarteko, herritarren hizkuntza-eskubideak zaintzarik gabe gelditzen direla, eta aldiz, hizkuntza-betebeharrak ez betetzea zigor gabe.

AUKERA BERDINTASUNA?

EAE n euskararen erabilpena arautzen duen 10/1982 Legeak honela dio 4. artikuluan: *Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntzagatik inor diskriminatua izan ez dadin herri-aginteei ardura izan eta behar diren neurriak hartuko dituzte.*

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legeak honakoa xedatzen du 3.1. artikuluan: *Botere publikoek beharrezko diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza dela eta herritarrak diskriminatuak izan ez daitezen.*

Hizkuntz Eskubideen Behatokia 2015 urtean jaso diren kexei erreparatuz ez genuke esango botere publikoak fin dabilzanik euskal hiztunen aukera berdintasuna bermatzeko neurriak bideratzeko garaian. Zerbitzu, ikastaro, kultur egitasmo eta bestelako ekitaldi eta jardueretan ez dago orekarik euskaraz eta gaztelaniaz burutzen diren jardueren artean. Jarduera eta zerbitzuak euskaraz nahi dituen herritarrak oso mugatua du aukera, ez hautazko jardueretan soilik, baita derrigorrezkoak direnetan ere.

“Araudi berri baten ondorioz, nekazaritzarako produktu fitosanitarioak erosteko (monodosietan izan ezik), 2016ko Urtarrilaren 1etik aurrera derrigorrezkoa izango da fitosanitarioen inguruko kurtso bat egitea. Kurtso hori Fraisoro eskolak eskaintzen du inguruotan. Azken hilabeteotan 3 kurtso eskaintzekoa da eta guztiak espanyolez izango dira. Izena emateko deituta esan didate ez dagoela euskarazko kurtsorik eta balio ez didaten bi arrazoi eman dizkidate: talde handiak direnez, ikasle batzuek ez dakitela euskaraz, batetik; eta teknikari batzuek ez dakitela euskaraz, bestetik”.

“Lanbidek eskaintzen dituen kurtsillo guztiak gazteleraz dira. Ez dut ikastaro bat bera aurkitu euskaraz.

Urrietako Udalaren 2015/2016 ikastaroetan 47 ikastarotik 15 bakarrik dira euskaraz! Heren bat besterik ez!”

“Azken egunetan datozen asteetarako kultur eskaintza jaso dugu Eguesibarko etxeetan. Besteak beste, Halloween festaren ingurukoak eta azaroaren 25aren ingurukoak jaso ditugu. Eta beste behin ere, ibarreko euskal hiztunak ez gaituztela kontuan hartzen ikusi ahal izan dugu. Haurren eskaintzaren barruan eginen diren bost jardueretatik bakararra eginen da euskaraz. Hurrengo hilabeteetan haur eta helduentzako bost tailer antolatu ditu udalak, eta guztiak gaztelaniaz. Azarorako antolatutako antzerki zikloan 4 lan eskainiko dira, euskaraz bat bera ere ez. Hau ez da berria: duela hilabete batzuk urterako kultur ikastaroen eskaintza jaso genuen eta hor ere ez zegoen euskaldunentzako eskaintzarik”.



Teatro Gayarre

Banda Municipal de Música

LA PAMPLONESA

Lunes
12 de octubre 19.00 h.
"Música sinfónico-latina"
Dirección: **Vicent Egea**
Entrada: 4 €

Sábado
31 de octubre 20.00 h.
Domingo
1 de noviembre 19.00 h.
"Ellas y la Pamplonesa"
Dirección: **Jesús Garisoain**
Cantantes: **Aurora Beltrán,**
Airam Etxaniz, Joli
Pascualena y Naiara Ruz
Entrada: 10 €

Domingo
15 de noviembre 12.00 h.
Dirección: **Jesús Garisoain**
Colaboración con el **Aula**
de Acordeón de los
conservatorios Superior
y Profesional de Navarra
Entrada: 4 €

Sábado
28 de noviembre 20.00 h.
domingo
29 de noviembre, 19.00 h
"Una tarde de zarzuela"
Dirección: **Vicent Egea**
Coro Premier Ensemble
de AGAO
Entrada: 10 €

Domingo
20 de diciembre 12.00 h.
"Concierto de Navidad"
Dirección: **Vicent Egea**
Entrada: 4 €

ABONOS
3 matinales + 1 vespertino **16,5 €**
3 matinales + 2 vespertinos **24 €**
3 matinales **9 €**
(A efectos de abono el concierto del 12 de octubre será considerado matinal)



Teatro Gayarre

Programación
octubre 2015-enero 2016



Red
de Teatros
Auditorios,
Circuitos y
Festivales

twitter.com/teatro.gayarre
facebook.com/teatro.gayarre
www.teatrogayarre.com

Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala

GAYARRE ANTZOKIA UDAL FUNDAZIOA

FUNDACIÓN MUNICIPAL TEATRO GAYARRE

Avda. Carlos III, 3 31002 Pamplona.
Tels. 948 206 593 (oficinas), 948 220 139 (taquillas)

JOKABIDE ARDURATSUAK AUZIPEAN

Euskal hiztunen hizkuntza-eskubideen bermeak eta aukera berdintasunak gabezia handiak dituen testuinguru honetan, Euskal Herriko hainbat udalek Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean antolatzea erabaki zuten herritarrei euskaraz bizitzeko eskubidea bermatu eta euskarazko zerbitzu osoagoa eskaini nahian.

Espainiako Estatuak Euskal Autonomia Erkidegoan duen Gobernu-ordezkarriak, ordea, auzitegietako bidean jarri ditu, erabaki horren aurkako helegitea aurkeztuz, UEMARA sartuta «udalek dituzten eskumenak gainditzen dituztela» argudiatuta.



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**

UEMAN sartu izanagatik ez ezik, hainbat udalek onartu dituzten hizkuntza-irizpideen aurka ere jo du gobernu-ordezkarriak, batzuetan irizpideak osorik errekurrituz, beste

batzuetan atal jakin batzuk auzitan jarritz, euskara planak baliogabetzeko eskatuz edo aktak euskara hutsean bidaltzeagatik epaitegietara eramanez.

Eusko Legebiltzarrak babesa eta Eusko Jaurlaritzak laguntza juridikoa eskaini zieten aktak euskara hutsean bidaltzen dituzten udalei, euskarak gobernu-ordetzkaritzan ere ofizialtasun osoa duela gogoraraziz. Epaitegiak udalen

aldeko sententziak ematen hasi dira. Hala ere, gobernu ordezkariak temati jarraitzen du bi hizkuntzen berdintasunaren alde hartutako erabaki ooren aurka.



ONDORIOAK

Herri aginteen ardura da administrazio zerbitzuak modu egokian antolatzea eta eraginkorrak izateko beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialez hornitzea. Euskal Herriko administrazio zerbitzuen arduradunek oro har, salbuespenak salbuespen, ez dituzte behar besteko neurriak eta bitartekoak bideratu, ez alde batera, ez bestera, erabiltzaile euskaldunek administrazioarekin euskaraz eta normaltasunez jardun ahal izateko. Eta horrela gaude, administrazio zerbitzu orokorretan euskararen erabilera normalizateko lehen plana abiatu zenetik 30 urte joan direnean, tramiteak euskaraz burutu nahi eta ezin, ez aurrez aurreko arretan, ez telefono bidezkoan, inprimakiak aurkeztu behar eta euskarazko alerik ezin eskuratuz, administrazioaren jakinarazpenak (sms mezuak, mezu elektronikoak, gutunak...) eta agiri ofizialak gaztelania edo frantses hutsean jasotzen baliabide informatikoak euskaraz aritzeko prestatu gabe daudelako,, informazio kanpainetako euskarrietan (kartelak, esku-orriak, iragarkiak...) euskara guztiz baztertuta, bigarren mailan edo atzerriko hizkuntzen pare dela, euskaraz zabar eta trakets idatzitako testuekin ...

Herri-aginteen eginbeharra da, era berean, herritarren hizkuntza-eskubideak zaindu eta babestea hizkuntzagatik diskriminatuak izan ez daitezen, baina horretan ere ez dira fin ibili agintariak. Administrazioarekin euskaraz jardun nahi duen herritarrak, ohitu egin behar izan du erantzun zakarrak jasotzera, langile euskaldunak noiz libratuko zain egotera, euskarazko euskarriak eskura ez izatera, izapideak nola atzeratzen diren ikustera, erdaldunek dituzten baino aukera urriagoekin konformatu behar izatera (ikastaroak, kultur jarduerak, ...)

Botere publikoek ez dute behar besteko lidergo eta gizarte-erantzukizunik erakutsi administrazio zerbitzuetan euskararen erabilera normalizatzeko, baliabide publikoen kudeatzaile gisa lidergoa eurei zegokien arren.

Beste behin ere, herritarrek hartu behar izan dute ardura eta erantzukizuna, euskaraz jarduteko eskubideari irmo eutsi eta hutsuneak non dauden azalaraziz. Berriki agintari batek akuilu lanaren beharra aipatzen zuen euskararen normalizazioak lehentasuna har dezan erakundeetan. Akuilu lana egiten da. Agintariak esnatu eta euskara berdintasunera ekartzeko neurri ausartak hartzen hastea da falta dena.

euskaraz
biziki
nahi du



6. KULTURA, AISIALDIA, KIROLA

Oro har, kultura eta aisialdi giroan euskarak ez dauka toki nagusirik. Alboan dituen hizkuntza indartsuek betetzen dute kultura eta aisialdi gertakarien espazioa. Zinemaren, dantzan, antzerkian, argitalpenetan eta abar euskararen presentzia ez da funtsezkoa.

Euskaraz bizitzeko hautua egin duen pertsonak oztopoak aurkitzen ditu oraindik orain kultura edo aisialdiko jardueraz euskaraz gozatu nahi duenean. Erakunde publikoek antolatutako ekimenetan edo haien laguntzarekin antolatzen direnetan, zein iniziatiba pribatukoetan, guztietan aurkitu dituzte hutsuneak herritarrek.

Orohar, euskarazko ekitaldiek, hala nola hitzaldiek, eztabaidek, mediateketan antolatu liburuen aurkezpenek ez dute merezi duten arrakasta biltzen, esku hartzaileak kalitate handikoak izanik ere.

Iruñeko Udalak jaso zuen kexa honetan, euskarazko programazioaren gabeziak geratzen ziren agerian kexa bakarrean:

“Iruñeko Udalak udarako antolatu kultur ekitaldietan euskararen presentzia hutsaren hurrengoa da: A) Kalean eskaintzeko programatutako 22 zine emanaldietatik bakarra ere ez da euskaraz. B) Mota askotako musika emanaldiak antolatu ditu: Arrakastatsiak & Klasikoak, Dantza, Jazza, Fusio-musika, Sabikerando, Alternatiboa-Indiea, Off Zitudadela, bertsionatuz, Haizea alde joaz, Sinfonikoa Nafarroan, Nafarroako Musika Garaikidearen Jaialdia eta Pablo Sarasateren ondarea. Euskarazko musikari eskainitako tartea oso txikia da. C) Ikastaroak eta bisita gidatuak, hurrendako gunea, gazte-faktoria, lehiaketak eta deialdiak, erakusketak... Iruñeko Udalak ez gaitu hiritar euskaldunak kontuan hartu. D) Iruñeko Udalarena den Gayarre Fundazioak udarako programatutako zortzi antzerki lanetatik bakarra ere ez da euskaraz...”



Herritar euskaldunen hizkuntza-eskubideen bermean badauka zer hobetu Iruñeko Udalak. Herritarrak zioen moduan *“pentsa dezakegu kultur eredu berriak iritsiko direla aldaketa politikoa gauzatzen den heinean”*. 2015eko udan, ordea, aurreko inertziak agindu du.

Ahozko harremanetan ere euskaldunak maiz jo behar izaten du erdarara han eta hemen, hemen eta han.

“Iruñeko Condestable Udal Jauregian sartu nintzen eta harreran zegoenari galdera luzatu nion. Euskaraz ez zidala ulertzen aipatu zidan”.

“Pasa den hilabetean, ‘Le temps d’Aimer’ festibalaren webgunean nintzen, txartel batzuk hartu nahian. Nola ez nuen ongi ulertzen erreserba egiteko funtzionamendua ‘Biarritz Culture’ bulegora deitu dut. Harreran zen langileak ezin izan dit euskaraz erantzun”.

Museoetan eta udaltegietan ere arazoak izan dituzte herritarrek ahozko arreta eta zerbitzua euskaraz jasotzeko.

“Nafarroako Museoak 5 urtetik aurrerako haurrentzako tailerrak antolatu zituen pazko-astean kultur ondarrera era ludiko, didaktiko eta sortzailean hurbiltzeko. Tailerrak erdara hutsean eskaini zituen, Iruñerrian D ereduan eskolatutako haurren multzoa nahiko handia den arren”.

“Nafarroako Museoak bisita gidatuak eskaintzen ditu udan, dohainik. Ez dago euskarazko bisitak egitea aurreikusita”.

“Gaur, otsailak 5, goizeko 11etan, Bilboko Udalak antolatzen duen Musikaz Musika programaren barruan, ikuskizun bat ikustera joan dira Galdakaoko Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko 160 ikasle eta saioaren aurkezpena gaztelaniaz egin dute...”.

Nafarroako Foru hobekuntzari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikulua dio euskara ofiziala izango dela Nafarroako zonalde euskaldunetan. Eta Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 6. artikulua dio herritarrei administrazio publikoekin harremanetan euskara zein gaztelania erabiltzeko eskubidea aitortzen zaiela. Herritarrek helarazitako keak frogatzen dutenez ordea, Nafarroako Gobernuak ez du bermatzen euskarazko zerbitzurik liburutegietan.

“Iruñeko Liburutegi Nagusian izan nintzen. Euskaraz solas egin nion harreran zegoen langileari eta ez zidala ulertzen erantzun zidan. Euskaraz mintzatu nahi nuela erratean, arratsaldean bueltatu beharko nuela erantzun zidan, goizeko txandan ez bezala, orduan langile euskalduna egonen zela. Zergatik egin behar ditut bi bidaia dagokidan zerbitzua jasotzeko?”

“Irurtzungo liburutegi publikora DVD bat eskatzera joan naiz. Nire harridurarako langileak euskaraz ez dakiela esan dit”.

Euskaraz aritu nahi izateagatik tratu zakarra eta mespretxuzkoa jaso duen herritarrik ere izan da.

“Baionako liburutegian izena emateko fitxa frantses hutsean da. Hala izanik ere euskaraz bete dut, besteak beste, ‘karrika’ eman ez eta nire izena ‘uy’ grafiarekin eman ordeaz, ‘i’-rekin eman ez. Idazkaria haserretu zait eta mespretxuzko jarrerarekin hartu nau, hola ezin zela aritu deitoratuz”.

“Nire bikote australiarra eta biok Baionako Euskal Museora joan ginen duela egun batzuk eta harrera lekuan inor ez zen gai guri euskaraz atenditzeko. ‘Frantzian ginela eta frantsesa ofiziala dela’ esan digute; beraz, euskararik ez Euskal Museoa”.

Publizitateari lotutakoak, webguneak euskarazko bertsiorik ez izatea eta kartela, panela edo oharra euskaraz idatzi ez izatea ere maiz errepikatu diren arrazoiak dira aisialdiari lotutako jardueretan. Zenbaitetan baita erakunde publikoek diruz lagundutako edo baimendutako jardueretan bertako hizkuntza ez da kontuan hartzen eta administrazioek beraiek ez dute betetzen garatutako araudia.

“Azken urteotan, ekaina partean, ‘Nazioen Jaialdia’ egiten da Gasteizko Konstituzio plazan. Urtero kexak egon ohi dira, euskara ez baita inondik agertzen; ez azokan bertan, ezta jaialdiaren berri emateko erabiltzen diren euskarrietan ere. Udalak berak babesten duen ekimena izanik, euskara barne egon beharko litzateke”.

VITORIA GASTEIZ green capital

ENTRADA LIBRE
PLAZA DE LA CONSTITUCIÓN
AVENIDA GASTEIZ

FESTIVAL DE LAS NACIONES

4-28 JUNIO **Descubre el nuevo Festival**

5 VIERNES GASTEIZ DANCE 19:00/21:00/22:30 AL COMPÁS DEL ALMA 20:30/22:00 TRIO DE SEVILLANAS, BULERÍAS	19 VIERNES GRUPO DE BAILE 19:00/21:00/22:30 DND SWING BAJO 20:30/22:30 SWING VASCO-CATALÁN
6 SÁBADO GASTEIZ DANCE 19:00/21:00/22:00 DAVID HOOPER 22:00 BYRON BLUES	20 SÁBADO GRUPO DE BAILE 19:30/21:30/22:00 FONOTARECOS 20:30/22:30 FONONIA, DAP, IMITACIONES
7 DOMINGO GASTEIZ DANCE 19:00/20:30/22:30 GISELA "SALSICHO" 19:30/21:30 DANZA TRIBALES DEL MUNDO	21 DOMINGO GRUPO DE BAILE 19:00/21:00 GISELA "ORIENTE" 20:00/22:00 FONOTARECOS FONONIA, VAP, IMITACIONES
12 VIERNES GRUPO DE BAILE 19:30/21:00/22:30 BREQUETTE 22:00 TRIO DE LOS ESCOTCHON & RAUL ROMO AL SAXO	26 VIERNES GRUPO DE BAILE 19:00/21:00/22:30 20:00/22:00 GISELA "BOLLYWOOD" KATHAK, POLJGOR, RAJASTAN, ODISH
13 SÁBADO GRUPO DE BAILE 19:00/21:00/22:00 THE HOT WOK + SARA & MAURICIO 20:00/22:00	27 SÁBADO GRUPO DE BAILE 19:00/21:00/22:00 TRIBUTO A THE BEATLES 20:00/22:00 CON SILVER BEATS
14 DOMINGO GRUPO DE BAILE 19:30/20:30/22:30 U.S.M.E 19:30/21:30 LA VOZ KIDS 20:30/22:30 TERESA Y SILVIA	28 DOMINGO GRUPO DE BAILE 19:30/20:30/22:30 MARIACHI AZTECA 19:30/21:30 BANCHEROS, CORRIDOS MEXICANOS

TODOS LOS JUEVES, A BAILAR!

4/11/18/25	GISELA CUARTO DE DANZA 19:00
4	SHINE SWING LOUÏ NUP 20:00/22:00
11	RELAY HOT WOK 20:30/22:00
18	PREY Y CLARA, ELENA Y BARRI ESCUELA DE BAILE 20:30/22:00
25	SHINE FLAMEN CREW BREAK DANCE 20:30/22:00


ACTIVIDADES PARA KIDS & FAMILY'S TODOS LOS SÁBADOS Y DOMINGOS

SÁBADOS 19:00	SHOW COOKING, COCINA CREATIVA CON PAPAS, MAMAS Y ABUELOS
DOMINGOS 12:30/17:30	ACTIVIDADES INFINITAS CUENTACUENTOS, MUSICALES, TEATRO, MAGIA

Emociónate, disfruta y vive... festivaldelasnaciones.es

Consulta la programación en la web. Participa y gana Premios cada fin de semana.

“Uztailaren 11 eta 12ko asteburuan Donostiako Bulebarra, Elcano kalea eta Kursaalera paseo guztia kartel honekin josita zeuden. Zuhaitz eta farola guztietan jarri zituzten kartel guztiak gaztelania hutsean zeuden, bat bakarrik ere ez euskaraz”.



Erakunde publiko ezberdinek aisialdiari lotutako jardueren kudeaketan eta hauek sustatzeko abiatzen dituzten ekimen, kanpaina eta euskarri ezberdinetan ere askotan egiten zaio leku atzerriko hizkuntzei euskara baztertuz.

“Nafarroako Gobernuak Fiturrerako prestatu duen Stand-ean euskararen arrastorik ez da”.


“Bilboko bus turistikoak ez gaitu euskaldunok kontuan hartzen bisita gidatuetan. Ingelesezt, gaztelaniazt, frantsesezt eta alemanez ematen dituzte azalpenak, baina euskaraz hitz erdirik ere ez, euskara milaka urte dituen hizkuntza dela aipatzen badute ere”.

“Hendaiako turismo-bulegoan informazioa eskatu nuen, Baionarantz doan bidegorriaren inguruan. Euskaraz galdetu eta gaztelaniazt erantzun zidaten zuzenean... Bestalde, webgunea frantsesezt, gaztelerazt eta ingelesezt dago, baina euskaraz ez”.

“Gernikako Euskal Herria museoaren kanpo aldeko oholean Done Jakue bideari buruzko informazioa espainolezt eta ingelesezt dago; euskaraz ez”.


Aisialdiarekin zerikusia duten bestelako jardueretan ere ez da hutsunerik falta

“Larrungo tren ttikiaren 90 urte kari euskarak ez du lekurik sarreran (txartelen salmentan) ez eta soinu deialditan. Larrun, hain ederki erraten duzuen bezala zuen publizitatean, euskal kostako mendi mitikoa da. Segur aski badakizue herri honetan mintzatzan den hizkuntza duela milaka urte, euskara dela! Nahiko genuke gure hizkuntza bertzeen heinean izatea (frantsesa, gaztelania).?”



Bidaiak planifikatzeko informazioa, ikuskizunen gainekoa, aholkuak eta abar eskaintzen dituzten, eta gero eta gehiago erabiltzen diren, plataformetan euskaldunok ikusezinak gara.

“TripAdvisor bidaia webguneak ez du onartzen iruzkinak euskaraz egitea. 15-20 hizkuntzatan egin daitezke, baina euskaraz ez”.



Kirolak atal edo esparru garrantzitsua betetzen du gaur egun jendartearen egunerokoan. Kirolari eta dakartzan onurei gero eta garrantzi handiago ematen zaio. Bada, kirolaren udal erakundeetan zein bestelakoetan oztopoak aurkitu dituzte herritarrek euskaraz jarduteko.

“Iruñeko Sanduzelai auzoko igerilekuaren web orrian sartu naitz informazio eske eta ez dago euskaraz idatzia, gaztelania hutsean baizik. Beraz, non dira euskaldunon hizkuntza-eskubideak?”

BAQUEIRA BERET 2015
ABENDUAK 18/20 DICIEMBRE

SARTUA INCLUYE

- AUTOBÚS IDA Y VUELTA Y TRASLADOS A PISTAS
- ESTANCIA EN EL APARTHOTEL ETH REFUGI D'ARAN ***
- EN RÉGIMEN DE ALOJAMIENTO Y DESAYUNO BUFFET (4 PAX O DUPLEX O PIVO)
- 2 DÍAS DE REMONTES MECÁNICOS
- GUÍA
- SEGURO DE ACCIDENTES (OBLIGATORIO SI NO SE DISPONE DE ÉL)

50 LEKU PLAZAS

SALNEURRIA PRECIO

- ABONADOS: 170 €
- NO ABONADOS: 176 €
- SEGURO: 5 €

ARGIBIDEA ETA IZEN EMATEA INFORMACIÓN E INSCRIPCIÓN

OFICINAS DEL INSTITUTO MUNICIPAL DEL DEPORTE DE BASAURI:
 -POLIDEPORTIVO ARTUNDUAGA - B.º ARTUNDUAGA, S/N - 944 666 363
 -A PARTIR DEL 30 DE NOVIEMBRE, DE LUNES A VIERNES DE 9,00 A 14,00

BASAURI KIROLAK
 INSTITUTO MUNICIPAL DEL DEPORTE

ANTOLAKETA FERRETIKOA / ORGANIZACIÓN TÉCNICA:
Halcon bidaiak.com

“Basauri Kirolaren Udal Erakundearen ‘Baqueira Beret’ izenburuko kartela gaztelaniaz dago ia osoki, eta euskaraz dagoen apurra, txarto”.

BAC BIARRITZ
 FRONTON PARC MAZON
 Avenue Joffre

PELOTE BASQUE GRAND CHISTERA

Du 28 Mai au 24 Septembre 2015

Tous les JEUDIS à 21h
 et **Mardi 14 Juillet** **et** **Samedi 15 Août**

Renseignements : 05 59 22 37 10 / 05 59 23 91 09

EN CAS DE PLUIE
 repêché à l'Escalot Joffé (Fronton couvert Aguilères)

Logos for sponsors: ONGI ETHORRI, SD SAU IDEE, BIARRITZ RED, BAR JEAN, LE KHÉDIVE, EUROPOSE, RESTAURANT FOR CUISINE.

“Miarritzeko zesta-punta erakundearen komunikazioan, euskararik ez da agertzen. Kirola eta kulturaren arloan ere, euskarak bere tokia ukan beharko luke, are gehiago euskal pilotaren kasuan”.

Baita ahozko arretan ere

“Groseko Zuhazti kiroldegira deitu eta telefonoa hartu duenak ez dit euskaraz egin, nik euskaraz egin arren”

Haurren testuinguruan ere, adituek garbi utzi dute euskara behar bezala ikasteko ezinbestekoa dela aisialdian eta eskola eremutik at euskara erabiltzea. Hau, oso gutxitan bermatzen da.

“Alaba Donostia Kirolak-ek antolatutako tenis ikastaroan apuntatu nuen. Ikastaroa 6-8 urte bitarteko haurrendako, uztailearen 13tik 24ra, 17:00etatik 18:00etara Real Club de Tenis-en zen eta euskaraz. Asko begiratu behar dut ongi zetorkigun ordutegia eta lekua eta euskaraz izanen zen ikastaroa topatu ahal izateko. Ahalegin guztia alferrik izan da, ikastaroko monitoreak ez baitzuen euskaraz egiten”.

FUTBOL SALA
CADETE-JUVENIL

NACIDOS EN LOS AÑOS
1997-1998-1999-2000-2001

SI QUIERES JUGAR AL FUTBOL SALA
EN NUESTRO EQUIPO FEDERADO
LLAMA AL TFNO.669028719
Y DIVIERTETE CON NOSOTROS



International Surf Film Festival

Du 10 au 13 Juillet 2015 - Chambre d'Amour d'Anglet

Une édition sous le signe du made in France.

Nous voici arrivés à la veille de la 12^{ème} édition de ce rendez-vous incontournable du début de saison. La météo s'annonce sublime, 19 projections sur 4 soirées. Du voyage, des surfeurs et leurs histoires inspirantes, de l'Image, de la musique... Bruno Delaye vous a encore déniché une sélection exceptionnelle pour cette 13^{ème} année.

A partir de 17h, venez découvrir les 5 premiers films en compétition entre le Moyen Orient, le Japon, en passant par Tahiti et le Chili.

Here we are on the eve of the 12th edition of this key event of the beginning of season. The weather looks sublime, 19 projections on 4 evenings. Travel, surfers and their inspirational stories, Image, music, ... Bruno Delaye has yet ferreted out an exceptional selection for this 13th year.

From 5pm, discover the first 5 movies in competition between the Middle East, Japan, via Tahiti and Chile.

Programme du vendredi 10 juillet



17H00 - L'histoire de surfeurs israéliens et palestiniens partageant la même passion.

[Lire la suite...](#)



17H30 - Lorsqu'un shaper japonais réalise son ultime gun.

[Lire la suite...](#)

AQUAVOX SAN JORGE

Última hora: ¿Todavía no le has abonado?

PORTADA INSTALACIONES ACCESO Y TARIFAS NOVEDADES OTROS CONTACTO

Bienvenido a la Web del Agua [Acceso y Tarifas](#) [Fichas](#)

26°C 19°C

GESPORT 	PLAN DE IGUALDAD 	SELLO RECONCILIA
PRECIOS 	ESCUELA INFANTIL DE TRIATLON 	Tercera Campaña de Natación 2014-2015
YOGA PARA MAYORES DE 50 AÑOS 	Ocupación piscina nado 2014-2015 	galería de fotos

1 de 19

Bukatzeko, hedabideen kasuan, Nafarroako Foru Erkidegoan komunikazio alorrean euskal komunitateak aspaldi aldarrikatutako funtsezko bi urrats eman dira: 27 urteren ostean Euskalerrria irratitari zegokion legeztapena eta ETBko lau kateak Iruñerrian LTD bidez ikusteko aukera bermatzea.

Komunikazioa > EITB

ETB digitalean ikusiko da Iruñerrian aurrerantzean

Iritsi da eguna. Aspaldidanik, eta bereziki Gobernu aldaketa gauzatu zenetik, euskaldunon Hiri Buruzagiko euskaldun askok eta askok espero zutena: astelehenetik aurrera, ETB Iruñerriko etxeetara Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) bidez iritsiko da, gainontzeko kateak bezala.

EUSKALERRIA IRRATIA @fm914 2015eko urriaren 26a



Aspaldiko eskaerari erantzungo zailo astelehen honetatik aurrera ETBren emisio digitalarekin.

Izan ere, hemendik aurrera, Erreniega eta Ezkaba mendietako errepikagailuek digitalean zabalduko dute euskal telebistaren seinalea. Hori horrela, euskaldunon Hiri Buruzagiko etxeetan ETBren lau kateak ikusi ahal izanen dira, 27 eta 41 kanalen bitartez.

Kate orokorrak ez ezik (ETB1 euskaraz eta ETB2ko gazteleraz), astelehenetik aurrera haurrei eta gaztetxoel zuzendutako ETB3 katearen eskaintza zabalaz, eta fikzioa, entretenimendua eta kirolak uztartzen dituen ETB4ren programazioaz gozatzeko aukera izanen dute.



AZKENAK



"The Revenant" eta infernu bilakatu ziren beste 8 errodaje



Osakidetza mahai sektoriala

Bestalde, bi urteko geldialdiaren ondotik, Iparraldeko notizien berri euskaraz ematen zuen ETB1eko Iparraldearen Orena saioa berreskuratzea berri ona izan da euskal hiztunentzat.

Horiekin batera, Nafar Telebistaren sorrera (bi kate; NTB1 elebiduna Nafarroa osorako eta NTB2 Iruñerriko eta euskara hutsean) eta, 6 urteko bazterketaren ondotik, Iruñeko Udalak liburutegi publikoetan Berria egunkaria berriro irakurgai paratzea, iruindar euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzeko beste keinu batzuk izan dira.

Esan dezakegu, bada, urrats hauek hobetu egin dutela euskaldunen hizkuntza-eskubideen bermea.

Halere, Nafarroako Parlamentuak 2015eko aurrekontuak atzera bota izanak, euskal hedabideak inongo diru laguntzarik gabe lan egitera behartu ditu, berriro ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, telebista publikoan euskaldunak gaztelaniaz hitz egiten agertzea kexa iturri izan da berriro ere eta horren adierazgarria da euskalgintzako hainbat pertsonaia ezagunek ETBri egindako eskaera zuzena: ETBn euskaldunak gaztelaniaz hitz egitera ez bultzatzeko.

berria

Bizigiro >

156

Hizkuntza hautua errespetatuko du EITBk solaskideen adierazpenetan

Aspaldiko eskari bati erantzun dio erabakiarekin. Neurria «modu naturalean» ezarriko du



ETBn euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten kultur eta kirol munduko hainbat pertsona ezagunak: ANDONI CANELLADA / ARGAKZI PRESS

Ikus-entzunezkoetan ez ezik, idatzizko medioetan ere euskarari eskaintzen zaion presentziagatik ere kexak jaso dira Behatokian

“64 aldizkaria jasotzen dut etxera. Nola posible artikulua bat ere euskaraz ez izatea? Euskara departamenduaren arduretari bat bada, gabezia horren arrazoia ez dut ulertzen. Koherentzia falta dela iduritzen zait”.

ONDORIOAK

Aisialdiaz gozatzeko jarduerak eta kultura adierazpide ezberdinek aberastu egiten dute jendartea. Baina horiek euskaraz jaso ahal izatea maiz ez da posible izaten euskaldunentzako. Kultur gertakariak eta aisialdi jarduerak euskaraz gozatzea mugaturik dugu euskaldunok.

Kultura eta aisialdia euskaraz bizitzeko zailtasunak daude eta beste edozein hizkuntzatan egindako kultur ekintzetan ere, askotan, horiek iragartzeko komunikazio hizkuntza ez da euskara izaten. Kultur eskaintza orekatua izatetik urrun dago.

Aisialdian, askotan, euskara apaingarri gisa azaltzen da. Bideratzen diren hainbat eta hainbat ekimenetan euskara, maiz, baztertuta geratzen da. Umeei eta gazteei bideratutako aisialdirako jarduerak ere usu ez dira euskaraz izaten eta aisialdia edo eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz komunikatzea eragotzi egiten da.

Euskararen normalizazioan aurrera egiteko euskarazko kultur adierazpenak indartu eta zabaltzea eta aisialdian euskararen presentzia handitu behar dira. Bide horretan urratsak emanez, euskara erabiliz eta sustatuz, gainera, munduko kultur aberastasuna babesten ari gara.

can



euskaraz
bizia
nahi dut

euskaraz
bizia
nahi dut

euskaraz
bizia
nahi dut

euskaraz
bizia
nahi dut

euskaraz
bizia
nahi dut

euskaraz
bizia
nahi dut

7. LAN MUNDUA

Robert Owen izan zen 1817. urteko Ingalaterran 8 orduen helburua zehaztu zuena. 8 lanerako, 8 bizitzeko eta azken 8ak atsedenerako. Pertsonen bizitzaren heren bat lanean ematen dugu eta beste asko beste batzuen lanaz baliatuz. Euskara normalizatzeko pertsonak euskalduntzea bezain garrantzitsua da espazioak euskalduntzea. Esan liteke, lan mundua euskaldundu gabe ez dagoela aukerarik hizkuntza normalizatzeko.

